

GUTUN FILOSOFIKOAK HITZAURREA

Letra unibertsalen historian, literatur estilo berri baten sortzaileak agertzen dira noizean behin, gustu berri baten edo poetika desberdin baten bultzatzaileak, gero jarraitzaile ugari eta hasiera emaila bera gainditzen duten lantzaileak ere izaten dituztenak; pentsamendu filosofiko edo zientifikoaren historian badira sistema-sortzaile banaka batzuk eta zenbait teoria akuinatzaile jenial, zeinen obraren atzean dizipuluen erreskada ñabarra metatzen den, ilada gutxi-asko errutinazkoa eratuz maisuak erabakitako autobus-geralekuan. Baina askozaz ezohikoagoa da norbaitek letra gizon tipo berri bat, estudiatu, pentsatu, idatzi eta hitz egiten dutenen alorrean lanbide desberdin bat asmatzea. Horrela, esate baterako, Tales, Heraklito eta Pitagorasen artean banatu ohi da filosofo klasikoa asmatu izanaren meritua; Baudelairek, agian, poeta xelebre, bohemio eta madarikatuaren halako tipo bat patentatu zuen; Freudek arrakasta handiarekin eratu zuen psikoanalista modernitateko aitorrentzule gisa, eta abar.

Voltaireren maisu-lana intelektual modernoaren asmakuntza izan zen, agitadore politikoarengandik zerbait, profetarengandik asko samar eta zuzendari izpiritualarengandik dezente hartzen duena. Izaki susmagarri baina beneratu horrek duela ehun urte harrapatu zuen prestigioaren gorena, Dreyfus aferarekin eta Emile Zolaren "J'accuse"-ekin; gero gorenaldiari eutsi zion XX. mendearen hiru laurdenetan zehar, Romain Rolland, Bertrand Russell eta Jean-Paul Sartre bezalako figuren euskarriarekin, harik eta azken hogeitazko gainbehera nabarian sartu arte. Baliteke inular hori behin betikoa izatea edota figura horrek itxuraldaketa bat izatea, aurrerapen kuantitatiboek eta komunikabideen ahalbide berriek bultzaturik. Azken finean, prentsaren garapenak, postaren orokortzeak eta kapital pribatuak XVIII. mendean argitalpen enpresatan egindako inbertsioek izan zuten zerikusirik franko voltairear asmakuntzarekin. Logikoa da autopista berriemaile berriek ondorengo baten agerpena laboratzea: faxaren eta CD-ROMaren Voltaire noiz agertuko zain gaude... Nolanahi ere, orain arte ezagutu dugun intelektualaren figurak hiltziko garrantzia izan du kultur identitate garaikidearen hoberena eta txarrena mamitzeko orduan.

Voltaire ez zen inoiz tragiko handia izan, berak beti amets egin eta bere garaikide batzuek sinetsi zuten; askoz gutxiago poeta gailena. Egiazki filosofikoak ziren bere entseiek egoki barreiatzen dituzte Lockeren eta Baylegandik igarotako Spinozaren ideia batzuk, baina ez dira originalegiak, ezta sakonegiak ere. Historialari gisa irizpide berri eta aurreratuak izan zituen, Humeren antzekoak baina zenbaitetan berari aurre hartuz, eta bere garairako erudizio guztiz nabarmena baliarazi zuen: halere, oso zalantzezkoa dirudi alor horretan soilik egindako merituek bere mendeko iraultza intelektualean hartzen duen lekua berma ziezaioketela pentsatzea. Nahiz eta bere erlatoetako batzuk lorpen orbangabeak izan, hala nola: Kandido, Zadig edo Mikromegas, ez dute generoa berriztatzen ezta Gulliverren bidaiak (zeinetan hainbeste inspiratu zen), Sterneren Tristram Shandy edo Dideroten Rameauren iloba eta beste zirrimarra jenialen originaltasuna sakona ere lortzen. Bere analisi soziologiko edo politikoei dagokienez, nahiz eta zehaztapen zentzuzko ugari duten, ez dira indar iradokitzailez Rousseauren ezta Helvetiusek une hoberenen probokazio radikalaren pareko gertatzen. Voltairez esan liteke Jean d'Ormessonek Jean-Paul Sartre hiltzean aipatu zuena: "Behin betiko maisu-lan bat baino areago, talentu neurtezin baten lagin ugari utzi dizkigu".

Zer geratzen zaigu orduan Voltairegandik? Haren militantziaren etsenplua, esku hartzeko haren bokazio intelektual bezala defini genezakeena. Descartesek eta geroago

Spinozak beraien gaian artean nagusi ziren metodo intelektualak zuzentzeko idatzi zuten; Voltairek onartu eta erradikalizatu egin zuen emendakin hori, baina hedatuz, ez ulertzeko erara soilik baita ulertutakora ere. Lehen razionalisek ez bezala, Voltairek ez zuen gure mundu-ulerkera aldatu soilik egin nahi, ezta jakintsuak mundua duen portaera indibiduala ere, baizik eta mundua bera emendatu nahi izan zuen. Mundua ulertzetik hura eraldatzera pasatzea beharrezko delako Marxen tesi ospetsua Voltairegan aurreko esplizitu eta harrigarriro kementsua dauka. Inor ez zen aurretik hain argiro konturatu ideien bitartez gizartearen armazoi opaku eta errutinazkoaren gain eragin litekeen indar birsortzaileaz. Zuzen norabideturiko ezagutza eta pentsamenduan (bien multzoari deitzen dio Voltairek "filosofia") benetako botere bat dago, botere ongile eta sendatzailea gobernatzaileen eta klerikoen botere ilunzaletik, botere despotikotik arin gaitzakeena. Baina botere filosofiko hori mugiarazi egin behar da. Liburu akademikoetatik atera eta kalera eramanez, ariete eta bandera bihurtu. Horretarako beharrezko dira baldintza batzuk, Voltaire arte inork kontzienteki biltzen jakin ez zituenak: ikuspegi historiko jakin bat, fede arrazional bat, diziiplina bat, propaganda eta polemika tresna bat, irakurlego egoki bat. Ikus dezagun xehekiago nola esku hartzen duen eskakizun horietako bakoitzak voltairear osotasun dinamikoan.

a) Ikuspegi historikoa. Montesquieuk argi eta garbi hauteman zituen usadio politikoak aldi eta aldeetan barrena, baina ontzat eman zuen guztiek dutela beren justifikazioa eta beren zergatia. Lege itxuraz aldrebesen edo ankerrenen ere badute arretaz aztertuz gero beren izateko arrazoi propioa, giza taldearekiko ingurugiro- edo karakteriologi baldintzekiko zerikusian. Arrazoizkora moldatzeko era diferente ugari dago eta bata bestea batzuk baino nahiago izatea gure tradizioen baitan dago, hau da, gure aurreiritzien baitan. Eta alderantziz: gizarte orok bere absurduak eta bere irrigarrikeria edo inkontsekuentzia bereziak lantzen ditu. Behar bada paristarren sistemak baliteke abantailak izatea persiarrenaren aldean, baina ez pertsona guztiak paristar modura portatzera behartzeko adina noski. Baikortasun-ikuspegi bareki funtzionalista horri kontrajartzen zaio Pascal edo Bayle bezalako ezkor handien eszeptizismo erradikala. Montesquieurentzat, arrazoiak alderdi guztietan dago; haientzat, giza arrazoi oro zorakeria da eta fedearen aldeko apustu irrazionalak soilik salba gaitzake. Hau da, mundutik salbatu, zeren ezerk ezin baitezake mundua salba. Giza joraren atzean handigura dorpea, fribolitatea, asmo kriminalak kasurik txarrean eta tentelak hoberenean. Montesquieurentzat dena justifikagarri gertatzen den bitartean, Pascal edo Baylerentzat ezer ez da, lurtarrarekiko gure afiliazio desiratzailea ezabatzen duen fedegintza izan ezik.

Iraganeko edo presenteko zentzugabekeria politikoen aurrean suminik ez duenak ezin dezake bulkada iraultzailerik izan; ezta ezein giza ahaleginek makurragotu besterik egin ez ditzakeen gaitz metafisiko baten argibidetzat hartzen dituenak ere. Voltaireren ikuspegi historikoak, aldiz, nahastu egiten ditu osagai horiek proportzio diferente batean. Legen abusu eta aldrebeskeriak ez dira itxurakeria irreflexibo hutsa, Montesquieuk uste duenez, baizik gaitz oso errealak; baina ez dira gizakiaren natura eroriaren kondizio tristearen adibideak, baizik eta kausa adigarri eta emendagarrietatik etortzen dira: boteretsuen abusuzko interesetik eta superstizioen asmatzaileek bultzaturiko masen ezjakintasunetik. Gure naturaleza arrazionalak eta justiziaren jaiotzatiko zentzuak erreboltatu egiten dira iraganeko ankerkerien kontra, zeinen aztarnak presentean oraindik ikusgaiegiak diren. Ez dago baikortasun-ziorik, noski, zeren eta horrek jatorrasun eza suposatuko bailuke gaur egunera arte giza historia, munduaren alderdi guztietan protagonista desberdinekin errepikatzen den tragedia hori eratzen duen izugarrikeri metaren aurrean. Baina etsipena ere ez da itxurosoa ez duina, zeren tiranoen kontra egin zieten hainbeste gizaki jatorren, jakineza eta sineskeria

borrokatu zituzten hainbeste jakintsuren, askozaz sarriagoak izan diren barbariezeko gertakarien artean ongizate erlatiboeko aroak ahalbidetu zituzten agintari batzuen ahaleginak, horrek guztiak erakusten baitu posible dela positiboki esku hartzea patuaren ibilbide beltzean, pixkanaka bere joera makurrenetatik sendatzeko.

b) Fede arrazionala. Huts egiten du Rivarolek dioenean Voltaireren pentsamendua isekaria, disolbagarria, suntsitzeko soilik egokia eta ez beste ezertarako, "oinarritzen eta sistematizatzen duen ezer gabea" dela. Oso kontrara baizik, Voltaire fededuna da eta bere filosofian edozein dogma erlijioso bezain oinarri argi eta iraunkorra dago. Voltairek lege natural batean sinesten du, zeinari ezbairik gabe jatorri jainkotiarra egozten dion, zeinaren adierazpen zalantzagabea gizakien arrazoian eta bihotzean aurkitzen den. Superstizioa salatzen duena bere aldakortasun taigabea da, bere metamorfosien ezin amaituzkoa da, kronologia eta koordenatu geografikoen arabera. Lege naturala, berriz, bakarra da, zeinaren unibertsaltasuna aldi eta alde orotan berragertzen den, bere eskakizunaren zuzentasun apelaezina horrela berretsiz. Herrialde guztietako haurrek abiada hartzen duten bezala inork fisika irakatsi beharrik gabe salto egiteko, ezkutatu nahi duenak alderdi guztietan bere buruaren eta pertsegitzaillearen artean zuhaitza tartekatzen duen bezala perspektiba ikasi beharrik gabe, gizaki bakoitzarengan bada justua eta injustuaren ideia bat, zeina den komuna guztientzat, independentea eta edozein legeria positiboren aurretikoa, haiek guztiak epaitzeko gai dena. Mendeak izan litezke beharrezko natura fisikoaren legeak ezagutzeko, baina introspektzio soilak ematen dio gizaki jatorrari une batean lege moral betikoak ezagutzeko aukera.

Fede voltairearra arrazoiaren baiezipen suharra da, zeinak hartzen duen bere doktrinan grazia santutzaileak kristautasunean daukan egitekoa. Izan ere, arrazoa da Jainkoak bizitzako hainbat gaitz konpentsatzeko ematen digun grazia, gure alde egindako salbuespen positibo bakarra naturako lege errukigabeetan. Hortik dator Voltaire ateoeekin santujaleekin bezain zorrotza izatea intelektualki: bi taldeek ez dute ezagutzen Jainkoaren egiazko handitasun arrazionala. Arrazoa gizabanako bakoitzarentzat hoberenaren bila dabilen norbereganako maitasunarekin eta geure gizakideentzako onurazkoena opa izatera makurtzen gaituen onginahiarekin batera dabil. Bilbadura horrek eusten dio gizakiaren gizarte bizitzari eta bere berrikusketa iraunkorra, bere hobekuntza taigabea eskatzen du. Dagoeneko adierazi dugunez, oinarri beharrezkoen eta gizarte-bizitzaren hobegarritasunaren baiezipen hori Voltairegan, ez da batere hotza, kalkulatzailer sarkastikoaren bere sona azalekoa gora-behera, benetako grina bat du. Oso ongi deskribatu du Bernard Groethuysenek: "Arrazoigabearen, absurduren deuseztapena eskatzen duen grina bat eta arrazoa eta zuzenbidearen araberakoa dena bizitzan burutzeko joera duena. Grinaren arrazoa berorren oinarri eta xedetzat zuzenbidearen logikaren arabera kontzebitua ikusten duena, era objektibo eta inpersonalean, eguneroko bizitzako kasu konkretuetan arrazoiaren kontrakoa denarekin sufrizten duen grina. Hitz batean, grina hain zaurgarria injustiziarekiko, non ezin duen esku hartu gabe gelditu kasu partikularretan, arrazoi argi eta buruaz ziur dagoen baten lege orokorren arabera, zeinahi delarik ere gertatzen diren lekua". (Philosophie de la révolution française)

c) Diziplina. Voltaire da pentsamenduaren historian iritzi arraro gutxien egotz lekiokkeen figuretako bat. Zentzu batean hori bere kontra bihurtu da: pentsalariak batez ere beren diktamen desarauzkoengatik, jenialki xelebreen edo paradoxazkoengatik gogoratu ohi ditugu. Voltaireren ideia nagusiak, aldiz, gure zentzu komun modernoaren altxorrean daude jadanik, eta horregatik batzuetan haiek irakurtzean begi-bistakoegiak gertatzen zaizkigu, aurrikusgarriegiak. Bere irizpideetako gehienek halako moldez atera dira garaile, non, hain ezeztazinko geure egindakotzat dauzkagun, ezen zertxobait

gutxiesten dugun zerbait gehiago txundi gintzaketen beste batzuk ez sostengatzearren. Baina Voltairek oso argi eduki zuen beti nora iritsi nahi zuen bere iritziekin: inor ez da bera baino apeta eta halabehar gutxiagokorik. Konpara dezagun Diderot irudimentsu nekagaitzarekin: Entziklopediaren zuzendariak ezarrita zegoenaz bestetara gauzak pentsatzen saiatu zen beti, baina bere espekulazio ausart eta batzuetan kontraesankorren ondorio praktikoez arduratu gabe. Diderotek su eta gar segitzen dio ideia txundigarri bati haren azken muturreraino, konbentzioei erronka eginez baina haiek eraldatzen ahalegindu gabe, espekulazio librearen gustuz areago asmo praktikoren batek eramana baino. Ez zen arduratu bere lan filosofiko originalenetako batzuk argitara ematen, zeinak ez ziren editatu bera hil eta gerotxora arte (Kasurako, Rameauren iloba, jadanik Goethek alemanez XIX. mendean erreskatatua, edo D'Alemberten ametsa).

Voltairek, aldiz, ez du begietatik inoiz galtzen bere irakatsien interes soziala. Inoiz ez da doako bere planteamenduetan, zeinek beti nahi izaten duten erroreren bat borrokatu edo kasu bakoitzean historikoki baliagarrientzat jotzen duen jarrera intelektual bat sortarazi nahi duten. Ia une guztietan dibertigarri izaten daki, baina taktikaz beti, interesgarri gertatu eta bere irakurleen arreta bereganatzeko, inoiz ez fribolitatez. Pedagogo handia eta dibulгатzaile bikaina da, espekulatzailer sortzaile bat baino askoz gehiago. Baina alderdi gizon ere bada (eta alderdi pertsegitukoa, argitzen du bere gutunetako batean), militante deliberatua. Bere alderdia filosofoena da, zeinak gerrilari intelektual bihurtu nahi dituen. Etsipenak jotzen du haien batasunik ezaren aurrean, haien ikusiez in eta norkerien aurrean, fanatiko eta intoleranteen saldo trinkoaren aurrean ahultzen dituzten haien barne-enfrentamenduen aurrean. Bere Damilaville fidelaren eta d'Alambert epelaren bitartez tonu epiko-trufarizko arenga sutsuak helarazten dizkie, taldearen batasun anaikorrerako deiez eta oskurantismoaren kontrako gerran garaile ateratzeko ohar taktiko eta estrategikoz beteak. Entziklopediari eskaini zion laguntza gutxiago izan zen obra berarekiko sentitzen zuen suharrarengatik, zeinaren eduki intelektualaz erreserba ugari samar baitzeukan eta zeinean lankidetzat oparoa izan zuen baina sarritan gogogabe idatziriko artikuluekin, ez ezen baterako egiteko baten irrikarengatik, zeinak bateratu eta diziplinatuko zituen bere tropa sakabanatuak arerio komunaren aurka. Alor laikoan izandako jarrera korporatibo eta erasokor hori bere lehen maisu izan zituen Jesusen lagundiko kide haien ondareztat hartzen du zalantzarik gabe. Agian esan beharko genuke intelektual modernoak -polemiko, mundukoi, xehetasunetan oportunistak baina printzipioekiko fidela, hezitzaile ezer baino lehen- ia erdi bana asmatu zuten Iñigo Loiolakoaren eta Voltaireren artean...

d) Gudu-tresna. Voltairer estiloa borroka-zelai zibilizatuan inoiz guduan aritu izan zen armarik ahaltsuenetako bat izan da noski. Erraza da goresten baina zail da bere mekanismo guztiak analizatzen. Somerset Maugham izan zen bere miresle sutsuetako bat eta The Summing Up obran dio Voltaire "the best writer of prose that our modern world has seen" izan zela. Maughamentzat, prosa ona idazteak manera onak eskatzen ditu: poesia ez bezala, prosa arazo zibila da, kortesa ere bai. Voltaireren fineziak eta neurrizkotasun maliziatia kalte egiten zioten bere bertso eta tragediei, aldiz, mende eta literatur moden bilakaerarekiko prosa inbidiagarriro iragazgaitza lortzeko aukera eman zioten. Klasizismoa halako zabarkeria okasiozko batez elkartzen jakitea, zeinak gehitzen dion espontaneoaren gordintasuna eta miresgarriki doakiona bere umore-mota bereziari. Konplutua da baina erasokorra; aratza baina gainulertutan aberatsa; xahua eta sentikorra ere bai zenbaitetan formak errespetatzeari dagokionez, baina bizitasunean parekorik gabea. Batez ere bi gaitasun aparta ditu: argitasuna eta laburtasuna. Ulergarria da, harira doa, ihes egiten die itzulinguruei imajina argitzaileetara jotzen du beti irribarre eraginez pertsuaditzeko eta ez du alferrikaltzen irakurlearen denbora, zeina egoki suposatzen baitu presakati eta zertxobait barreiatua. Ezagutzen du bere

moderno... Ez da argudiatze luzeetan ere katigatzen, mesfidantza ere badie: aurkariaren absurdua lumakada pare batean erakusten du, mutur kontrajarriak elkarrizketa itxuratutan kontrastatzen ditu, ez du bide zuzena esplizituki proposatzen baizik eta irakurlearengan haren agerrera ahalbidetzen du. Ergelkeria porrokatzeaz eta denok dugun arrazoimenari itzar dadin astindu-lege bat emateaz nahikitzen da: tira, orain hi, ausar hadi... Goitik beherainoko eredu bat, Somerset Maughamek idazle gaztearentzako aholku bihurtzen duena: "If you could write lucidly, simply, euphoniously and yet with liveliness you would write perfectly; you would write like Voltaire".

Behin eta berriz esan beharra dago Voltaire doktrinario bat dela zalantzarik gabe, baina ez masa hipnotizatzaile bat ezta amainari bat ere. Ez ditu dogmak oihukatzen baizik nahiago du indarrean daudenen zimentarriei umorez azpijana egitea; iritzi zuzenari dagokionez, bakoitza hartara berez iristea espero du. Kontua ez da, ezta hurrik eman ere, iritzi guztiak baliokidetzat jotzea, ezta bakoitzaren burutapenak burutapendunen pertsonak errespetatu behar dien neurri berean errespetatu beharrekoak direnik suposatzea ere. Erlatibismoaren desbideratze garaikideotara, Voltaire zorionez ez da hurbildu ere egiten. Voltairek uste du guztiok ongi pentsatuko genukeela (eta ondorioz berdintsu) utziko baligute: hau da, gaizki pentsatzen irakatsiko ez baligute edo behartuko ez bagintuzte. Egiaren kontrako eragozpenez idazten du, guztiok partekatzen dugu arrazoitik eta lege naturaletik berez bidea urratzeko gai izango delakoan: hortik bere "porrokatzaile" sona, berak beretsia. Baina hain zuzen ere metodo horrekin, Groethuysenek ongi dioenez lehen aipaturiko estudioan, "bakoitzaren pentsamenduaren autonomia apelatzen du." Bere goiburua beraz honako hau izan liteke: "Zeulon arrazonamendu propioaz fida zaitezte, beti konkretuaz, definituaz ordeztu baiespen zalantzakor edo orokorrak". Zehaztugabetasunaren lausotasun eta lilurakeriak dira ahalegin arrazionalaren etsai handiak. Beraz argiak izan beharra dago idazten denean: jatoriasunez eta printzipioekiko fedez. Argiro idazteak ez du norberak dena garbi daukanik esan nahi, ezta hurrik eman ere. Sineskerien eta sasi-zientzien erresuman, zalantza zuhurtzia arretatsuaren seinale da. Hortik datorkio Voltaireri bere idatziak postura kontrajarrien arteko elkarrizketa modura planteatzea, jarrera itxuraz uztarrezinen artean ondoratze pentsaezinez edo hurbilenen artean bereizkuntza amilgarriz beteak bezala. Horrela gogoetarako gaia eskaintzen dio bere irakurleari, hartan ordezeko gertatu gabe. Egiarako gure hurbilpena egiteko infinitua da eta beharrezko da zentzua izatea geure buruari egiten dizkiogun galdera askok ihes egiten diotela behin betiko kantzelatuko dituen erantzunari ezagutzeko: Jainkoak arrazoa dagokiguna ulertzeko eman digu baina ez unibertso infinitu eta betikoan dena ulertzeko. Beraz arrazoiak alde batetik ausarta izan behar du (geriza eta tradizio akritikoki onartuetaatik libratzeko) baina baita apala ere gure mugei men egiteko. Hain zuzen ere familiaritasun iraingarritz eta apelaezinez absolutuaz hitz egiten duten jakiteak agintzea da nigromante erlijioso edo politikoen trikimailu gogokoena. Horien kontra jaurti zuen Voltairek bere azkona, argi eta doi. Bere helburua nor bere independentzia intelektualaz jabeaztea zen.

e) Irakurleria bat. Berea bezalako egiteko batek arrakastabiderik izan zezan, Voltairek irakurleria bat sortu beharra zeukan. Lortu zuen eta inork espero zezakeen baino zabalagoa gainera. Estamentu ugari alde batera utzi beharra zegoen alde aurretik eragin eremu posible gisa: hasteko, klerikoak eta eliz agintariak, santujaleak, aitasantu influentzien trafikariak, predikariak, aitorrentzuleak, inkisidoreak... Baita jansenista erako herejeak edo musulman eredu sinesgabeak ere, aurkarien intolerantzia jasaten zutenak baina egunen batean hura praktikan jarri ahal izatea beste amets kuttunagorik ez zutenak, lehen zegoena baino ere makurragoa ezarritz. Unibertsitate-estamentuko kide gailurreratuak ere ez zegoen aintzakotzat hartzerik, adiurrez eta errutinaz ortodoxiaren

zaindari baitziren; ezta noblezia feudal zaharraren urtume zakaztuenekin ere, izan ere pribilegioez gozatzen jarraitzeko aukera bakarra mundu honetako hierarkiak betiko zurruntzean baitzeukaten. Jakina, herri xehea inolako zalantzarik gabe irakurleria ideal horretaz kanpo gelditzen zen. Kideek ez zuten inolako kezka intelektualik eta independentzia pertsonalik, biak baitzeuden derrigor ongizate ekonomikozko halako maila bati. Beste ilustratu iraultzaileago batzuk ez bezala, Helvetius eta gero Condorcet bezala, Voltaire ez zen inoiz hezkuntza eskulanetan eta egiteko astunetan aritu behar zuten geruzetaraino hedatzearen aldeko: zertako balioko zien ezagutzak gehitzeak, baldin eta inola ere ezin baldin bazuten bertan behera utzi beren zerbitzu zakar baina ezinbestekoa, zeinerako inolako baliagarritasunik ez zien eskainiko ikasteak? Herriak aski zuen moral osasungarritzko arau banaka batzuk hartzearekin eta noizean behin bere nekeak arinduko zizkion entretenigarri batzuk. Diskisizio filosofiko nahasiak, zer esanik ez teologikoak, ulertzeko gai ez direnei eta izan beharrik ere ez dutenei baina haien kitzikadura senti dezaketenei predikatuak, liskar odoltsu, pertsekuzio eta erlijio-gerren eragile izan daitezke.

Nor gelditzen da, ba, irakurlego horren parte izateko, zeinagandik Voltairrek bere indar guztia, gizartearen egitura eta gizakia bera ere multzo zibilizatu gisa arrazionalki birsortzeko gai den indarra lortzea espero duen? Jende gisakoa: profesionalak (batez ere mediku eta irakasle gazteak), finantzariak, merkataria, artisauak, administratzaileak, militar estudiozaleak, edozein akademiatako zientzizigonak, artistak, bidaiariak, abate libertinoak, dama sentikor bezain artaga eta ongi heziak, noblezia txikiko kideak eta baita handikoak ere salbuespenezko kasutan (Espainiako Albako dukea eta Arandako kondea bi adibide hispaniko izan ziren, biek izan baitzuten Voltaireren kontsiderazio gorena). Gehi dezagun bitxikeria gisa, Prusiako Frederiko, eta enperatriz bat: Errusiako Katalina. Jakin-mineko pertsonak, aisia pixka bat, ikasketadunak eta aurreiritzi gehiegirik gabeak. Burgesia kultu, moderatu, gerren etsai eta negozioen adiskide zena, aurkikuntza zientifikoen eta ugaritasun ekonomikoaren zale itsua. Voltairrek badaki irakurlego ilustratu hori inoiz ezin daitekeela gehiago izan, baina aitzitik gizartearen parterik jardunkor eta eragimentsuena dela. Horiek ideia filosofikoen alde jartzea aski da gizarte osoa eraldatzeko. Irakurlego tolerante eta ongi prestatu hori izango da Voltairrek ekinean ikusi nahi duen legegilea ere, genealogi pribilegioen eta sineskeriazko tradizioen kontra. Pragmatismo voltairearrarentzat garrantzizkoa legeak hoberen kontzebi ditzakeenak egitea da; puntu horretan erabat bestelako iritzia du hamarrurte batzuk geroago iraultzaileek proposatuko dutenaren aldean, zeinaren errebindikazioa ez den asmamen gehien dutenek legeak egitea, baizik eta legeak egiteko eskubidea duten guztiek. Zeren inork ez baitie legeri men egin behar, baldin eta beraiek egiten esku hartu ez badu, berak edo bere ordezkariak... Baina hori beste auzi bat da. Voltaire, ez zen batere igualitarista edo oso gutxi eta gutxiengo zabal hautatu batentzat idatzi zuen, ez gehiago iraultzaile batentzat: bera izan zen errebelde eta eraberritzaile erradikal, baina higuina zion (eta beldurra) bortxazko altxamendu orokortuaren ideari.

Horrelakoak izan ziren Voltaireren irakurleak Europa osoan: sinadurarik gabeko baina estiloak erabat bereizgarri bihurtzen zituen bere panfletoen zain egoten ziren, oskurantismoaren kontrako kontsignak, estimuluak, argudioak jasotzeko. Nahiz eta haietariko asko Entziklopediaren harpidedun izan, Voltairrek bere atxikien erabilpenerako Hiztegi filosofiko, garraigarri eta zirtoduna prestatu zuen: bazekien eraginkorra izatearen sekretua dibertigarria ez ezik besarkagarria izatean ere bazetzala. Gudu-arma bihurtzean, liburuak merkatur, arinduz, txikituz, maneiatu eta... ezkutatua izateko erraztuz joan behar du. Bestalde, ordena alfabetikoak kontsulta bizkorra egiteko aukera eskaintzen du etsai erreakzionarioaren kontra behar den munizioa aurkitzeko. Voltaire da, patrikako liburuaren asmatzailea ez bada ere, gutxienez ideiak hedatze

kritikoan dituen ahalbide ugariak ulertzen lehenetariko bat. Bitxiena da Voltaire hainbesteko arrakasta izan zuela irakurleria bat antolatzen, non entzuleria zenbaitetan haren alderdiaren aurka ere jarri zen. Zeren kontua da voltairearrak ugariago zirela ilustratuak baino eta filosofoen etsai makurrenetako askok Voltaire beragan ikasi zituzten beren amarru dialektikoak. Har dezagun, esate baterako, Rivarolen kasua: zein voltairearrago zehaztasun dotorea eta sarkasmoarengatik, eta zein antivoltairearrago funtsezko ideiei zegokienez? Voltairek bere aurkariak ere liluratu egin zituen, baina haietako buruargienek ikasi egin zuten beragandik gero borrokatzeko.

Fisikoki desagertu eta hurrengo bi mendeetan (erabateko desagerpena, zeren bere gorpuzkinen aztarna ere galdu egin baita), bere izenak irreberentziaren erroldagune izatearen prestigioarekin dirau, baina ez zaizkio ahakarrak eta kritikak barkatzen. "Mundu guztiak pentsatzen duena esaten duen autore", ziurtatu zuen inozoki andre batek, berak lehen esan zuelako parte batean mundu guztiak hori pentsatzen duela ahaztuz; "emakume atezaintzako filosofia", epaitzen dute liburuki lodien eta jargoi ikaratzaila duen filosofian baizik sinesten ez dutenek; Madame de Staëlek seinalatu zuen, doitasun kritiko hobeaz "bere obren ezaugarri den argitasun hori, erraztasun horrek dena ikusteko eta ezer igerri beharrik ez izateko aukera ematen duela". Eskuarki, errazago da Voltaire destainatzea errefusatzeko baino: azken finean, bere obsesio ideologiko nagusiak gaur ia leku komunak dira eta ia beti gure askatasunei eta modernitatearen gurari sozial hoberenei eusten dien bizkarrezurraren parte eratzen dute. Baina bere figurak beti bezain sumingarri dirau, nahiz eta zio aldakorrengatik izan. Carlos Pujolek, Voltaireri buruzko bere liburu bikainean, ezin hobeki aditzera eman du: "Azkenaren buruan, autore gogaikarria da eta berari aurrez aurre erasotzea ez da erraza, ia energumeno mailan jartzeraino beheratu gabe, baina esandakoa blokean onartzea ere ez da erraza gertatzen, ezta bere lerro nagusietan ere, zeren beti kontraesaten baitio uko egin nahi ez diogun zerbaiti. Agnostiko eta ateontzat herabetiegia da, atxikiegi dago lausoak lirudiketen baina berarentzat trinkoak ziren printzipio batzuei; sinestedunentzat, baita bil dezaketen Kontzilio osteko borondate on guztiaz hornituko direnentzat ere, bistan dago urrunegi doala bere arrazionalismoan; marxistentzat burgesegia da, kontserbadoreegia, baina burgesentzat garraztasun kritikoa du, XVIII. mendeko burgesia militanteak oso berea zuena, gaur toleraezintzat jo litekeena; eszeptikoentzat sineskorregia da eta ziurtasunak dituztenentzat, zeinahi eratakoak direla ere, korrosiboegia da. Mundu guztiak zeharka begiratzen dio eta ahalegin guztiak egiten ditu inork erreklamatzeko ez dueneko iraganeko guneren bat abandonatzeko".

Mundu guztiak? Agian gaur Pujolek duela hogeitau urte lerro horiek idatzi zituenean baino gutxiago. Ziurtasun milenarista edo absolutu askoren porrotaren aje eskarmentuduna bizi dugu; iraganeko izugarrikeriak era sofistikatuagoan berriz agertzearen, kontrako zaion azterketa arrazional librearen ernamuin bat ere toleratzen ez duen intrantsigentzia baten asfixiaren beldur gara.

Batez ere, ahazmenduan eroriko ote diren beldur gara, nagikeriaz edo erlatibismo "multikulturalistaz", modernitate baten funtsezkoak eta zibilizatorioki beti promesatsuak diren balioak, zeinen presazko kantzelazioak ez duen etorkizunerako pasabide irekitzen barbarierakoa baizik. Eta guztioi dagokigunez gero eta desinteres handiagoaren beldur ere bagara, funtsezko gaiak, gaurkoaz biharkoari begira irispide luzeko eztabaidak direla eta. Inork ez du aspertu nahi, oso ongi: baina Voltairek dibertitzen irakasten du gehien axola denetik distraitu gabe. Bere pentsamendua irmoa eta pragmatikoa izan zen aldi berean; grinatsua eta arrazionala; ez zuen ezein ideia-bloke bere orokorrean onartu, baizik eta banan-banan aletu egin zituen, bateragarritasun zailekin armazoi bat eraikiz, zeinean ez zen ezein korrante erabat bazterturik gelditu, ezta azterketa gabe bedekaturik ere. Eklektizismo aurrerakor horrek antz handia du gaur egun asko egiten

saiatzen diren horrekin, "postmoderno", "neoilustratu" edo nolanahi deitzen direla ere. Humanismo zaharraren oinordeko, noski, zeintzuei alderdi guztietatik demanda egiten dieten absolutistek berari ere beti demanda egin ziotenez. Zentzugabea eta traiziozkoa litzateke gaur egun gordinki itzultzea joaira historikoari etengabe itsatsirik irauten ahalegindu zen pentsamendu batera. Baina adiurre hori, bokazio hori, izaera intelektual hori... Bai, noski: inoiz baino gehiago, jarraitzen dugu Voltaireren premiarekin.

FERNANDO SAVATER

LEHEN GUTUNA

Kuakeroez

Uste izan dut herri hain apartaren doktrinak eta historiak gizaki zentzudun baten jakinmina mereziko luketela. Argitasun bila Ingalaterrako kuakero ospetsuenetariko batengana jo nuen, zeinak, merkataritzan hogeita hamar urte eman ondoren, bere ondasun eta nahikundeei mugak jartzen jakin baitzuen, Londres inguruko landetxe batera erretiratuz¹. Bila joan nintzaion bere bakarlekura; etxe txiki bat zen, baina ongi eraikia, txit garbi eta apaindurarik gabea. Kuakero hori inoiz gaixotu gabeko agure sendoa zen, ez baitzuen grinarik ez neurrigabekeriarik ezagutu: nire bizitzan inoiz ez dut berea bezain itxura nobleagorik eta erakargarigorik ikusi. Bere erlijioakide guztiak bezala zegoen jantzia, albotan tolesturarik gabeko eta sakeletan zein mahuketan botoirrik gabeko soineko batez, eta ertz zapaleko kapela hegodun handia zeraman, gure elizgizonek bezala; kapela buruan zuela errezibitu ninduen, eta bere gorputza batere makurtu gabe aurreratu zitzaidan; alabaina, zango bat bestearen gainean botatzeko eta burua estaltzeko eginik dagoena eskuan eramateko ohituran baino gizabide gehiago zegoen bere aurpegiko tankera ireki eta gizakorrean. "Adiskide, esan zidan, kanpotarra haizela ikusten diat; zerbaitetan baliagarri izan ahal banatzaik, hitz egitea baino ez daukak. Jauna, esan nion, gure ohituraren arabera gorputza makurtuz eta zango bat harenganantz lerratuz, uste dut nire jakingura bidezkoak ez dizula higuinik emango, eta zeure erlijioan eskolatzeko ohorea egin nahiko didazula. -Hire herrikideek, erantzun zidan, kunplimendu eta gurkera gehiegi egiten dizkitek; baina hik adinbat jakinminik duenik ez diat egundaino ikusi. Sar hadi, eta afal dezagun elkarrekin aurrena." Artean kunplimendu txar batzuk egin nituen, ez baikara bat-batean norbere ohiturez desegiten; eta Jainkoari otoitz batekin hasi eta bukatu zen jatordu osasuntsu eta urri baten ostean, nire gizonari itaunketan hasi nintzaion. Katoliko zintzoek behin baino gehiagotan hugonoteei egin izan dieten galderarekin ekin nion: "Nire Jaun maitea, esan nion, bataiatu al zaude? -Ez, erantzun zidan kuakeroak, eta nire anaideak ere ez zeudek. -Nolatan Jainkoaz, hasi nintzaion berriro, ez al zara bada kristau? -Ene seme, ihardetsi zuen doinu leunez, ez ezak zinik egin; kristau gaituk eta kristau on izaten ahalegintzen gaituk, baina ez zaiguk iruditzen ur hotza gatz pixka batekin buru gainera botatzean datzanik kristautasuna. -Eh, arraioa, berrekin nion fedegabekeria honetaz hasarreturik, Jesukristo Joanek bataiatu izan zuela ahaztu ote zaizu bada? -Adiskide, juramenturik ez, berriro zioat, esan zuen kuakero onberak. Kristok Joanen bataioa hartu zian, baina Berak ez zian inoiz inor bataiatu; gu ez gaituk Joanen dizipuluak, Kristorenak baizik. -Ai!, esan nuen, bai azkar erreko zintuzketela inkisiziodun herri batean, gizagaixoa... Eh, Jainkoarren, hobe bai bataiatu eta kristautuko bazintu! -Hori besterik behar ez balitz hire ahuleziari amore emateko, gogotik egingo nikek, erantsi zuen seriooki; guk ez diagu inor gaitzesten bataioaren zeremonia erabiltzeagatik, baina uste diagu erlijio guztiz santu eta guztiz izpirituala profesatzen dutenek begiratu egin behar dutela, ahal bezainbat, judu zeremonietatik. -Hau bai dela ederra!, oihukatu nuen, judu zeremonietatik! -Bai, ene seme, segitu zuen berak, eta hain judutarrak ezen zenbait juduk gaur bertan ere Joanen bataioa darabiltela batzuetan. Kontsulta ezak Antzinatea; irakatsiko dik ezen Joanek berriztatu besterik ez zuela egin bera baino askozaz lehenago hebertarren artean ohikoa zen usadio hori, ismaeldarren artean Mekarako erromesaldia zen bezalaxe. Joanen bataioa hartu nahi izan zian Jesusek, zirkuntzizioari men egin zion era berberean; alabaina, Kristoren bataioak, bataio izpiritual horrek, gizonak salbatzen dituen arimaren garbiketa horrek suntsituak izan behar zien biak, nola zirkuntzisia hala urarekiko ikuzketa. Baita ere Joan aitzindariak esaten zian: "Nik urez bataiatzen zaituztet, baina nire ondoren ni baino ahaltsuago bat etorriko da, zeinaren sandaliak eramateko ere ez bainaiz duin; hark Izpiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte²; Paulo,

jentilen apostolu handiak ere, zera idazten ziek korintioarrei: Kristok ez nau bataiatzera bidali, berri ona zabaltzera baizik³; halaber Paulo horrek berak bi pertsona baino ez zizkian urez bataiatu, eta gogoz kontra gainera; Timoteo bere dizipulua zirkuntzidatu zian; gainerako apostoluek nahi zuten guztiak zirkuntzidatzen zizkieten. Zirkuntzidaturik al hago?, gaineratu zuen. Ez nuela ohore hori erantzun nion. "Ongi bada, adiskide, esan zuen, zirkuntzidaturik egon gabe haiz hi kristau eta ni, bataiaturik egon gabe".

Hara zein itxuragabeki abusatzen zuen nire gizon santuak bere sektaren aldekoak ziruditen Eskritura Santuko hiruzpalau pasartez; baina munduko federik onenarekin ahazten zituen hura ezeztatzen zuten beste ehun pasarte. Erantzutetik ongi begiratu nintzen; gogobero batekin ez dago ezer irabazterik⁴: ez da ahalegindu behar gizon bati bere amorantearen akatsak esaten; ez kereilari bati bere kausaren ahulezia, ezta arrazoirik ere argiztatu bati; honela, bada, beste galderatara pasatu nintzen. - Komunioari dagokionez, esan nion, erabiltzen al duzue? -Ez diagu batere erabiltzen, esan zuen. -Zer? Ez daukazuela komuniorik? -Ez, bihotzetakoa izan ezik. "Orduan Eskriturak aipatu zizkidan berriro. Sermoi oso polita bota zidan komunioaren kontra eta tankera inspiratu batez hitz egin zidan sakramentuak oro giza askakuntzak zirela, eta sakramentu hitza ez dela behin batean ere Ebanjelioan ageri frogatzeko. "Barka, esan zuen, nire ezjakintasuna, ez diat nire erlijioari buruzko frogen ehuneko zatia ere eman; baina Robert Barclayk gure fedeaz egiten duen azalpenean aurki ditzakek: gizonen eskutik inoiz irten den libururik onentsuenetakoa duk. Gure lagunak bat zetoze oso arriskutsua dela iriztean, horrek frogatzen dik zein arrazoitsua den". Liburu hori irakurriko nuela agindu nion eta jadaneko konbertitu nintzela sinetsi zuen kuakeroak.

Ondoren hitz gutxitan adierazi zidan zenbait berezitasun sekta hau besteekiko mesprezagarri egiten dutenak. "Aitor ezak, esan zuen, barreari eustea zail izan zaiala hire kortesia guztiei kapela buruan eta hika erantzun diadanean; hala ere, ikasiegia dirudik Kristoren denboran singularraren ordezkiala erabiliz barreagarri geratzen zen naziorik ez zela jakiteko. Zesar Augustori esan ohi zioten: maite haut, erregutzen diat, eskertzen diat; jasan ere ez zian egiten Jauna, Dominus, dei ziezaioten. Hura baino askozaz beranduago hasi hituen gizakiak hi-ren ordezkiala zu erabiltzen, bikunak bailiran, eta Handitasun, Eminentzia, Santutasun titulu ezegokiak usurpatzen, zizare batzuek beste zizareei ematen dizkietenak, euren zerbitzari txit apal eta txit obediente direla errespetu sakon eta faltsutasun zitalez segurtatuz. Lausenguzko eta gezurrezko tratu desohoragarri horretatik geure buruak babesteko, erregeei eta zapatariei orobat hitanoz hitz egiten zieagu, ez diagu inor agurtzen, gizonenganako karitatea eta legeekiko errespetua baizik ez diagu.

Beste gizonetatik ezberdin samarra den jantzia zeramagu baita ere, haien antzik ez dugula ukan behar etengabe oharraz dakigun. Besteek beren duintasunaren markak zeramatzatek, eta guk kristau umiltasunarenak; jokia, ikuskizunak, plazer bilkurak ihesten dizkiagu; guztiz urrikarri baikinake Jainkoaren bizileku izan behar duten bihotzak huskeria horiekin beteko bagenu; guk ez diagu inoiz zinik egiten, ezta justiziaren aurrean ere; uste diagu Txit Gorenaren izena ez dela zikindu behar gizakien liskar gaiztoetan. Beste arazoengatik magistratuaren aitzinean agertu behar dugunean (guk ez baitiagu inoiz auzirik), bai edo ez batekin baieztatu diagu egia, eta epaileek gure hitz hutsari sinesten ziotek, hainbat kristauk Ebanjelioaren gainean zin faltsua egiten dutelarik. Inoiz ez goaztik gudura, ez heriotzari beldurrik diogulako, aitzitik, izakien Izakiari lotzen gaituen unea benedikatzen diagu, izan ere ez baikaituk ez otso, ez katamotz, ez zezentxakur, gizaki baizik, kristau baizik. Gure Jainkoak, gure etsaiak maitatzeko eta marmarrik gabe sufritzeko agindu digunak, ez dik nahi noski itsasoa zeharka dezagun gure senideei lepoa moztera joateko, zeren eta gorritz jantzitako

hiltzaileek bi oin luzeko kapela batekin, hiritarrak erroldatzen baitizkitek astolarru ongi hedatuaren gainean bi makilatxorekin zarata eginez; eta guduketak irabazi ondoren Londres guztiak argitasunez distirutzen duenean, zerua suzirik sutan denean, aireak eskerremate-ekintzen, ezkilen, organoen, kanoien hotsez durundi egiten duenean, gu isiltasunean deitoratzen gaituk jendearen bozkarioa eragiten duten heriotza horiengatik⁵.

BIGARREN GUTUNA

Kuakeroez

Halakoa izan zen gutxi gora-behera gizon berezi honekin ukan nuen solasaldia; baina are gehiago harritu nintzen hurrengo igandean, kuakeroen elizara eraman ninduenean. Badute zenbait kapera Londresen; ni joan nintzeneko hura Monumentua⁶ deritzan pilare ospetsutik hurbil dago. Bilduta zeuden neure gidariarekin sartu nintzenean. Laurehun gizon inguru, eta hirurehun emakume zeuden elizan: emakumezkoek beren haizemaileaz ezkututzen zuten aurpegia; beren txapel zabalez estalita zeuden gizonaizkoak; denak eserita zeuden, denak isiltasun sakonean. Inork niregana begirik altxatu gabe igaro nintzen eurenartetik. Ordu laurden bat iraun zuen isilaldi honek. Azkenean, zutitu egin zen haietako bat, txapela erantzi zuen, eta zenbait keinuren eta zenbait auhenen ondoren, erdia ahoarekin eta erdia sudurrarekin, bere ustetan Ebanjeliotik ateratako galimatias bat esan zuen, zeinean ez berak ez inork ulertzen baitzuen ezer. Kontortsionista⁷ horrek bere bakarrizketa ederra bukatu zuenean, eta biltzarra arras oneratu eta arras zozo banandu zenean, nire gizonari galdetu nion ea zergatik jasaten zituzten haien arteko jakintsuenek halako txorakeriak. "Pairatzera behartuta gaudek, esan zidan, ez baitzezakeagu jakin hitz egitera jaikitzen den gizon bat izpirituak ala eromenak eraginda izango den; ezbaian, pazientziaz entzuten diagu dena, are emakumeei mintzatzen uzten zieagu. Maiz, gure debotuetako bizpahiru emakume aldi berean goiargiturik aurkitu ohi dituk, eta orduan iskanbila ederra sortzen duk Jaunaren etxean. -Zuek ez daukazue apaizik, orduan?, esan nion. -Ez, ene adiskide, esan zidan kuakeroak, eta ongi aurkitzen gaituk horrela. Jainkoari nahi ez dakiola igandetan norbaiti, gainerako fededunak baztertuz, Izpiritu Santua harraraztera ausart gaitezen. Zeruari eskerrak, apaizik ez dugun bakarrak gaituk lurrean. Bereizgarri hain zorionekoa kendu nahi ote diguk? Zergatik utziko zieagu geure haurra soldatapeko unideei, hari emateko lain esne badugunean? Soldatapeko horiek berehala nagusituko hituzkek etxean eta ama eta haurra zapalduko lituzketek. Jainkoak esan dik, gratis hartu duzue, gratis emazue. Hitz honen ondoren Ebanjelioarekin merkataritzan aritu, Izpiritu Santua saldu, eta kristau bilkura bat saltoki bihurtuko al diagu? Guk ez zieagu dirurik ematen beltzez jantzitako gizakiei geure behartsuei laguntzearren, geure hilak ehortzearren, fededunei predikatzearen; lanbide santu horiek maiteegiak zaizkiguk besterengan deskargatzeko.

-Baina nolatan ezagutu dezakezue, ekin nion nik, Jainkoaren Izpiritua dela zeuen predikuetan eragiten dizuena? -Jainkoari, zioen, argitzeko erregutzen dion edonor, eta sentitzen dituen egia ebanjelikoak aldarrikatzen dituen, Jainkoak inspiratzen duela seguru egon litekek". Orduan Eskriturako aipuez txundiarazi ninduen, berauek, haren arabera, berehalako errebelaziorik gabe kristautasunik ez dagoela frogatzen baitute, eta hitz gogoangarri hauek erantsi zituen: "Heure gorputzadarretako bat mugitzen duanean, heure berezko indarrak higiarazten ote dik? Ez noski, gorputzadar horrek nahigabeko mugimenduak baitizkik sarritan. Hire gorputza sortu duena duk, bada, gorputz lurrezko hori mugitzen duena. Eta hire arimak jasotzen dituen ideiak, heuk moldatu al dituk? Are gutxiago, hik nahi ez baduk ere etorri egiten baitituk. Hire arimaren Kreatzailea duk, beraz, hire ideiak ematen dizkiana; baina, hire bihotzari askatasuna utzi dionez, hire bihotzak merezi dituen ideiak ematen zizkiok hire izpirituari, Jainkoagan bizi haiz, Jainkoagan aritu eta pentsatzen duk, gizonak oro argitzen dituen argi horri begiak irekitzea besterik ez daukak, hortaz; egia ikusiko duk orduan, eta ikustarazi egingo duk"⁸. -Eh! hona hemen Aita Malebranche berbera!, oihu egin nuen. -Ezagutzen diat hire Malebranche, esan zuen, kuakero samarra huen, baina ez nahikoa". Hauek dira kuakeroen doktrinari buruz ikasi ditudan gauzarik inportanteenak. Hurrengo gutunean izango duzu haien historia, euren doktrina baino bitxiagoa aurkituko duzuna.

HIRUGARREN GUTUNA

Kuakeroez

Jadanik ikusia duzu Jesukristogandik datozela kuakeroak, hura izan baitzen, beraien ustetan, lehen kuakeroa. Erlijioa, diote, usteldu egin zen haren heriotzatik berehalaxe, eta 1600 urte inguru iraun zuen usteldura honetan; baten, alabaina, beti zenbait kuakero munduan ezkutaturik, gainerako lekutan itzalitako su sakratua gordetzen saiatu zirenak, harik eta azkenean argi hau 1642. urtean Ingalaterran barna hedatu zen arte.

Hiruzpalau sektek Jainkoaren izenean abiarazitako gerra zibilez Britainia Handia urratzen zuten garaian, Leicester Konderriko Georges Fox⁹, zeta langile baten semea, benetako apostolu gisa aritu zen predikatzen, berak uste zuenez, hots, ez baitzekien irakurtzen ez idazten; hogeita bost urteko gaztea zen, ohituratan aitzakigabea eta santuki eroa. Larruz jantzita zegoen oinetatik bururaino, herriz herri zihoan gerraren eta apaizen kontra hotseginez. Gerra gizakien kontra baizik predikatu ez balu, ez zukeen zertan beldurturik, baina apaizgoari erasan zion: laster izan zen kartzeleratua. Derbyra eraman zuten bake epailearen aurrera. Fox bere larruzko boneta buruan zuela aurkeztu zen epailearengana. Sarjentu batek masaileko handi bat eman zion, esanez: "Lotsagabea, ez al dakik burutsik agertu behar dela epaile Jaunaren aitzinean?" Foxek beste masaila jarri eta beste masaileko bat eman ziezaiola eskatu zion sarjentuari. Derbyko epaileak zin eginarazi nahi izan zion galdekatu aurretik. "Ene adiskide, jakin ezak, esan zion epaileari, Jainkoaren izena ez dudala inoiz alferrik erabiltzen". Epaileak, gizon honek hika hitz egiten ziola ikusirik, Derbyko eroetxera bidali zuen azotatua izan zedin. Georges Fox Jainkoa goretsiz joan zen eroen ospitalera, non ez baitzioten utzi jujearen epaia hertsiki betetzeari. Azotearen zigorra ezarri ziotenak guztiz harritu ziren, bere arimaren onerako bergakada batzuk gehiago emateko eskatu zienean. Jaun horiek ez zuten beste erregu beharrik izan. Foxek bere dosi bikoitza ukan zuen, eta honengatik eskerrak eman zizkien bihotz-bihotzetik. Predikatzen hasi zitzaien; lehenbizi barre egin zioten, gero entzun egin zioten; eta, gartsutasuna gaitz kutsakorra denez, bat baino gehiago limurtu zuen, eta zigorkatu zutenak bere lehen dizipulu bilakatu ziren.

Bere presondegitik libratuta, landaz landa ibili zen dozena bat proselitorekin, beti ere apaizen kontra predikatuz eta noizean behin astinaldiak hartuz. Egun batean, urkamendian zegoelarik, jende guztiari halako indarrez mintzatu zitzaion berrogeita hamarren bat entzule konbertitu zituela, eta gainerakoak hain bere alde jarri zituen, non, nahaste-borrastean, zegoen zulotik atera zutela; apaiz anglikarraren bila joan ziren, haren izen onak kondenarazi baitzuen Fox supizio hartara, eta beronen orde z hil zuten urkabea.

Arma lanbidea utzi eta zin egiteari uko egin zioten Cromwellen soldadu batzuk konbertitzera ausartu zen. Cromwellek ez zuen nahi borrokarik egiten ez zuen sektarik, Sixto Quintok dove non si chiavava¹⁰ sekta bati ezer onik auguratzen ez zion era berean. Bere botereaz baliatu zen iritsiberri hauek jazartzeko, berauekin presondegiak betetzen zirelarik; baina jazarpenek ez dute ia inoiz balio proselitoak egiteko baizik: euren sinesmenean finkatuta eta konbertitu zituzten beren presozainez lagunduta irteten ziren presondegietatik. Baina hona hemen sekta zabaltzen gehien lagundu zuena. Foxek goiargitutzat zeukan bere burua. Uste izan zuen, beraz, gainerako gizakiek ez bezala hitz egin behar zuela, dardarikatzen, imintzioak eta kontortsioak egiten, bere arnasari eusten eta bortizki kanporatzen hasi zen; Delfoseko beretersak ez zukeen hobeto egingo. Denbora gutxiren epean airea barneratzeko ohitura handia hartu zuen, eta handik laster ez zuen jadanik bere eskueran beste era batera hitz egitea. Hau izan zen bere dizipuluei helarazi zien lehen dohaina. Hauek bolondreski egin zituzten euren maisuaren aieru guztiak, beren indar guztiez dardara egiten zuten arnasa hartzeko unean. Hortik hartu zuten dardarati esan nahi duen kuakero deitura¹¹. Jende xehea berdin-berdina eginez

jostatzen zen. Dardara egiten zuten, sudurraz mintzatzen ziren, konbultsioak izaten zituzten, eta Izpiritu Santua zutela uste zuten. Mirakulu batzuen beharra zuten, eta egin ere egin zituzten.

Fox patriarkak publikoki esan zion bake epaile bati, batzar handi baten aitzinean: "Adiskide, kontu egiok heure buruari, laster zigortuko hau Jainkoak santuak pertsegitzeagatik". Epaile hau mozkor bat zen, egunero garagardo txar eta pattar gehiegi edaten zuena; apoplexiaz hil zen handik bi egunera, hain zuzen ere kuakero batzuk presondegira igortzeko agindu bat sinatu berri zuenean. Bat-bateko heriotza hau ez zitzaion epailearen neurrigabekeriari egotzi, santuaren iragarpenen ondorioztat eduki zuen mundu guztiak.

Heriotza honek kuakero gehiago egin zuen mila sermoik eta beste hainbat konbultsiok egin zezaketena baino. Cromwellek, haien multzoa egun oroz ugaltzen zela ikusirik, bere alderdira erakarri nahi izan zituen: dirua eskainarazi zien, baina ustelgaitzak izan ziren, eta gineekin garaitu ahal izan ez zuen erlijio bakarra zela esan zuen behin.

Karlos II.aren denboran pertsegituak izan ziren batzuetan, ez euren erlijioagatik, ezpada apaizei beren hamarrenak ordaindu nahi ez izateagatik, magistratuei hitanoka egiteagatik eta legeak agindutako zinak egitea ez onartzeagatik.

Azkenik Roberto Barclay eskoziarrak erregeari aurkeztu zion, 1675an, bere Kuakeroen apologia, bere mailan izan zitekeen bezainbat liburu ona. Karlos II.arentzako Eskaintza Epistolak, losintxa arruntak ez, baizik egia ausartak eta kontseilu zuzenak dauzka.

"Dastatu duk, diotsa Karlosi Epistola honen amaieran, eztitasunik zein mingostasunik, oparotasunik zein zorigaitzik handienak, erreinatzen duan herrialdetik iraitzia izan haiz, hertsapenaren pisua sentitu duk, eta jakin behar duk zapaltzailea zeinen higuigarri den Jainkoaren nahiz gizakien aurrean; hainbat froga eta benedikapenen ondoren, hire bihotza gogortuko balitz eta heure ezbeharretan hitaz oroitu den Jainkoa ahantziko balu, hire krimena larriagoa litzatekek eta hire kondenamendua izugarriagoa. Heure gorteko lausengariak entzun beharrean, beraz, sekula lausengatuko ez hauen hire kontzientziaren ahotsa entzun ezak. Hire meneko eta adiskide leial nauk. Barclay".

Harrigarriago dena zera da, partikular ezezagun batek errege bati idatziriko gutun honek bere eragina izan zuela eta jazarraldia gerarazi zuela.

LAUGARREN GUTUNA

Kuakeroez

Denboratsu honetan agertu zen Gilen Penn¹², Ameriketan kuakeroen boterea ezarri zuena, eta European errespetagarri bilakaraziko zituena, baldin eta gizakiek itxura irigarrien pean bertutea errespetatu ahal izango balute: Penn zaldunaren, Ingalaterrako almiranteordea eta, Jakobo II.az gero, Yorkeko dukearen gogokoenaren seme bakarra zen.

Gilen Pennek, hamabost urte zituela, kuakero bat aurkitu zuen Oxforden, non bere ikasketak egiten baitzituen. Kuakero honek limurtu zuen, eta gazteak, bizia eta jitez mintzo ederrekoa izaki, eta bere fisonomian eta maneratan noblezia zuena, berehala bildu zituen bere lagunetariko batzuk. Beraren etxean batzartzen ziren Kuakero Gazteen Elkarte bat eraiki zuen ezarian; hala non bilakatu zen sektako buru hamasei urterekin.

Ikastetxetik irtetean bere aita almiranteordearen etxera itzulita, beronen aurrean belauniko jarri, eta beraren bedeinkapena eskatu orde, ingelesen ohituraren arabera, berarengana jo zuen txapela buruan zuela eta esan zion: "Poz handia hartzen diat, adiskide, hi osasuntsu ikusita". Bere semea erotu egin zela uste izan zuen almiranteordeak; laster konturatu zen kuakeroa zela. Giza zuhurtziak erabil ditzakeen bitarteko guztiez baliatu zen beste edozeinen gisa bizitzea erabaki zezan; bera ere kuakero bihur zedila aholkatuz baizik ez zion erantzun gazteak bere aitari.

Azkenik, bat etorri zen aita beste gauzarik ez zuela eskatuko, baizik eta joan zedila txapela besapean Erregea eta Yorkeko dukea ikustera eta ez ziezaiela hitanoka egin. Bere kontzientziak ez ziola uzten erantzun zuen Gilermok, eta aitak, sumindurik eta etsipenaz, bere etxetik bota zuen. Penn gazteak Jainkoa eskertu zuen beronengatik dagoeneko sufritzen zuenagatik, hirira joan zen predikatzaera, bertan proselito asko egin zuelarik.

Ministroen predikuek egunoro argitzenago zuten, eta Penn gazteari, ederra eta gisakoa zenez, gorte eta hiriko emakumeak debotki zetozkion aditzera. George Fox patriarka Ingalaterra barretetik etorri zen Londresera hura ikustera, haren fama zela eta; herrialde arrotzetara misiotara joatea erabaki zuten biek. Holandarantz untziratu ziren, Londresko mahastiei kontu egiteko adina langile utzi ondoren. Euren lanek zorionezko arrakasta izan zuten Amsterdamen; baina ohorerik gehiena egin ziena, eta beren umiltasuna arriskurik larrienean jarri zuena, Elisabeth Printzesa Palatinoak egin zien errezibimendua izan zen; George lehena, Ingalaterrako erregearen izeba, bere izpiritua eta jakituriagatik emakume ospetsua zen, zeinari Descartsek bere filosofi eleberria eskaini zion¹³.

Hagan erretiratuta zegoen bera une hartan, eta bertan ikusi zituen bere adiskideak, honela deitzen baitzieten orduan kuakeroei Holandan; zenbait mintzaldi izan zuen haiekin; bere etxean maiz predikatu zuen, eta kuakero perfektu bilakarazi ez bazuten ere, zeruetako erreinutik urrun ez zegoela aitortu zuten gutxienez.

Adiskideek Alemanian ere erein zuten, baina gutxi bildu zuten. Ez zuten gogoko izan hitanoka egiteko ohitura, Handitasun eta Eszelentzia hitzak beti ahoan eduki behar diren herri batean. Penn berehala itzuli zen Ingalaterrara, bere aitaren gaixotasunaren berri jakin zuenean, beronen azken arnasa jaso ahal izan zuen. Almiranteordea berarekin adiskidetu zen eta samurtasunez besarkatu zuen nahiz eta erlijio desberdinekoa izan; Gilene alferrik aholkatu zion ez zitzala elizakoak har eta kuakero gisa hil zedila, eta gure gizon zaharrak alferrik gomendatu zion bere mahuketan botoiak eta txapelean antzarlumak eraman zitzala.

Gilene ondasun handiak heredatu zituen, berauen artean koroaren zorrak aurkitzen ziren, almiranteordeak itsas espediziotan egindako maileguengatik. Aldi hartan ezer ez zen segurantza eskasagokorik erregeak zor zuen dirua baino; Penn behartua izan zen

behin baino gehiagotan Karlos II.ari eta beronen ministroei hitanoz hitz egitera, bere pagamendua erdiesteko. Gobernuak, 1680an, diruaren ordeztu, Ameriketako probintzia baten jabegoa eta subiranotasuna eman zizkion, Marylandeko hegoaldean: hona hemen subirano bihurtutako kuakero bat. Bere estatu berrietarantz abiatu zen, jarraitu zitzaizkion kuakeroz kargaturiko bi untzirekin. Ordutik Pennsylvania deritza herriari, Penn izenarengatik; han fundatu zuen Philadelphiako hiria, gaur egun txit joria dena. Bere auzoko amerikarrekin elkarte bat eratzeari ekin zion. Herri horien eta kristauen artean zin egin ez den eta hautsi izan ez den tratatu bakarra da. Subirano berria Pennsylvaniako legegilea ere izan zen, lege arras zuhurrak eman zituen, harez gero batere aldatu ez direnak. Lehenbizikoa, erlijioa dela eta inor ez gaizki tratatzea eta Jainko bat sinesten duten guztiei senide gisa begiratzea da.

Bere gobernuak ezarri bezain laster, Ameriketako hainbat merkataritza etorri zen kolonia honetan bizitzen jartzera. Bertako herritarrek, oihanetara ihes egin beharrean, ezarian ezarian ohitu egin ziren kuakero baketsuekin: Beste kristauak, Ameriketako konkistatzaile eta suntsitzaileak, higuintzen zituzten bezainbeste maite zituzten etorberri hauek. Denbora gutxiaren epean, basati direlako horietarik asko eta asko beren auzokoaren gozotasunaz liluraturik, samaldan zetozkion Gilen Penni bere menpekotzat har zitzala eskatzera. Ikuskari txit berria zen mundu guztiak hika hitz egiten zion subirano bat, zeinari txapela buruan mintzo baitzitzaizkion, apaizik gabeko gobernu bat, armarik gabeko herri bat, hiritar guztiz berdinak Magistraturarekiko, eta bekaizkeriarik gabeko auzoak.

Gilen Penn harro egon zitekeen hain aipatua den urrezko aroa lur gainera ekarri izanaz, seguraski Pennsylvanian baino izan ez dena. Bere herri berriko eginkizunengatik Ingalaterrara itzuli zen, Karlos II.aren heriotzaren ostean. Haren aita maite izan zuen Jakobo Erregeak atxikimendu berbera zion semeari, eta ez zuen sektari iluntzat hartu, ezpada gizon txit handitzat. Haren gustuekin bat zetorren honetan erregearen politika, kuakeroak losintxatu nahi zituen, ez-konformisten kontrako legeak indargabetuz, askatasun honen faboretan erlijio katolikoa sartu ahal izateko. Ingalaterrako sekta guztiek ikusi zuten tranpa, eta ez ziren bertan harrapatzen utzi, beti elkartuta daude euren etsai komunaren kontra. Penni, ordea, ez zitzaion iruditzen bere printzipioei uko egin behar zienik gorrotoa zien protestanteei laguntzearen, maite zuen errege baten kontra.

Kontzientziaren askatasuna ezarri zuen Ameriketara, ez zuen Europara ezeztatu egin nahi zuenaren itxura eman nahi; Jakobo II.ari leial izan zitzaion, bada, eskuarki jesuitatzat salatua izateraino: irain honek nabariro nahigabetu zuen; bere burua izkribu publikoaren bidez zuritu beharra izan zuen. Halere, Jakobo II.a zorigaitzokoak, ia Estuardo guztiak bezala, handitasunaren eta ahuleziaren nahasketa bat zena, eta haiek bezala, gehiegi eta gutxiegi egin zuena, bere erreinua galdu zuen gauzak nola gertatu ziren ezin esan daitekeelarik.

Ingeles sekta guztiek eskuratu zuten Gilermo III.aren gaitik eta bere Parlamentuaren gaitik Jakobo II.aren eskuetatik erdietsi nahi izan ez zuten askatasun hori berori. Orduan hasi ziren kuakeroak, legeen indarrez, gaurregun dituzten abantailak gozatzeko. Penn, azkenean bere sekta bere jaioterrian liskarrik gabe finkatua ikusi ondoren, Pennsylvaniara itzuli zen berriz. Bereek eta amerikarrek pozezko malkoekin errezibitu zuten bere seme-alabak ikustera itzuli ohi den aita baten modura. Haren lege guztiak erlijioski gordeak izan ziren bere ausentzian, beraren aurretik ezin legegileri jazo ez zitzaiona. Urte batzuk gelditu zen Philadelphian; azkenik bere nahiaren kontra Londresera abiatu zen pennsylvaniarren merkataritzaren aldeko abantaila berriak eskatzera joateko. Aurrerantzean Londresen bizi izan zen txit zahartua hil zen arte, herri baten eta erlijio baten buruzagitza ezagutua izanik. 1718 arte ez zen hil.

Bere ondorengoei kontserbatu zitzaizkien Pennsylvaniaren jabegoa eta gobernua, eta hauek Erregeari saldu zioten gobernua hamabi mila piezengatik. Erregearen aferek ez zioten mila baino ordaintzen utzi. Irakurle frantses batek agian pentsatuko du ministerioak promesetan pagatu zuela gainerakoa eta nolanahi ere gobernamenduaz jabetu zela: inola ere ez; Koroak seinalaturiko denboran dirutza guztia ordaintzerik izan ez zuenez, baliogabetzat jo zen kontratua, eta Pennen familiak bere eskubideak berreskuratu zituen.

Ezin nezake iragarri zein izango den kuakeroen erlijioaren zortea Ameriketara; baina Londresen egunero iraungitzen dela ikusten dut. Herri guztietan erlijio nagusiak, erasotzen ez dituenean, gainerako guztiak itzalarazten ditu luzarora. Kuakeroek ezin dute Parlamentuko kide izan, ezta ezein kargurik eduki ere, zin egin beharko bailitzateke, eta beraiek ez dute zinik egin nahi. Merkataritzatik dirua irabazi behar izatera mugaturik daude; beren seme-alabek, euren gurasoen industriari esker aberastuta, gozatu egin nahi dute, ohoreak, botoiak eta eskuturrekoak eduki; kuakero deituak izateaz ahalke dira, eta modan egoteko protestante egiten dira.

BOSGARREN GUTUNA

Erljio anglikanoaz¹⁴

Sekten herrialdea da hauxe. Ingeles bat, gizaki libre gisa, gogokoen duen bidetik doa zerura.

Hala ere, nahiz eta hemen nork bere erara Jainkoa zerbitzatu ahal izan, euren zinezko erlijioa, fortunaren jabe egiteko, Episkopalianoen sekta da, Eliza anglikanoa edo Eliza par excellence deiturikoa. Ezin da enplegurik izan ez Ingalaterran, ez Irlandan, fededun anglikanoen multzokoa izan gabe¹³; froga bikaina den arrazoi honek hainbat ez-konformista konbertitu ditu, non ez baitago gaurregun nazioaren hogeirenik ere eliza nagusiaren altzotik kanpo.

Apaizteria anglikarrak zeremonia katolikoetarik asko atxeki ditu, eta bereziki hamarrenak aditasun txit arretatsuz hartzearena. Badute nagusi izateko handinahi jaieratsua ere.

Gainera, beren leialen artean ahalik eta gehien sustatzen dute ez-konformisten aurkako zelu santua. Zelu hau aski bizia zen toryen gobernupean, Ana erreginaren azken urteetan; ez zen, ordea, heretikoaren kaperetako kristalak zenbait aldiz haustera baino urrunago iristen; izan ere, sekten amorrua gerra zibilekin batera bukatu baita Ingalaterran, eta ez ziren gelditzen, Ana erreginaren menpean, ekaitza baino askoz geroagoko itsaso oraino haserrearen hots entzungarriak baizik. Whigek eta toryek beren herria urratzen zutenean, behiala guelfoek eta gibelinoek bezala, beharrezko izan zen alderdietan erlijioa sar zedin. Toryak apezpikutzaren alde zeuden; whigek kendu egin nahi zuten, baina beheratzearekin askietsi dute nagusi izan direnean.

Oxfordeko Harley kondeak eta milord Bolingbrokek toryen osasunari topa egitera bultzatzen zutenean, Eliza anglikarrak bere pribilegio santuen zaintzailatzat begiratzen zien. Apaizteria apalaren biltzarrak, elizgizonez osaturiko Komunen Ganbara gisako zerbait denak, izen on samarra zuen orduan; bazeukan gutxienez biltzeko, eztabaidan arrazoitzeko, eta noizbehinka zenbait liburu fedegabeko, hots, bere aurka idatzitakoak erretzeko askatasuna. Ministerioak, egun whig denak, jaun horiei ez die soilik euren biltzarra edukitzea debekutzen; mugaturik daude, beraien parrokiako iluntasunean, gobernuaren alde, zeina asaldarazteak ez bailieke atsekaberik eragingo, Jainkoari otoitz egiteko lanbide tristera. Apezpikuei dagokienez, guztira hogeita sei direlarik, Ganbara Garaian dute beren eserlekua whigak gorabehera, oraindik iraun egiten baitu baroitzat hartzeko abusu zaharrak; alabaina Ganbaran ez daukate dukeek eta pareek Pariseko Parlamentuan duten boterea baino gehiago. Bada klausula bat Estatuari egiten zaion zinean, jaun hauen kristau pazientzia frogarazteko egina.

Bertan Elizakoa izatea hitz ematen da, legez ezarria dagoen bezala. Ez dago apezpikurik, deanik, artzapezik zuzenbide jainkotiarrez dela uste ez duenik; mortifikazio gai handia da eurentzat, beraz, laiko profanoek eginiko lege miseriatsu bati esker daukatela dena aitortu behar izatea. Duela gutxi liburu bat idatzi du erlijioso batek (Aita Courayer-ek) anglikar ordenazioen baliotasuna eta jarraipena frogatzeko¹⁵. Obra hau debekatua izan da Frantzian; baina uste al duzu Ingalaterrako ministerioari laketa izan zaionik? Inola ere ez. Whig madarikatu hauei bost axola zaie apezpikuen segida eten egin denentz euren artean, edota Parker apezpikua kabaret batean (esaten dutenez) edo eliza batean sagaratua izan den ala ez; nahiago dute halaber apezpikuek beren agintea apostoluengandik ez baizik Parlamentuarengandik ukan dezaten. Lord B...-k¹⁶ dio zuzenbide jainkotiarren ideia horrek ez lukeela balioko bizkarreko eta erroketedun tiranoak egiteko baizik, legeak aldiz hiritarrak egiten dituela.

Usadioei dagokienez, apaizteria anglikarra Frantziakoa baino arautuagoa da, hona zergatik: Elizgizon guztiak Oxfordeko nahiz Cambridgeko Unibertsitatean, hiriburuko

ustelduratik urrun, eskolatuak dira; ez dira oso berandu arte Elizako duintasunetara deituak, gizonak zekenkeria beste grinarik ez duten sasoian, euren anbizioak elikagairik ez duenean. Elizarekiko eta orobat Armadarekiko zerbitzu luzeen ordaina dira hemen enpleguak; ez da ikusten apezpiku edo koronel gazterik ikastegitik irtetea. Bestalde ia apaiz gehienak ezkonduak dira: unibertsitatean erantsitako trakeskeriak eta bertan emakumeekin duten tratu urriak, apezpiku batek eskuarki bereaz kontentatu behar izatera eragiten dute. Apaizak kabaretera joaten dira noizean behin, usadioak baimentzen baitie, eta mozkortzen badira seriozki eta eskandalurik gabe izan ohi da. Izaki definigaitz hau, ez elizgizon ez sekular dena, hitz batean, Abbé bat deitu ohi dena, mota ezezaguna da Ingalaterran; hemen elizgizonak oso herabeak dira eta ia denak sasi-jakintsuak. Jakiten dutenean Frantzian badirela gazteak, euren zirtzilkeriarengatik ezagutuak, eta emakumeen azpijokoengatik prelaturara goratuak, amodioa agerian egiten dutenak, abesti samurrak eginez pozten direnak, egunero afari fin eta luzeak ematen dituztenak eta handik Izpiritu Santuaren argiak otoiztera doazenak, eta ausarki apostoluen ondorengo deitzen diotenak beren buruari, protestante izateaz eskerrak ematen dizkiote Jainkoari. Bilau heretikoak dira, ordea, deabru guztiekin erre beharrekoak, Jaun François Rabelaisek dioen bezala¹⁷; horrexegatik ez naiz euren aferetan sartzen.

SEIGARREN GUTUNA

Presbiterianoez¹⁸

Erlijio anglikanoa Ingalaterran eta Irlandan baino ez da zabaldu. Presbiterianismoa da erlijio nagusia Eskozian. Presbiterianismo hori kalbinismo hutsa besterik ez da, Frantzian ezarria izan ondoren Geneban dirauena. Sekta honetako apaizek beren Elizetatik soldata guztiz eskasak baino hartzen ez dituztenez, eta, beraz, apezpikuen luxu berberaz bizi ez daitezkeenez, iritsi ezin dituzten ohoreen kontra deiadar egiteko joera naturala hartu dute. Pentsa ezazu Platonen harrotasuna ostikatzen zuen Diogenes harroarengan: Eskoziako presbiteriarrak arrazonatzaile urguilutsu eta eskale horren eite beretsukoak dira. Diogenesek Alexandroekin erabili zuen baino begirune gutxiagorekin tratatu zuten Karlos II.a erregea. Ezen bere alde armak hartu zituztenean Cromwellen aurka, engainatu egin baitzituen, errege gizagaiso horri egunero lau sermoi noziarazten zizkioten, jostatzea galarazi zioten, penitentziak ipintzen zizkioten; Karlos berehala aspertu zen pedante horien errege izateaz eta eskolume batek ikastetxetik ihes egiten duen modura alde egin zuen haien eskuetatik.

Goizez teologi eskoletan deiadarka, eta arratsaldez damekin kantuan diharduen batxiler (frantses) gazte eta argi baten aldean, Katon bat da teologo anglikanoa; Katon honek, alabaina, galai bat dirudi Eskoziako presbiteriano baten aldean. Azken honek era serio bat, haserre itxura bat hartzen du, txapel zabal bat darama, kapa luze bat soineko luze baten gainean; sudurraz predikatzen du eta Babiloniako emagaldutako izena damaie Eliza guztiei, zeinetan elizgizon batzuk berrogeita hamar mila libera errentan hartzeko adina zorioneko diren, eta zeinetan herria hori jasateko, eta haiei Monsinore, Zure Handitasun, Zure Eminentzia deitzeko adina ona den.

Jaun hauek, Ingalaterran ere zenbait eliza badutenak, itxura serio eta latzak modan jarri dituzte herri horretan. Beraiei zor zaie igandearen santutzea hiru erreinuetan; egun horretan debekaturik dago lan egitea eta olgetan aritzea, Eliza katolikoen gogortasunaren bi halako dena; ez operarik, ez komediarik, ez kontzerturik dago igandetan Londresen; kartak ere hain espreski debekaturik daude, non kalitateko pertsonak eta jende prestua deritzanak¹⁹ baino ez baitute jokutzen egun horretan. Gainerako herritarrak sermoira, kabaretera eta bizitza alaiko neskatzengana doaz.

Nahiz eta sekta episkopala eta presbiterianoa nagusi izan Britainia Handian, gainerako guztiak ongi etorriak dira eta elkarrekin nahiko ondo bizi dira, euren predikatzailek gehienak elkar gorrotatzen dutelarik jansenista batek jesuita bat gaitzesten duen bezainbateko bihozberatasunaz ia.

Sar zaitez Londresko burtsan, anitz gorte baino leku errespetagarriago horretan, bertan nazio guztietako diputatuak bilduta ikusiko dituzu gizakien onurarako; bertan juduak, mahomatarrak eta kristauak erlijio berekoak bailiran tratatzen dute elkar, eta bankuporrot egiten dutenak baizik ez dituzte fedegabe deituraz izendatzen; bertan, anabaptistagan fidatzen da presbiteriarra, eta kuakeroaren promesa hartzen du anglikarrak. Batzar baketsu eta aske horietatik irten ondoren, batzuk sinagogara doaz, besteak edatera; honako hau upela handi batean Aitaren, Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean bataiaraztera doa; hango hark bere semearen zilmuturra moztarazten du eta ulertzen ez dituen hebraierazko hitzak xuxurlarazten ditu haurren gainean; beste horiek euren elizara doaz Jainkoaren inspirazioa itxarotera beren txapela buruan dutela, eta pozik dira denak.

Ingalaterran erlijio bat besterik ez balego, despotismoa beldur izatekoa litzateke; bi baleude, elkarri lepoa moztuko liokete; baina hogeita hamar daudenez, bakean eta zoriontsu bizi dira.

ZAZPIGARREN GUTUNA

Soniziarrez, edo arriotarrez,
edo antitrinitarioez

Bada hemen sekta txiki bat elizgizonez eta zenbait sekular txit jakintsuz osaturikoa, ez arriotarren eta ez sozinien izenik hartzen dutenak, baina Hirutasunari buruz San Atanasioren iritziarekin inola ere bat ez datozenak, eta Aita Semea baino handiago dela garbiki diotsutenak²⁰.

Gogoratzen al duzu harako apezpiku ortodoxo hura, zeinak, enperadore bat konsubstantiazioaz konbentziarazteko, enperadorearen semea kokospetik hartu eta sudurretik tiratzeari ekin baitzion bere maiestate santuaren aurrean? Enperadorea apezpikuaren kontra haserretzera zihoan, gure gizonak hitz eder eta konbentzigarri hauek esan zizkionean: "Jauna, zeure maiestatea hasarretzen baldin bada zerorren semea errespetatzen ez dutelako, nolatan uste duzu tratatuko dituela Aita Jainkoak, Jesukristori dagozkion tituluak ukatzen dizkietenak?". Aipatzen dizudan jendeak dio apezpiku santua arras oker zebilela, beraren argudioa ez zela batere konbentzigarria, eta enperadoreak zera erantzun behar ziola: "Jakin ezazu niri errespeturik ez izateko bi era daudela, lehena, nire semeari ohorerik aski ez ematea, eta bigarrena, niri adina ematea."

Dena den, Arrioren alderdia indarberritzen hasia da Ingalaterran, orobat Holandan eta Polonian ere. Newton jaun handiak laguntzeko ohorea egiten zion uste honi; unitarioek guk baino geometrikokiago arrazoitzen zutela uste zuen filosofo honek. Arriotar doktrinaren bururik gotorrena, ordea, Clarck doktore ospetsua da. Gizon hau bertute zurrunkoa eta izaera gozokoa da, bere iritzien zaleagoa proselitoak egitera grinatua baino, kalkulu eta frogapenez soilik arduratua, benetako arrazonamendu makina bat.

Berak eginga du liburu bat nahiko ulergaitza, baina estimatua Jainkoaren existentziaz, eta beste bat, ulergarriagoa, baina mesprezatu samarra kristau erlijioaren egiaz.

Gure lagunak²¹ ahokorapilo agurgarri deitzen dien eztabaida eskolastiko ederretan ez da sartu; unitarioen alde eta kontrako lehen mendeetako lekukotasunak oro jasotzen dituen liburu bat argitaratzeaz konformatu da, eta irakurleari utzi dio botuak zenbatu eta epaitzeko ardura. Doktorearen liburu honek aldeko asko erakarri dizkio, baina Canterburyko artzapezpiku izatea eragotzi dio; doktorea bere kalkuluan tronpatu egin dela deritzot, eta hobe zela Ingalaterrako lehen apezpiku izatea apaiz arriotarra baino.

Ikusten duzu zernolako iraultzak gertatu diren iritzietan zein inperioetan. Arrioren alderdia, garaipenezko hirurehun urte eta ahanzturazko hamabi mende ondoren, bere errautsetatik berpiztu da azkenean; epokaz nahastu da, ordea, mundua liskarrez eta sektez nardaturik dagoen garai batean berragertzean. Berau txikiegia da oraindik jendarteko batzarren askatasuna lortu ahal izateko; erdietsiko du, zalantzarik gabe, ugarikorrako bihurtzen denean; hala ere, honetaz guztiaz hain epelak gara orain, non erlijio berri eta berriztatu batek ia ez baitu fortuna egiteko aukerarik: ez al da bitxikeria Luterok, Calvinok, Zuingliok, idazle irakurtezinak guztiak, Europa banatzen duten sektak fundatu izana, Mahoma ezjakinak Asia eta Afrikari erlijio bat eman izana, eta Newton, Clarck, Locke, Le Clerc jaunek eta abarrek, beren garaiko filosoforik handienak eta lumarik onenak, artaldetxo bat, egunero gutxituz doana gainera, doi-doi antolatu izana?

Hara zer den mundura garaiz heltzea. Retzeko Kardinala²² gaur berragertuko balitz, hamar emakume ere ez litzuke asaldatuko Parisen.

Cromwell berpiztuko balitz, bere erregeari burua moztuarazi eta bere burua buruzagitzat aldarrikatu zuen hura, Londresko merkatari soil bat litzateke.

ZORTZIGARREN GUTUNA

Parlamentuaz²³

Ingalaterrako Parlamentuko kideek antzinako erromatarrekin ahalik eta gehien parekatzea atsegin dute.

Aspaldi ez dela, M. Shippingek hitz hauekin hasi zuen bere hitzaldia Komunen Ganbaran: Ingeles herriaren handitasuna laidotua izango litzateke, etab. Adierazpenaren berezitasunak barre algara handia eragin zuen; halere berak, harritu gabe, hitz berberak errepikatu zituen era irmo batez, eta inork ez zuen barre gehiago egin. Aitortzen dut ez dudala ezer amankomunik ikusten ingeles herriaren handitasunaren eta erromatar herriarenaren artean, are gutxiago euren gobernamentuen artean. Badago Senatu bat Londresen, zeinaren kideetariko batzuk susmagarri baitira, zuzengabeki dudarik gabe, egokiera dutenean beren botuak saltzeaz, Erroman egin ohi zen gisara; horra hor antz guztia. Gainerakoan, zeharo desberdinak iruditzen zaizkit bi naziook, onerako zein txarrerako. Erromatarren artean inoiz ez da erlijio gerren zorakeria ikaragarria ezagutu; higuinarrikeria hau eroapenaren eta umiltasunaren sermolari deboziotsuentzat gordea zegoen. Mario eta Sila, Ponpeio eta Zesar, Antonio eta Augusto ez ziren burrukatzen ea flamen-ak bere alkandora bere soinekoaren gainetik edo bere soinekoa bere alkandoraren gainetik eraman behar zuen, eta ea, augurioak egin zitezen, oilasko sagaratuek jan eta edan, ala soilik jan egin behar zuten erabakitzeke. Ingelesak antzina elkar zintzilikatu dute beren auzitegietan, eta beren buruak hondatu dituzte araututako guduetan gisa horretako liskarrak direla eta; apezpikutarren sektak eta presbiterianismoak nahastu egin dituzte aldi batez buru zuhur hauek. Uste dut ez zaiela berriro horrelako txorakeriarik gertatuko; beren eskarmentuari esker zentzutzen ari direla irizten diot eta ez diet batere gogorik ikusten aurrerantzean silogismoengatik elkar deslepotzen ibiltzeko.

Honatz Erroma eta Ingalaterraren arteko desberdintasun funtsezkoago bat, azkenengo honi abantaila osoa ematen diona: esklabotza izan zen Erromako gerra zibilen fruitua, eta askatasuna Ingalaterrako nahasmenduena. Ingeles nazioa munduan bakarra izan da erregeen boterea arautzera heldu dena haiei gogor eginez, eta, ahaleginaren ahaleginez, azkenean gobernamentu zuhur hori ezarri duena, non Printzea ongia egiteko ahalguztiduna den, eskuak loturik dauzka gaizkia egiteko; non jaunak handi diren ozartasunik eta menpekorik gabe, eta non herriak gobernamentuan parte hartzen duen nahasketarik gabe.

Pareen eta Komunen Ganbara dira nazioaren arbitroak, erregea da gainarbitroa. Balantza hau falta zitzaien erromatarrei, handikiak eta herria zatiturik zeuden beti Erroman, adiskidetuko zituen tarteko botererik ez baitzegoen. Erromako Senatuak, plebeieuekin ezer ere partekatu nahi ez izateko harrotasun zigorgarri eta zuzenkontrakoa zeukanak, hauek gobernutik urruntzeko beti atzerriko gerretan okuparaztea beste sekreturik ez zuen ezagutzen. Auzoen kontra xaxatu beharreko basa piztia bati bezala begiratzen zioten herriari bere nagusiak irentsiko zituen beldurrez. Honela, erromatarren gobernukeraren akatsik handienak konkistatzaile bilakarazi zituen; euren etxean dohakabe izateagatik bihurtu ziren munduko jaun, harik eta, azkenean, beren arteko zatiketek esklabu egin zituzten arte.

Ingalaterrako gobernuak ez dago hain distira handirako ez hain amaiera dohakaberako egina; beraren helburua ez da konkistak egiteko zorakeria distiratsua, baizik eta bere auzoek egin ditzaten eragozteak. Herri hau bere askatasunaz zelati ezezik, besteenaz ere badago. Ingelesak Luis XIV.aren kontra amorratu ziren, handiustekoa zeritzotelako soilik. Poztasunez egin zioten gerra, batere interesik gabe seguraski.

Kostatu egin da zalantzarik gabe askatasuna lortzea Ingalaterran; odol itsasotan itoa izan da aginte despotikoaren idoloa; halere, ingelesek ez dute uste lege onak garestiegi erosi

dituztenik. Beste nazioek ez dute nahasmendu gutxiago izan, ez dute haiek baino odol gutxiago isuri; alabaina, askatasunaren kausarengatik isuri duten odol honek beren morrontza zimendatu baino ez du egin.

Ingalaterran iraultza bat bilakatzen dena sedizio bat baizik ez da gainerako herrietan. Hiri batek armak hartzen ditu bere pribilegioak defendatzearren, bai Espainian, bai Berberian, bai Turkian: berehalaxe gudari mertzenarioek menperatzen dute, borrarroek zigortzen, eta gainontzeko herritarrek beren katei mun egiten diete. Frantsesei iruditzen zaie berau inguratzen duen itsasoa baino ekaiztsuago dela irla honetako gobernamentua, eta egia da; hau, ordea, erregeak ekaitza abiarazten duenean da, untzia nagusi bihurtu nahi duenean beronen lehen pilotu baizik ez izaki. Frantziako gerra zibilak Ingalaterrakoak baino luzeagoak, ankerragoak, krimenetan emankorragoak izan dira; baina gerra zibil hauetarik guztietarik bat berak ere ez du askatasun zuhur bat xedetzat eduki.

Karlos IX.aren eta Enrike III.aren garai gaitzesgarrietan, Guisetarren esklabu izango ote ziren jakitea zen arazo bakarra. Pariseko azken gerrari dagokionez, txistuak baizik ez ditu merezi, ikastetxe bateko prefektuaren kontra mutinatu eta azotaturik bukatzen duten eskolameak ikusten ditudala iruditzen zait; Retzeko kardinala, gaizki erabilitako kemen eta izpiritu askorekin, ziorik bat ere gabeko errebolataria, xederik gabeko nahaslea, armadarik gabeko alderdiburua, azpikeriak egite aldera aritzen zen azpikerian, eta bazirudien bere atseginerako egiten zuela gerra zibila. Parlamentuak ez zekien zer nahi zuen eta zer ez zuen nahi; dekretuz biltzen zituen tropak, eta sakabanatu egiten zituen gero, mehatxu egin eta barkamena eskatzen zuen; prezioa jartzen zion Mazarin kardinalaren buruari, eta kunplimenduak egitera joaten zitzaion gero zeremonioski. Gure gerra zibilak Karlos VI.aren denboran krudelak izan ziren, Ligarenak nardagarriak izan ziren, Fronderena irrigarria izan zen.

Frantzian ingelesei aurpegira gehien botatzen dietena Karlos lehenaren oinazetzea da, zeina tratatu baitzuten garaileek hark, zorioneko izan balitz, tratatuko zituen bezala.

Azkenik, begiraiozu alde batetik Karlos I.ari, bataila lerroan garaitua, preso hartua, epaitua, Westminsterren kondenatua, eta bestetik Enrike VII.ari, jaunartzerakoan bere kaperauak pozoindu zuena, Enrike III.ari, alderdi oso baten amorrazioaren ministro zen monje batek hila, Enrike IV.aren kontrako hogeita hamar berariazko hilketari, zenbait exekutaturi eta azkenengoa Frantzia azkenean Errege handi hau gabe utzi zuenari. Neur itzazu atentatu hauek eta epaia eman.

BEDERATZIGARREN GUTUNA

Gobernuaz²⁴

Zorioneko nahasketa hori Ingalaterrako gobernuan, komunen, lorden eta erregearen arteko elkar aditze hori ez da beti izan. Ingalaterra luzaroan izan da esklabo; erromatarrena, saxoniarrena, daniarrena, frantsesena izan baita. Gilen Konkistatzaileak, bereziki, burdinazko zetruez gobernatu zuen, bere menpeko berrien ondasunez eta bizitzaz erabakitzen zuen ekialdeko monarka baten gisara; debekatu egin zuen, heriotza zigorpean, ezein ingelesek etxen surik eta argirik eduki zezan arratseko zortziaz gero, dela berauen gau bilkurak aurrezaindu nahi zituelako horrela, dela frogatu nahi zuelako, hain debeku bitxiaz, noraino irits daitekeen gizaki baten boterea gainerako gizakien gain.

Egia da Gilen Konkistatzailearen aurretik eta ondotik Parlamentuak ukan dituztela ingelesek; horretaz harrotzen dira, biltzar horiek, orduan Parlamentu deituak, elizgizon tiranoz eta baroi izeneko ohoinez osaturikoak, zoriontasunaren eta askatasun publikoaren zaintzaileak izan balira bezala.

Barbaroek, Baltikoko ertzetatik gainerako Europan ezartzen ari zirenek, eurekin ekarri zuten hain hots handiko eta hain ezezagun diren Estatu edo Parlamentu hauen erabilera. Erregeak ez ziren orduan despotikoak, egia da; alabaina, herriak menpekotasun urrikalgarrienean auhenka aritzen ziren. Frantzia, Italia, Espainia, Ingalaterra xehatu zituzten basati hauen buruzagiak monarka bihurtu ziren: euren kapitanek beren artean banatu zituzten menderatuen lurak. Hortik datoz margrave horiek, laird horiek, baroi horiek, herrietako harrapakinengatik sarritan beren erregearekin norgehiagoka aritzen ziren azpitirano horiek. Usoen odola xurgatzeko arrano baten aurka burukatzen zuten saiak ziren; herri bakoitzak nagusi baten lekuan ehun tirano zituen. Elizgizonak berehala jarri ziren haien aldetik. Betidanik galiarren, germaniarren, Ingalaterrako uhartetarren zortea euren druidek eta euren herrietako nagusiek, aspaldiko baroi mota batek, baina beren ondorengoak bezain tirano ez zirenek gobernatuak izatea izan zen. Druida hauek jainkotasunaren eta gizakien arteko bitartekaritza zeuzkaten beren buruak; legeak egiten zituzten, eskomikatu eta heriotz zigorra ezartzen zuten. Apezpikuek ordeztu zuten emeki-emeki haien aginpide tenporala godo eta bandaloen gobernuan. Aita Santuak buruan jarri ziren eta brebeen, bulden eta monjeen bidez erregeak ikararazi zituzten, kargutik kendu, اساسin arazi eta ahalik eta dirurik gehien eskuratu zuten Europatik. Inas ergela, Ingalaterrako heptarkiako tiranoetako bat izan zen aurrena, Erromarako erromesaldi batean, San Pedoren denarioa (gure dirutan gutxi gorabehera hiru liberako dena) ordaintzeari amore eman ziona bere lurraldeko etxe bakoitzarengatik. Irla guztiak jarraitu zuen laster ohitura hau, Ingalaterra poliki-poliki Aita Santuaren probintzia bat bilakatu zen; Aita Santuak bere ordezkariak bidaltzen zituen noizik behin bertara neurritz gorako zergak jasotzeko. Joan Lurgabeak azkenean bere erresumaren zesio bat egin zion behar moduan, eskomunioa eman zion Bere Santutasunari, eta baroiek, hau beren komenentziarako ez zela ikusita, errege miserable hau iraitzi zuten, eta beraren ordezkari Luis VIII.a, Frantziako San Luis erregearen aita ezarri zuten; halere, berehala nazkatu ziren etorberri honetaz eta itsasoa berriraganarazi zioten.

Baroiek, apezpikuek, aita santuek Ingalaterra honela urratzen zuten bitartean, non denek agindu nahi baitzioten herriari, gizon-emakumeen multzorik handiena, are bertutetsuena ere, eta beraz errespetagarriena, legeak eta zientziak ikasten zituztenez, negozialariek eta artisauez, hitz batean, tirano ez zen oroz osatua, Herria, diot, gizakia baino gutxiagoko animaliatzat hartzen zuten. Artean asko falta zen komunek gobernuan parte izan zezaten, bilauak ziren: euren lana eta odola beren nagusia zen, nobleak zeritotenena. Europan jende kopururik handiena gaur egunean ere iparraldeko zenbait

lekutan dena zen, jaun baten morroi, lurrarekin saldu eta erosi egiten den azienda mota bat. Mendeak behar izan dira gizatasunari justizia egiteko, gehiengoak erein eta gutxiengoak biltzea ikaragarria zela ohartzeko, eta ez al da gizajendearentzat zorionbide bat ohoin txiki hauen aginpidea iraungia izana Frantzia gure erregeen botere zilegizkoaren bidez, eta Ingalaterran erregeen eta herriaren botere zilegizkoaren bidez? Zorionez, erregeen eta handikien kereilek inperioei ematen zizkieten astinaldietan, nazioen kateak lasaitu egin dira gutxi edo asko; tiranoen liskarretatik jaio da Ingalaterran askatasuna. Baroiek behartu zituzten Joan Lurgabea eta Enrike III.a Karta ospetsu hori onartzera²⁵, zeinaren helburu nagusia, egia esan, erregeak lorden menpean ezartzea baitzen, baina bertan gainerako herritarrak zertxobait faboratuak izan ziren, horren kariaz beren ustezko laguntzaileen alde jar zitezten. Ingeles askatasunen abiaburu sakratutzat joa den Karta Handi honek argi eta garbi erakusten du zein ezezaguna zen askatasuna. Tituluak berak adierazten du eskubidez absolututzat zeukala Erregeak bere burua, eta baroiek eta apaizteriak berak ez zuten ustezko eskubide hori uztera behartzen, indartsuenak zirelako ez bazen.

Hona hemen nola hasten den Karta Handia: "Guk geure borondatez ematen dizkiegu ondoko pribilegioak geure erresumako artzapezpiku, apezpiku, abade, priore eta baroiei, etab...

Karta horretako artikuluetan ez da hitz bat bera ere esaten Komunen Ganbaraz, artean ez zelako existitzen, edota ahalmenik gabe existitzen zelakoaren seinale. Ingalaterrako gizaki askeak zehazten dira bertan, ez zenik ere bazelako froga tristea. 32. artikuluan ageri da gizaki ustez libre horiek zerbitzuak zor zizkiotela beren jaunari. Askatasuna delako horrek esklabotzatik asko zuen artean.

21. artikuluan Erregeak agintzen du bere ofizialek ezingo zutela aurrerantzean indarrez hartu gizaki askeen zaldi eta zalpurdirik ordainduta izan ezik, eta araudi hau zinezko askatasuna iruditu zitzaion herriari, tirania handiago bat kentzen ziolako.

Enrike VII.a, usurpatzaile zorionekoa eta politikari handia, baroiak maite zituenaren itxurak egiten zituen, baina gorrotoa eta beldurra ziena, hauen lurak besteri ematen saiatu zen. Horrela, jarraian beren lanengatik ondasunak eskuratu zituzten hiritarrek, beren zorakeriengatik porrot egin zuten pare ospetsuen gazteluak erosi zituzten. Poliki-poliki, lur guztiak nagusiz aldatu ziren.

Komunen Ganbara egunetik egunera ahaltsuago bihurtu zen. Antzinako pareen familiak ahitu egin ziren denborarekin, eta, nola Ingalaterran propioki pareak baino ez baitira noble legearen zentzu hertsian, ez zatekeen inondik inora nobleziarik egongo herrialde horretan, erregeek ez balituzte aldian behin baroi berriak sortu, eta behiala hainbesteko beldurra zieten pareen ordena mantendu ez balute, beldurgarriegia bilakatua zen Komunenari kontrajartzeko.

Ganbara altua osatzen duten pare berri hauek guztiek erregeagandik hartzen dute beren titulua eta besterik ezer ere ez, beraietako ia inor ez da bere izena daraman lurraren jabe. Bata Dorseteko dukea da eta ez dauka lur hatz bat ere Dorsetshiren; bestea non kokatzen den ere ez dakien herri bateko kondea da. Parlamentuan dute aginpidea, ez beste inon.

Hemen ez duzu goi, erdi eta behe mailako justiziaz hitz egiten entzungo, ezta hiritar baten lurretan ehizatze eskubideaz ere, honek bere landa propioan tirorik jaurtikitzeko askatasunik ere ez baitauka.

Gizon bat, noble delako edo apaiz delako, ez dago hemen zenbait zerga ordaintzetik libre, zerga guztiak Komunen Ganbarak arautzen ditu, bere mailaz bigarrena baino ez izanik ere, bere izen onaz lehena baita.

Jaunek eta apezpikuek atzera bota dezakete Komunen zerga Bill-a; baina ez dira haizu ezer aldatzera; edo onartu edo errefusatu egin behar dute murrizketarik gabe. Bill-a lordek berretsi eta erregeak onartzen duenean, orduan mundu guztiak ordaintzen du,

bakoitzak ematen du, ez bere kalitatearen arabera (absurdua baita) baizik eta bere irabaziaren arabera; ez dago ez taila ez zerga arbitrarioik, lurren gaineko egiazko tasa baizik. Denak izan dira ebaluatuak, Gilermo III.a errege famatuaren pean, eta beren prezioaren azpitik ezarriak.

Tasak beti berdin dirau, nahiz eta lurraren errentak igo, honela inor ez da ostikatua eta inork ez du kexarik. Nekazariak ez dauzka oinak eskalapoiez zaurtuta, ogi zuria jaten du, ongi janzten da, ez dio beldurrik bere aziendaren kopurua gehitzeari ezta bere teilatua teilaz estaltzeari ere, hurrengo urtean zergak igoko dizkioten beldurrez. Laborari asko da hemen berrehun mila libera inguruko ondasunik duena, eta aberats bihurtarazi dituen eta aske bizi direneko lurra lantzen jarraitzea gutxiesten ez duena.

HAMARGARREN GUTUNA

Merkataritzaz

Ingalaterran herritarrak aberastu dituen merkataritzak, libre bilakarazten lagundu die, eta askatasun honek halaber merkataritza hedarazi du; honela egin da Estatuaren handitasuna. Merkataritza da arian-arian itsas indarrak finkatu dituen, berauengatik itsasoetako nagusi baitira ingelesak. Berrehun bat gerrauntzi dituzte gaurregun. Etorkizuna jabetuko da, harriduraz agian, berenez berun pixka bat, estainua, bolalurra eta artile arrunta besterik ez duen irla txiki bat bere merkataritza dela medio 1723an munduko hiru puntetara hiru flota batera bidaltzeko adina ahaltsu bilakatu dela, bata bere armez menperatu eta atxikitako Gibraltar aurrera, bestea Portobellora, Espainiako Erregeari Indietako altxorren gozamina kentzeko, eta hirugarrena Baltiko itsasora, iparraldeko potentziei guduka daitezen eragozteko.

Luis XIV.ak Italia dardarazten zuenean, eta bere armadak, Saboia eta Piamonteren jabe jada, Turin hartzeko prest zeudelarik, Eugenio printzeak Alemania barrutik Saboiako dukeari laguntzera joan behar izan zuen; ez zeukan dirurik, eta hori gabe ez dago hiriak hartzerik ez defenditzerik; ingeles merkataritza jo zuen; orduerdi batean berrogeita hamar milioi utzi zizkieten; horrekin Turin askatu zuen, frantsesak garaitu zituen eta dirutza hori prestatu ziotenei txarteltxo hau idatzi zien: "Jaunak, jaso dut zuen dirua eta harro nago zuen atseginerako erabili izanaz."

Honek guztiak harrotasun bidezkoa damaio merkataritza ingeles bati, eta bere burua, ez arrazoi apur bat gabe, erromatar hiritar batekin konparatzera ausart dadin eragiten dio. Erreinuko pare baten anaia txikiak ere ez du negozioa erdeinatzen. Milord Townshend, Estatuko ministroak, anaia bat badu hirian merkataritza izateaz konformatzen dena. Milord Oxfordek Ingalaterra gobernatzen zuen sasoian, bere anaia gazteena salerosle zen Alepon, ez zuen handik itzuli nahi izan eta bertan hil zen.

Ohitura hau, gehiegi zabaltzen hasi dena gainera, munstrokeria iruditzen zaie euren kuarteletan tematuriko alemaniarrei; ez lukete ulertuko Ingalaterrako pare baten semea burges aberats eta ahaltsu bat baino ez izatea, Alemanian jende guztia printze den bitartean; izen bereko hogeita hamarreraino handitasun ikusi izan dira beren armariak eta harrotasuna beste ondasunik gabe.

Frantzian nahi duena da markes, eta probintzia baten barrenetik gastatzeko diruarekin eta Ac edo Ille-n izen batekin Parisera heltzen den nornahik, "ni bezalako gizon bat, nire mailako gizon bat" esan dezake, eta subiranoki mesprezatu merkataritza bat; merkataritza hainbatetan entzun ohi du bere lanbidez mesprezuz hitz egiten ezen gorritzeko bezain zozoa den. Nik ez dakit, ordea, Estatu bati zein zaion baliagarriago, erregea zer ordutan jaikitzen den, zer ordutan oheratzen den zehatz dakien eta ministro baten aurrean esklaboarena eginez handipuzkeria darion jaun ongi hautseztatu bat, edo bere herria aberasten duen merkataritza bat, bere bulegotik Surattera eta Alkairora aginduak ematen dituen, eta munduaren zorionari laguntzen diona.

HAMAIKAGARREN GUTUNA

Nafarreriarren ezarpenaz²⁶

Ahapeka esan ohi da Europa kristauan ingelesak zoro amorratuak direla: zoroak, beren hurrei nafarrerria ematen dietelako, berau harrapa ez dezaten; amorratuak, beren hurrei egiazko gaixotasun lazgarri bat deliberatuki eransten dietelako zalantzazko gaitz bat aurrezaintzearren. Ingelesak, bere aldetik, zera diote: "Gainerako europarrak koldar eta desnaturalizatuak dira: Koldarrak dira euren hurrei min pixka bat egiteko beldur direlako; desnaturalizatuak, egunen batean nafarreriz hiltzeko arriskuan jartzen dituztelako". Eztabaida honetan zeinek duen arrazoi erabakitzeke, hona hemen Ingalaterratik at hainbesteko izuikaraz aipatzen den txertaketa famatu honen historia.

Zirkasiako emakumeek antzina-antzinatik dute beren hurrei nafarrerria emateko usadioa, are sei hilabeterekin ere, besoan ebakidura bat eginez, eta ebaki horretan beste haur baten gorputzetik arretaz atera dituzten pikotak txertatuz. Legamiak ore puska batean duen eragina izaten dute pikota hauek ezarriak izan diren besoan; bertan hartzi egiten dira eta odol masan barreiatzen dituzte beroriek dituzten dohainak. Nafarreriarren txerto artifizial hau eman zaion umearen tokorrek besteei gaisotasun bera itsasteko balio dute. Ia etengabeko zirkulazioa da berau Zirkasian; eta tamalez herrialdean nafarreririk ez denean, beste tokitan urte txar batean egon ohi diren bezain gogaitaraziak egoten dira.

Gainerako herriei hain bitxia iruditzen zaien ohitura hau Zirkasian sarrarazi duena, hala ere, lur osoari dagokion gauza arrunta da: samurtasun amatiarra eta interesa.

Zirkasiarrak pobreak dira eta beren alabak ederrak: horregatik, berauekin trafikatzan dute gehien. Edertasunez hornitzen dituzte Jaun Handien, Persiako Sufiaren, eta merkantzia balios hau erosi eta mantentzeko adina aberats direnen haremak. Euren alabak ardura eta ohore handiz hezitzen dituzte gizonak laztan ditzaten, lasaikeriaz eta lizunkeriak beteriko dantzak molda ditzaten, artifizio haragikoi guztiez, destinaturik daudeneko nagusi erdeinatuen gustua berpiz dezaten: kreatura gaixo hauek beren amarekin errepikatzen dute egunero beren ikasgaia, gure alabatxoek beren katixima errepikatzen duten bezala, tutik ulertu gabe.

Izan ere, sarritan gertatu ohi zen aita batek eta ama batek, beren alabei heziketa on bat ematen neke ugari hartu ondoren, beren itxaropenak zapuztuta ikusten zituztela bapatean. Nafarrerria familian sartzan zen, horren ondorioz alaba hiltzen zen, beste batek begi bat galtzen zuen, hirugarren bat sudur handi batekin suspertzen zen, eta jende pobreak porrot egiten zuen erremediorik gabe. Sarritan gainera, nafarrerria izurrite bihurtzen zenean, merkatalgoa gelditu egiten zen urte batzuetan, Persia eta Turkiako serailetan beherakada nabarmena eraginez.

Nazio merkatare bat bere interesei adi-adi dago beti eta ez du mesprezatzen bere negozioan baliozko izan dezakeen ezein ezagupenik. Zirkasiarrak konturatu ziren, mila pertsonetatik ia inori ez ziola nafarrerri oso-oso batek bi aldiz erasaten; zinez jasaten ahal direla hiruzpalau nafarrerri arin, baina inoiz ez erabakigarri eta arriskutsu diren bi; hitz batean, bizitzan egiazki inoiz ez dela birritan edukitzen gaitz hau. Ohartu ziren, halaber, nafarrerria oso arina denean, eta beronen irteerak larruazal leun eta mehe bat baino zulatu behar ez duenean, ez duela inolako arrastorik uzten aurpegian. Behaketa natural hauetatik zera ondorioztatu zuten, sei hilabeteko edo urtebeteko haur batek nafarrerri arin bat izanez gero ez zela hilko, ez zitzaioa markarik geratuko eta gaitz honetatik libre izango zela gainontzeko egunetarako.

Beharrezko zen, beraz, euren seme-alaben bizia eta edertasuna gordetzeko nafarrerria goizik ezartzea; eta horixe da egin zena, aurki zitekeen nafarreririk osoena eta aldi berean egokienari hartutako tokor bat umearen gorputzean txertatuz.

Esperientziak ez zezakeen huts egin. Turkiarrek, jende zuhurra izaki, handik laster hartu zuten ohitura hau, eta gaur egun ez dago Baxarik Konstantinoplan bere semeari eta alabari ebakuntza eginez nafarreririk ematen ez dionik.

Bada zenbait jende esan izan duena zirkasiarrek antzina arabiarrengandik bereganatu zutela ohitura hau; baina histori puntu hau beneditar jakintsuren batek argi dezan uzten dugu, horri buruz in-folio liburuki batzuk froga eta guzti egiteari ez baitio utziko. Gai honetaz nik dakidan guztia zera da, Jorge I.aren erreinaldiaren hasieran, Wortley-Montaigu andrea, izpirituan indarririk gehien eta izpiriturik gehien daukan Ingalaterrako emakumeetariko bat, bere senarrarekin Konstantinoplan enbaxadore zelarik, herrialde hartan ukan zuen haur bati nafarrerria ematea erabaki zuela inongo kezkarik gabe. Bere kaperauak esperientzia hori ez zela kristaua eta sinesgabeen artean baino ez zitekeela ongi atera esan zion arren, Wortley andrearen semea primeran sentitu zen. Andre honek, Londresa itzulitakoan, bere esperientziaren berri eman zion Galesko printzesari, gaur egun erregina denari. Aitortu beharra dago, tituluak eta koroak alde batera utzirik, arte guztiak sustatzeko eta gizakiei on egiteko jaioa dela printzesa hau; filosofo maitagarria da tronuan; ez du ez bere burua eskolatzeko ez bere eskuzabaltasuna adierazteko aukerarik galdu inoiz; bera izan zen, Miltonen alaba bat oraindik ere bizi zela entzun zuenean, eta miserian bizi ere, berehalaxe opari handi bat bidali ziona; bera da aita Courayer gizagaixo hori babesten duena; bera da Clarck doktorearen eta Leibniz Jn.aren artean ararteko izatea ontzat hartu zuena. Nafarrerriaren txertaketaz edo ezarpenaz hitz egiten entzun zuenetik, froga eginarazi zien heriotz zigorrera kondenaturiko lau gaizkileri, euren bizitza bi bider salbatuz, zeren eta urkamenditik urruntzeaz gain, nafarrerri artifizial honi esker, seguraski edukiko zuten naturala, eta adintsuago egitean beharbada heriotza ekarriko ziena, aurrezaindu baitzuen.

Printzesak, froga honen onuragarritasunaz ziur egonik, bere haurrak txertarazi zituen: Ingalaterrak haren etsenplua jarraitu zuen; eta harez gero hamar mila famili umek gutxienez beren bizitza zor diete horrela Wortley-Montaigu Andreari eta erreginari, eta beste hainbeste alabek beren edertasuna zor diete.

Munduan ehun pertsonetatik hirurogeik gutxienez badu nafarrerria; hirurogei horietatik hogeit beren sasoirik onenean hiltzen dira, eta hogeik orbain penagarriak gordetzen dituzte betiko; honela, bada, gizakien bostena eritasun horrek hiltzen edo itsusten du benetan. Turkian edo Ingalaterran txertatuak direnetarik inor ez da hiltzen, beste zerbaitengatik gaisorik edo heriotzara kondenaturik ez badago behintzat; inori ez zaio markarik geratzen, inork ez du bi aldiz nafarreririk harrapatzen, txertaketa perfektua izanez gero. Egia da, hortaz, frantses enbaxadoresaren batek sekretu hau Konstantinoplatik Parisera ekarri izan balu, betiereko zerbitzua egingo ziokeela nazioari; Villequierko dukea, Aumonteko egungo dukearen aita, Frantziako gizonik hobekien eratua eta osasuntsuena ez zatekeen hilko sasoirik onenean.

Osasunik distiratsuena zuen Soubiseko printzea ez zukeen heriok eramango hogeita bost urterekin, Luis XV.aren aitona Monsinorea ez zatekeen ehortzia izango bere berrogeita hamargarren urtean; 1723an Parisen nafarreriz hildako hogeit mila pertsona oraindik bizirik izango ziratekeen. Zer, orduan? Ez ote dute frantsesek bizitza maite? Ez ote dira euren emakumeak beren edertasunaz kezkatzen? Zinez, jende arraroa gara! Agian hamar urte barru onartuko da ingeles- metodo hau, apaizek eta medikuek baimentzen badute; edota, frantsesak, hiru hilabete barru, burukeriaz baliatuko dira inokulazioaz, baldin ingelesak inkonstantziagatik hartaz gogaitzen badira.

Jakin dut txinatarrek duela ehun urtez geroztik daukatela ohitura hau; unibertsoko naziorik jakintsuen eta zibilizatuentzat jotzen denaren eredia aurrititzi haundi bat da. Egia da txinatarrek beste era batera moldatzen direla: ez dute ebakidurarik egiten, sudurretik hartzen dute nafarrerria, tabako hautsa bezala; era hau atseginagoa da, baina

gauza bera da izan, eta, Frantzian txerkaketa praktikatu izan balitz, milaka gizakiri bizitza salbatu izango zitzaiola egiaztatzeko balio du²⁷.

HAMABIGARREN GUTUNA

Bacon kantzelariaz

Denbora asko ez dela, lagunarte ospetsu batean, gai zaharkitu eta ergel hau zuten eztabaidagai, ea zein zen gizonik handiena, Zesar, Alexandro, Tamerlan, Cromwell, etab.

Zalantzarik gabe Isaak Newton zela erantzun zuen norbaitek. Arrazoi zuen harako horrek, zeren eta egiazko handitasuna zerutik jeinu ahaltsu bat errezibitu izatean, eta hartaz bere burua eta besterena argitzeko baliatu izatean baldin badatza, Newton bezalako gizaki bat, hamar mendetan doi-doi aurkitzen den horietakoa, da zinez gizaki handia; eta politikari eta konkistatzaile horiek, zeinahi mendetan falta izaten ez direnak, gaizto ospetsuak baino ez dira eskuarki. Egiaren indarrez izpirituen jabe denari, eta ez bortxaz esklabuak egiten dituztenei, unibertsoa ezagutzen duenari, eta ez berau desitxuratzen dutenei, zor diegu begirunea²⁸.

Ingalaterrak ukan dituen gizaki ospetsuez mintza nakizula exigitzen duzunez gero, Bacon, Locke, Newton, eta abarregandik hasiko natzaizu. Jeneralei eta ministroei helduko zaie dagokien txanda.

Verulamioke konte famatuagandik hasi beharra dago, European Bacon izenaz ezagutzen denarengandik, hori baitzen bere deitura. Zigiluzain baten semea zen, eta luzaz kantzelari izan zen Jakobo lehena erregearen denboran. Hala ere, gorteko azpikerien, eta erabateko gizona eskatzen zuten bere karguko lanen tartean, filosofo handia, historilari ona, eta idazle dotorea izateko astia aurkitu zuen; eta are harrigarriago dena, bera bizi izan zen mendean ia ez zen ezagutzen ongi idazteko artea, eta are gutxiago filosofia ona. Gizakien artean ohikoa denez, bere heriotza ostean estimatuagoa izan da bere bizitzaldian baino: bere etsaiak Londresko gortean zeuden, bere miresleak Europa osoan zeuden.

Effiateko markesak Ingalaterrara eraman zuenean Maria printzesa, Enrike Handiaren alaba, Galesko printzearekin ezkontzekoa zena, ministro hau Bacon bisitatzaera joan zen, zeinak, orduan ohean gaixorik zegoenez, gortinak itxita errezibitu zuen. "Aingeruen antza duzu, esan zion Effiatek, beti entzuten da haietaz hitz egiten, gizakiak baino askoz handiagotzat jo ohi dira, eta inoiz ez da beraiek ikusteko kontsolamendurik izaten."

Badakizu, Jauna, nola izan zen Bacon akusatua filosofo bati biziki ez dagokion krimen batez, bere burua diruagatik usteltzen utzi izanaz; badakizu pareen ganbarak gure dirutan lauhun mila libera inguruko isuna ordaintzera, bere kantzelari eta pare duintasuna galtzera kondenatu zuela.

Gaur egun, ingelesek haren oroimenari hain errespetu handia diote, obendun izan zela ez dute aitortu nahi. Berataz zer pentsatzen dudan galdegin nahi badidazu, Milord Bolingbrookeri aditu nion hitz batez baliatuko naiz zuri erantzuteko. Bere aurrean Marlborougheko dukea akusatua izan zeneko zekenkeriaz hitz egiten ari ziren, eta aipagai zituzten Milord Bolingbrookeren lekukotza beharrezko egiten zuten kontuak, honek, haren etsai aitortua izan ondoren, agian jendetasunez esan baitzezakeen nolakoa izan zen. "Hain gizon handia zen, erantzun zuen, ahaztu egin ditudala bere bizioak."

Bacon Kantzalaria Europaren estimuaren merezigarri egin duen zeraz hitz egitera mugatuko natzaizu, bada.

Bere lanetariko bereziena eta hoberena, gaur egunean gutxien irakurria eta alferrikakoena da, bere Novum scientiarum organum-az mintzo naiz. Filosofia berria eraikia izan deneko oholta da, eta eraikuntza honen parte bat gutxienez altxatua izan denean, oholta ez da dagoeneko batere baliagarri.

Bacon Kantzelarriak artean ez zuen natura ezagutzen; baina bazekizkien eta erakusten zituen bertara daramatzaten bide guztiak. Oso goiz mesprezatu zuen unibertsitateek filosofia deritzotena; eta bere esku zegoen guztia egiten zuen, elkarte horiek, giza

arrazoiaren perfekziorako eratuak, ez zezaten berau hondatzen jarrai beren quidditateekin, beren hutsaren izuarekin, beren forma substantzialekin eta ezjakintasunak errespetagarri bihurtarazi ezezik, erlijioarekiko nahasketa erridikulu batek ia sakratu bilakarazi zituen hitz inpertinente guztiekin²⁹.

Filosofia esperimentalaren aita da. Egia da bere aurretik sekretu harrigarrik aurkitu izan zela. Asmatuta zeuden itsasorratza, inprimategia, irudien grabaketa, olio pintura, mirailak, zaharrei miserak izeneko betaurrekoen bidez ikusmena nolabait itzularazteko artea, kainoi bolbora, etab. Mundu berri bat bilatu, aurkitu eta konkistatua izan zen. Nork ez luke sinetsiko aurkikuntza ezin ederrago hauek filosoforik handienek eginak izan direla, eta gureak baino garai argituagoetan? Inola ere ez: barbareria burugabeenaren denboran egin izan dira aldaketa handi hauek lurrian: zoriak soilik ekarri ditu ia asmakuntza hauek guztiak, eta are itxura guztien arabera zoria deitzen denak zerikusi handia izan du Amerikaren aurkikundean ere; beti uste izan da bederen Kristobal Kolonek ez zuela bere bidaiarik hasi ekaitz batek Karibe irlen pareraino jaurtiki zuen untzi kapitain batengan sinestea ezarri ondoren baizik.

Dena den, gizakiek bazekiten munduaren muturreraino joaten, bazekiten hiriak suntsitzen egiazko trumoi baido izugarriagoko trumoi artifizial batez; baina ez zuten ezagutzen odolaren zirkulazioa, airearen astuntasuna, mugimenduaren legeak, argia, gure planeten kopurua, etab., eta Aristotelesen kategoriei buruzko, a parte rei unibertsalari buruzko edo beste edozein tontakeriari buruzko tesi bati eusten zion gizaki bat miragarritzat hartua zen.

Asmakuntza harrigarrienak eta erabilgarrienak ez dira giza izpirituari ohorerik gehien ematen diotenak.

Gizakirik gehien baitan dagoen sen mekaniko bati zor dizkiogu arte guztiak eta ez filosofia zindoiari.

Suaren aurkikundea, ogia egiteko, metalak prestatu eta urtzeko, etxeak egiteko artea, anezkaren aurkikuntza, moldiztegia edo iparorratza baino askoz beharrezkoagoak dira; hala ere, gizaki oraindik basatiek asmatu zituzten arte hauek.

Arte mekanikoen zein miragarritzko erabilera ez zuten egin gero greziar eta erromatarrek? Alabaina, haien garaian kristalezko zeruak zeudela uste zen, eta izarrak batzuetan itsasora erortzen ziren argi txikiak zirela; eta haien filosofo handietariko batek, ikerketa askoren ostean, astroak lurretik askaturiko harriak zirela aurkitu zuen.

Hitz batean, inork ez zuen Bacon Kantzelariaren aurretik filosofia esperimentala ezagutu; eta harez gero egin diren aproba fisiko guztietarik, ia ez dago bat bera ere haren liburuan adierazita ez dagoenik. Berak eginak zituen batzuk, makina pneumatikoen moduko bat egin zuen, zeinaren bidez airearen elastizitateari antzeman baitzion; beronen astuntasunaren aurkikuntzaren inguruan biraka ibili zen, ia-ia aurkitu zuen; egia hau Torricellik atzeman zuen. Handik pixka batera, fisika esperimentala bat-batean hasi zen Europako ia alde guztietan batera landua izaten. Baconek sumatu zuen altxor ezkutu bat zen, eta filosofo guztiak, haren promesak akuilaturik, lurretik ateratzen ahalegindu zirena.

Baina, gehien harritu nauena, hitz argi eta garbitan, Newton Jaunak asmatu bide zuen erakarpen berri hau bere liburuan ikustea izan da.

"Bilatu behar da, dio Baconek, ea ez ote dagoen indar magnetiko motaren bat lurraren eta gauza astunen artean, ilargiaren eta ozeanoaren artean, planeten artean, etab. eragiten duena."

Beste toki batean dio: "Beharrezko da gorputz astunak lurraren erdirantz eramanez izatea, edo elkar erakarriak izatea, eta, azken kasu honetan, bistan dago gorputzak erortzean, zenbat eta lurrera gehiago hurreratu, orduan eta indartsuago izango da elkarrekiko erakarpena. Beharrezko da, jarraitu zitzaion, esperimentatzea ea pisudun

erloju bera azkarrago ibiliko den mendi baten gainean ala mea baten zolan; pisuen indarra gutxitu egiten bada mendi gainean eta handitu lurpean, iduri luke lurrak egiazko erakarpen bat baduela."

Filosofiaren aintzindari hau idazle dotore bat, historilari bat, izpiritu landu bat izan da baita ere.

Haren Moral saiakerak txit estimatuak dira, baina atsegina emateko baino areago irakasteko eginak dira, eta ez izanik ez giza naturaren satirarik La Rochefoucaulteko Jn.aren Maximak bezala, ez eszeptizismoaren eskolarik Montaigne bezala, bi liburu jeinutsu hauek baino gutxiago irakurriak dira.

Haren Enrike VII.aren Historia-k maisulan baten fama du; guztiz engainatuko nintzateke, ordea, gure de Thou ospetsuaren lanarekin alderatu ahal izango balitz.

Jaiotzez judu den Parkins inpostore famatu hori aipatuz, Bourgogneko dukesak bultzaturik Ingalaterrako Rikardo IV.aren izena hain ausarki hartu zuena, eta Enrike VII.ari koroa disputatu ziona, hona hemen nola mintzo den Bacon Kantzelaria:

"Garai horretantsu, Enrike erregea izpiritu gaiztoek erasana izan zen Bourgogneko dukesaren magiaz, zeinak Eduardo IV.aren itzalari hotsegin baitzion infernuetatik Enrike erregea oinazetzero etor zedin. Bourgogneko dukesak Parkins eskolatu zuenean, kometa hau zeruko zein aldetatik agerraraziko zuen deliberatzen hasi zen, eta aurrena Irlandako zerumugan lehertuko zela erabaki zuen."

Iruditzen zait gure de Thou jakintsua ez dela inoiz ere, lehen sublimetzat zeukaten, baina orain arrazoiz galimatias deitzen den erdara-merdara honetan erortzen.

HAMAHIRUGARREN GUTUNA

Locke jaunaz³⁰

Agian inoiz ez da izan Locke Jauna baino izpiritu zuhurragorik, metodikoagorik, logikalarik zehatzagorik; ez zen, halere, matematikari handia. Ez zen inoiz makurtu ahal izan kalkulan nekerik ez eta egia matematikoen idortasunera, honek ez baitio alde zuretik ezer sentikorrik eskaintzen izpirituari, eta ez du inork berak baino hobeto frogarazi geometriaren laguntzarik gabe ere eduki zitekeela geometria izpiritua. Bere aurretik, filosofo handiek positiboki erabakia zuten zer den gizakiaren arima; baina, hartaz fisik ez zekitenez, guztiz bidezkoa da denek iritzi desberdinak eduki izana.

Grezian, arte eta hutsegiteen seaskan, eta giza izpirituaren handitasuna eta zozokeria hain urrun eraman ziren tokian, gure artean bezala arrazoitzen zen arimaz.

Anaxagoras jainkotiarrek eguzkia Peloponeso baino handiagoa zela, elurra beltza zela eta zeruak harrizkoak zirela gizakiei irakasteagatik aldare bat eraiki zitzaionak, arima izpiritu airezkoa zela, baina haatik hilezkorra, baieztatu zuen.

Diogenesek, diru faltaz izan ondoren ziniko bihurtu zena ez beste batek, arima Jainkoaren substantzia beraren puska bat zela segurtatzen zuen, eta ideia hau gutxienez distiratsua zen.

Epikurok zatiz osatzen zuen, gorputza bezala. Ulergaitza izaki, mila eratan esplikatzen izan den Aristotelesen ustea zuen, beraren dizipuluetariko batzuek fidatzen bagara, gizaki guztien adimena bat bakarra eta substantzia berbera zela.

Platon dibinoak, Aristoteles dibinoaren maisuak, eta Sokrates dibinoak, Platon dibinoaren maisuak, arima gorputzezkoa eta betierekoa zela zioten; Sokratesen deabruak irakatsiko zion, seguraski. Bada jenderik, egiatan, esaten duena jeinu familiar bat edukitzeaz harrotzen zen gizaki bat zoroa edo pikaroa zela dudarik gabe; baina jende kasta hori zailegia da³¹.

Elizako gure gurasoei dagokienez, lehen mendeetan batzuek pentsatu zuten giza arima, aingeruak eta Jainkoa gorputzezkoak zirela.

Mundua finduz doa betiere. San Bernardok, aita Mabillonaren aitoparen arabera, arimari buruz irakatsi zuen, heriotza ostean ez zuela Jainkoa ikusten zeruan, baizik eta Jesukristoren gizatasunarekin soilik hitz egiten zuela; oraingo honetan ez zuten bere hitzetan sinetsi. Gurutzadaren abenturak apur bat deskreditatu zituen haren orakuluak. Hamaika eskolastiko etorri zen gero, Doktor Errefusaezina, Doktor Sotila, Doktor Aingerutiarra, Doktor Serafikoa, Doktor Kerubindarra, esaterako, horiek denak arima argi eta garbi ezagutzeaz oso ziur egon dira, baina ez diote hartaz mintzatzeari utzi, inork ezer uler ez zezan nahi izan balute bezala.

Gure Descartes, antzinatoko errakuntzak aurkitzeko sortua, baina horien orde zureak jartzeko, eta gizakirik handienak itsutzen dituen izpiritu sistematiko horrek bultzatuta, arima eta pentsamendua gauza berbera zirela frogatu zuelakoan zegoen, materia eta hedadura, beraren iritzian, gauza bat bera diren bezala: beti pentsatzen dela ziurtatu zuen, eta nozio metafisiko guztiez hornituta heltzen dela arima gorputzera, Jainkoa, espazioa, infinitua ezagutuz, ideia abstraktu guztien jabe izanik, ezagutza ederrez bete azken batean, bere amaren sabeletik irtetean ahanzen dituenak zoritxarrez.

Oratorioko Malebranche Jaunak, bere ilusio goitarretan, sortetiko ideiak onartu ezezik, ez zuen dudarik egiten dena Jainkoagan ikusten genuenik, eta Jainkoa, nolabait esateko, gure arima zenik.

Hainbat arrazonatzailek arimaren nobela egina zuenean, jakitun bat etorri da, apalki haren historia egin duena. Lockek giza arrazoia argitu dio gizakiari, anatomista bikain batek giza gorputzaren erresorte guztiak esplikatzen dituen antzera. Fisikaren zuziaz baliatzen da orotan; batzuetan, baieztaka hitz egitera ausartzen da, baina dudatzera ere ausartzen da; ezagutzen ez duguna bapatean definitu beharrean, mailaka aztertzen du

ezagutu nahi duguna. Haurra bere jaiotunean hartzen du, urratsez urrats jarraitzen ditu haren adimenaren aurrerapenak, animaliekin amankomunean duena eta haien gainetik duena ikusten du; beraren lekukotasun propioari, beraren pentsamenduaren kontzientziari kontsulta egiten die guztien gainetik.

"Bego, dio, nik baino gehiago dakitenek eztabaida dezaten, ea gure arima gure gorputzaren antolakuntzaren aurretik ala ondotik existitzen den; baina aitortzen dut beti pentsatzen ez duten arima traukil horietako bat egokitu zaidala, eta gainera zoritxarrez ez diot irizten arimarentzat beti pentsatzea gorputzarentzat beti mugimenduan egotea baino beharrezkoago denik."

Niri dagokidanez, puntu honetan Locke bezain zozoa izateko ohoreak harrotzen nau. Ez dit inoiz inork beti pentsatzen dudarik sinetsaraziko; eta ez naiz bera baino gertuago sentitzen nire jaiotzetik aste batzuetara arima txit jakintsua nintzela imajinatzeke, jaiotzerakoan ahaztu dudarik mila gauza nekielarik une hartan, eta haien premia izan nezakeenean ihesi zaizkidan ezagutzak alfer-alferrik nituelarik umontzian, eta geroztik inoiz berrikusi ahal izan ez ditudanak.

Lockek, sortzetiko ideiak birrindu ostean, beti pentsatzen dela sinesteko handiusteari uko egin ondoren, gure ideia guztiak zentzumenen bidez datozkigula erabakitzen du, gure ideia bakunak eta konposatuak direnak aztertzen ditu, gizakiaren izpirituari jarraitzen dio bere egintza guztietan, gizakiek hitz egiten dituzten mintzairak zein eskasak diren, eta hitzak betiere zein bidegabeki darabiltzagun erakusten du.

Azkenik, giza ezagutzen hedadura edo, hobeki, ezereza kontuan hartzerantz heldu da. Kapitulu honetantxe da hitz hauek apaltasunez aurreratzera ausartzen dena: Agian inoiz ez gara gauza izango izaki soilki material batek pentsatzen duen ala ez jakiteko.

Diskurtso zuhur hau, arima materiala eta hilkorra dela alegia, adierazpen eskandalagarria iruditu zitzaion teologo bati baino gehiagori.

Ingeles batzuek, deboziotsuak beren erara, alarma joarazi zuten. Beldurtiak armada batean bezala dira superstiziotsuak gizartean: izu ikaragarriak eman eta eragiten dituzte. Lockek erlijioa uzkaile nahi zuela oihuztatu zen: gai honetan, ordea, ez zen erlijioaz ari; arazo guztiz filosofikoa zen, errebelaziotik eta fedetik arras independentea; garraztasunik gabe aztertu besterik ez zegoen ea kontraesanik baden esakune honetan: materialak pentsatu egin lezake, eta ea Jainkoak komunika liezaiokeen pentsamendua materialari. Baina teologoak gehiegitan hasten dira esaten Jainkoa iraindu dela beren iritzikoak ez garenean. Poeta txarren antz handiegia du honek, uste baitzuten Despreaux erregeagatik gaizki esaka ari zela, beraietaz burlatzen zelako.

Stillingfleet doktoreak teologo moderatuaren fama bereganatu zuen, Lockeri zinez irainik ez esateagatik. Haren kontra borrokan hasi zen, baina garaitua izan zen, doktore bezala arrazoitzen baitzuen, eta Lockek giza izpirituaren indarraz eta ahuleriaz eskolatutako filosofo bezala, gudukatzen zen armen trenpea ezagutzen zuelarik.

Locke Jaunaren ondoren gai hain korapilatsuak hitz egitera ausartuko banintz, zera esango nuke: gizonak aspaldidanik ari dira eztabaidan arimaren izaeraz eta hilezkortasunaz. Honen hilezkortasunari dagokionean, ezinezkoa da berau frogatzea, bere izaeraz eztabaidatzen baita oraindik, eta gizaki sortua zinez sakonki ezagutu beharra dago hilezkorra den ala ez deliberatzeko. Giza arrazoia hain ezdeusa da arimaren hilezkortasuna bere kasa egiaztatzeke non erlijioak errebelatu egin behar izan baitigu. Gizaki guztien ongi amankomunak arima hilezkortzat hartzea eskatzen du; sinesmenak hori agintzen digu, ez da besterik behar, eta gauza erabakita dago. Ez da gauza bera gertatzen haren izaerarekin; arima zer izaeratakoa den bost axola zaio erlijioari, bertutetsu izanez gero; gobernatzeke eman diguten erloju bat da; baina langileak ez digu esan erloju horren eragingailua zerez eginga dagoen.

Gorputz naiz eta pentsatu egiten dut: ez dakit ezer gehiago. Kausa ezezagun bati egotzi behar ote diot ezagutzen dudan bigarren kausa bakarrari aise egotzi diezaiokedana? Hemen, Eskolako filosofo guztiek geldiarazten naute argumentatuz, eta diote: "Gorputzean ez dago hedadura eta sendotasuna besterik, eta ez ditzake mugimendua eta eitea baizik eduki. Bada, mugimenduak eta eiteak, hedaturak eta sendotasunak ezin dute pentsamendu bat osatu; beraz arimak ezin du materia izan". Arrazonamendu handi hau guztia, hainbat aldiz errepikaturikoa, honetara laburtzen da soilik: "Materia ez dut batere ezagutzen, haren zenbait berezkotasuni inperfektuki igartzen diot, bada, inolaz ere ez dakit zertasun horiek pentsamenduari eratzeki dakizkiokeen; beraz, ezertxo ere ez dakidalako, materiak ez dezakeela pentsa segurtatzen dut egiazki". Horra hor garbiki Eskolaren arrazoibidea. Lockek lainoki esango lieke jaun horiei: "Aitor ezazue gutxienez ni bezain ezjakin zaretela; ez zuen irudimenak ez nireak atzeman dezake nola dituen ideiak gorputz batek, eta hobeki konprenitzen ote duzue substantzia batek, zernahi dela, ideiak izatea? Ez materia eta ez izpiritua gogoematen dituzuenez, nolatan ausartzen zarete ezer ziurtatzera?"

Ondoren badator superstiziotsua eta zera dio, erre egin behar direla, euren arimen onerako, gorputzaren laguntza soilaz pentsa daitekeela susmatzen dutenak. Zer esango lukete, ordea, eurak balira erlijioezaren errudunak? Izan ere, zein gizaki da segurtatzera ausartuko litzatekeena, zentzugabeko fedegabekeriari gabe, Kreatzaileari ezinezko zaiola materiari pentsamendua eta sentimendua ematea? Ikus ezazue, otoi, zer oztopotara murriztuak zareten, Kreatzailearen indarra honela mugatzen duzuenok! Abereek gure organo berak dituzte, sentimendu berak, oharmen berak; badute oroimenik, zenbait ideia konbinatzen dute. Jainkoak ezin izan badio materiari bizia eta sentimendua eman, bietako bat, edo animaliak makina hutsak dira edo izpirituzko arima dute.

Ia frogatutzat irizten diot abereek ezin dutela makina hutsak izan; honatx nire frogak: Jainkoak, hain zuzen, gureak bezalakoxe sentimen organoak egin dizkie; beraz, sentitzen ez badute, alferreko lana egin du Jainkoak! Jainkoak, alabaina, zuen aitormenaren beraren arabera, ezer ez du alferrik egiten; hortaz, ez du hainbat sentimen organo sortu sentimendurik egon ez dadin; beraz, animaliak ez dira makina hutsak³².

Abereek, zuen arabera, ez dezakete izpirituzko arimarik ukan; ondorioz, zuek gorabehera, ez da besterik geratzen esateko, baizik eta animalien organoei, zeinak materia baitira, sentitzeko eta hautemateko ahalmena, haietan sena deitzen diozuen, eman diela Jainkoak.

Eh!, nork eragotz dakioke Jainkoari gure organorik sotilenei sentitzeko, hautemateko eta pentsatzeko ahalmen hori, giza arrazoimena deritzoguna, komunika diezaien? Edozein aldetara itzultzen zaretela, zeuen ezjakintasuna eta Kreatzailearen indar neurrigabea aitortu beharra daukazue. Ez zaitezte, beraz, Lockeren filosofia burutsu eta apalaren aurka errebela; erlijioaren kontrakoa izatetik urrun, frogatzat balioko lioke, erlijioak horren beharrik balu; ezen ba ote da filosofia erlijiosoagorik, argiro somatzen duena baizik ez baieztatuz eta beraren ahultasuna aitortzen jakinez, lehen printzipioak aztertzen diren unetik Jainkoagana jo behar dela diotsuena baino?

Bestalde, inoiz ez da beldurrik izan behar ezein sentimendu filosofikok herri bateko erlijioari kalte egin diezaiokeenik. Gure misterioak gure frogapenen arras aurkakoak izanagatik, arrazoi eta fede gaiak izaera ezberdinekoak direla jakin badakiten filosofo kristauak ez dituzte, haatik, gutxiago ohoratzen. Filosofoek ez dute inoiz sekta erlijioso bat eratuko. Zergatik? Herriarentzat idazten ez dutelako eta gartsutasunik gabeak direlako.

Bana ezazue giza generoa hogeitazitan: hemeretzi euren eskuekin lan egiten dutenak dira, munduan Locke bat badela inoiz jakingo ez dutenak, gelditzen den hogeigarren

partean, bai zaila dela irakurtzen duten gizakiak aurkitzea! Eta irakurtzen dutenen artean, eleberriak irakurtzen dituztenak hogeia dira filosofia irakurtzen duen baten kontra. Pentsatzen dutenen multzoa sobera txikia da, eta horiek ez dira mundua nahasteaz arduratzen.

Ez da izan ez Montaigne, ez Locke, ez Bayle, ez Spinoza, ez Hobbes, ez Milord Shaftesbury, Collins Jn.a, ez Toland Jn.a etab., beren aberrian diskordiaren zuzia eramanez dutenak; teologoak dira, gehienbat, aurrena sekta buru izateko handinahia ukanik, berehala alderdi buru izatekoa ukan dutenak. Zer diot!, filosofo modernoek liburu guztiak batera ipinita inoiz ez dute soilik hainbesteko zaratarik egingo behinola sokagileen eztabaidak egin zuena baino, euren mahukaren eta euren txanoaren forma zela eta.

HAMAHIRUGARREN GUTUNAREN LEHEN ERANSKINA

Arimari eta Locke Jn.ari

buruzko gutunak

(XIII. gutunaren lehen idazketa)

Aitortu beharrean naiz, Aristoteles hutsezina, Platon jainkozkoa, Doktore sotila, Doktore aingerutiarra irakurri ditudanean, izengoitizat hartu izan ditudala epiteto horiek. Giza arimaz mintzatu diren filosofoetan ez dut ausardia eta berritsukeriaz beterikoitsuak besterik ikusi, hitzez hitz sinesten dieten besteitsu jakinahi eta ergelei arrano ikusmena dutela sinestarazten ahalegintzen direnak, eta beroriek ere zerbait badakusatela berehala uste dutenak.

Descartes eta Malebranche errakuntza maisu horien mailan ezartzeko itxurarik ez dut egingo. Aurrenekoak ziurtatzen digu pentsatzea berezko izaeratzat daukan substantzia bat dela gizakiaren arima, beti pentsatzen ari dela, eta bere amaren sabelean, gero ahanzten zaizkion ideia metafisiko ederrez edo axioma orokor bikainez diharduela.

Aita Malebrancheri dagokionez, uste osoa du dena Jainkoaren baitan ikusten dugula; aurkitu du aldekorik, zeren eta alegiarik ausartenak jasotzen baititu ongien gizakien irudimen ahulak. Beraz, filosofo batek baino gehiagok egin du arimaren eleberria; etorri da azkenik jakitun bat haren kondaira apalki idatzi duena. Historia honen laburpena egitera noakizu, nik ulertu dudana eran. Oso ondo dakit ez dela mundu guztia Locke Jn.aren ideiekin bat etorriko: litekeena da Locke Jn.ak arrazoi izatea Descartes eta Malebrancheren aurka eta oker egotea Sorbonaren aurka; ez naiz ezeren erantzule; filosofiaren argien arabera mintzo naiz eta ez fedearen errebelazioen arabera. Gizatiarki pentsatzea baino ez dagokit niri; teologoek jainkotiarki erabakitzen dute, gauza guztiz ezberdina dena. Arrazoiak eta fedeak izaera kontrajarria dute. Hona hemen, hitz batez, Locke Jn.aren laburpen txiki bat, teologo banintz zentsuratuko nukeena, eta une batez hipotesi hustzat, filosofia soileko aieratzat hartzen dudana.

Gizatiarki hitz eginez, arima zer den jakitea da kontua.

1. Arima hitza ulertu gabe edozeinek ahoskatzen duen hitz horietako bat da; beren ideia bat dugunean bakarrik ulertzen ditugu gauzak: ez dugu arimaren izpirituaeren ideiarik; beraz ez dugu berau ulertzen.

2. Atsegin izan zaigu, beraz, pentsatzeko eta sentitzeko ahalmen honi arima deitzea, ikusteko ahalmenari ikusmena deitzen diogun bezala, nahi izateko ahalmenari nahimena, etab.

Arrazonatzaileak etorri dira jarraian, esan dutenak: "Gizakia materia eta izpirituz osatua dago; materia hedatua eta zatigarria da, izpiritua ez da ez hedatua ez zatigarria; beraz, diote, beste izaera batekoa da; beraz bata bestearekiko eginak ez diren izakien multzaketa bat da, eta beren izaera gorabehera Jainkoak batzen dituen. Gorputza gutxi ikusten dugu, baina arima ez dugu batere ikusten; ez du puskarik. Beraz betierekoa da; ideia garbi eta izpiritualak ditu; beraz ez ditu materiatik hartzen; beraz Jainkoak ematen dizkio; hortaz jaiotzerakoan berarekin dakartza Jainkoaren, infinituaren ideiak, eta ideia orokor guztiak".

Gizatiarki mintzatuz betiere, oso jakintsuak direla erantzuten diet jaun horiei. Lehenengo arima bat dagoela suposatzen dute eta gero nolakoa izan behar duen esaten digute; materia hitza ahoskatzen dute, eta ondoren zer den erabakitzen dute argiro. Nik zera esaten diet: ez duzue ez izpiritua ez materia ezagutzen; izpiritua, ezin dezakezue pentsatzeko ahalmena baizik imajina; materia, ezin dezakezue kualitate, kolore, hedadura, sendotasun multzo bat besterik uler; eta horri materia deitzeko gogoia ematen dizue, eta materiaren eta arimaren mugak ezarri dituzue bataren eta bestearen izateaz bederen ziur egon aurretik. Materiari dagokionez, beronengan hedatua eta sendotasuna

baizik ez dagoela irakasten duzue seriotasunez, nik apalki esango dizuet ez zuek eta ez nik ezagutzen dugun hamaika propietateren jabe dela. Arima zatieza, betikoa dela diozue, eta honela hain zuzen auzipean dagoena aurrematen duzue.

Bere bizitzan erlojurik ikusi ez, eta bat-batean bere eskuetan Ingalaterrako errepikapen erlojua izango lukeen eskola-maisu bat bezalakoxeak zarete. Gizon hau, peripatetiko ona, harritu egiten da denbora zatitu eta markatzen duten orratzen zehaztasunaz, eta are harritzenago da behatzaz sakatutako botoi batek orratzak seinalatutako ordua prezeski joarazten duela ikusirik. Nire filosofoak atzeman ere atzematen du makina honetan badela berau gobernatu eta bere eragingailuak higiarazten dituen arima bat, bere iritzia jakintsuki frogatzen du zeruko esferak abiarazten dituzten aingeruekin konparatuz, eta bere ikasgelan erlojuen arimaz tesi ederrak sostengarazten ditu. Bere ikasleetako batek erlojua du irekitzen: erresorteak besterik ez dira ikusten, eta halere arimaren sistemari eusten zaio beti, frogatutzat jotzen delarik. Neu nauzu ikasle hori: ireki dezagun gizakia deitzen diogun erlojua, eta ezagutzen ez duguna ausarki definitu beharrean, saia gaitezen ezagutu nahi duguna mailaka arakatzeko.

Har dezagun haur bat bere jaiotunean, eta jarrai gakizkion pausoz pauso bere adimenaren aurrerabideari. Gorputz horretan kokatzeko, Jainkoak arima bat sortzen bere burua nekarazi duela irakasteko ohorea egiten didazue.

Sei aste inguru ditunean arima iristen da, eta horra hor ideia metafisikoz horniturik, Jainkoa, izpiritua, infinitua, ideia abstraktuak argi eta garbi ezagutuz, hitz batean pertsona txit jakintsua izanik. Baina zoritxarrez erabateko ezjakintasunaz jaiotzen da umontzitik, 18 hilabete pasatzen ditu bere unidearen titia besterik ezagutu gabe, eta 20 urterekin arima honi, bere gorputzarekin bat egiterakoan zeuzkan ideia zientifiko guztiak gogorarazi nahi zaizkionean, askotan hain hertsia egon ohi da ezin duela bat ere jaso. Badira herri osoak, ideia horietako bat bera ere izan ez dutenak: egiazki, zertan pentsatzen zuten Descartesen arimak eta Malebrancherenak, horrelako ameskeriak irudikatzen zituztenean?

Jarrai gakizkion bada haurtxoaren historiari; filosofoen irudipenetan gelditu gabe. Haren amak berau eta beronen arima erditu dituen egunean, txakur bat, katu bat eta kanario bat ere jaio dira etxean. Hiru hilabeteren buruan, minueto bat erakusten diot kanarioari, urte t´erdiren buruan ehiztari bikain bihurtzen dut txakurra, katuak sei asteren buruan bere jakituria guztiak egiten ditu, eta haurrak lau urteren buruan ez du ezertxo ere egiten. Nik, gizon arrunta, ezberdintasun miragarri honen lekuko, haurrik inoiz ikusi ez dudana, lehenik uste dut txakurra, katu eta kanarioa izaki burutsuak direla, eta haurtxoa automata bat dela; haatik, poliki-poliki konturatzen naiz haur horrek ere baduela ideiarik, oroimenik, eta animalia hauen grina berak dituela, eta orduan aitortzen dut, berorien gisa, arrazoizko izaki bat dela. Ideia ezberdinak komunikatzen dizkit ikasi dituen hitz batzuen bidez, nire txakurrak mota askotako oihuen bidez bere behar ezberdinak zehatz-mehatz adierazten dizkidan bezalaxe. Ohartzen naiz sei edo zazpi urteko adinarekin haurrak bere burmuintxoan ia nire ehizatxakurrak berean adinbat ideia konbinatzen dituela. Azkenean adinarekin ezagutza kopuru amaigabea lortzen du. Orduan zer pentsatu behar dut berataz?, izaera zeharo ezberdinekotzat joko al dut? Ez, noski; ezen zuk, alde batetik ergel bat eta bestetik Newton Jn.a ikusten dituzun horrek, diozu, ordea, izaera berekoak direla; arrazoi handiagoz esan beharko nuke nik nire txakurra eta nire haurra funtsean mota berekoak direla, eta gehiago edo gutxiagoaren aldea dagoela bakarrik. Nire iritzia probablearen egiantzaz seguruago egoteko, beren lo aldian eta itzarrik arakatzeko ditut nire haurra eta nire txakurra. Sobera odolustutzen ditut bata zein bestea, hala beren ideiak beren odolarekin batera isurtzen direla ematen du. Egoera honetan hotsegiten diet eta ez didate erantzuten; eta oraindik zenbait ontza

ateratzen badiet, nire bi makinek, ordubete lehenago anitz ideia eta era guztietako grinak zituztenek, ez dute inolako sentimendurik edukiko jadanik.

Aztertzen ditut orobat nire bi animaliak lo dauden bitartean; txakurrak, gehiegi jan ondoren, ametsak dituela ohartzen naiz; ehizatu eta oihu egiten du bere ehiziaren atzetik. Nire mutil gaztea kasu berdinean dagoenean, bere maitaleari mintzo zaio eta ametsetan amodioa du egiten. Batak zein besteak neurritz jan badute, ez du ez bata ez besteak ametsik egiten; azkenik, ikusten dut sentitzeko, hautemateko, ideiak adierazteko beren ahalmena pixkanaka-pixkanaka garatu dela eurengan eta mailaz maila ahultzen dela orobat. Beren artean ehun bider harreman gehiago nabaritzen ditut halako gizaki adimentsuaren eta beste halako gizaki erabat ergelaren artean baino.

Zein da bada bere izaeraz edukiko dudan iritzia? Herri guztiek ukan dutena egiptoar politikak arimaren izpiritualtasuna eta hilezintasuna irudikatu baino lehen. Susmatuko nuke, baina itxura guztiak alde izaki, Arkimedes eta sator bat mota berekoak direla, nahiz eta jenero ezberdinekoak; arte bat eta ziape ale bat printzipio berberaz osaturik dauden era berean, nahiz bata zuhaitz handia den eta bestea landare txikia.

Pentsatuko nuke Jainkoak adimen zatiak eman dizkiela pentsatzeko eratutako materia zatiei: uste izango nuke materiak bere zentzumenen fineziaren arabera pentsatu duela, beroriek baitira gure ideien ateak eta neurria; uste izango nuke maskor ostrak nik baino izpiritu gutxiago duela, nik baino sentsazio gutxiago baitu, eta uste izango nuke sentsazio eta zentzumen gutxiago dituela zeren eta arima bere maskorrari itsatsita edukirik, bost zentzumenak alferrekoak bailituzke. Abere asko dago bi zentzumen baino ez dituztenak; guk bost dauzkagu, gauza urria dena; uste izatekoa da beste mundutan egongo direla hogeit edo hogeita hamar zentzumenez gozatzen duen beste animaliarik, eta beste espezie, are perfektuagorik, mugarik gabeko zentzumenak dituztenak.

Iruditzen zait hau dela arrazoiak azaltzeko, hots, igartzeko eta susmatzeko erarik naturalena. Segurki, denbora asko igaro da gizakiak guregan dagoen Izaki ezezaguna, guregan guztia egiten duena, erabat gu ez dena, eta gure alboan bizi dena irudikatzeko bezain jeinutsu bilakatu aurretik. Mailaka baino ez gara iritsi ideia hain bipila sortzera. Lehenik arima hitzak bizitza adierazi izan du, eta amankomuna izan da guretzat eta beste animalientzat, gero gure harrokeriak aparteko arima bat eginarazi digu eta beste kreaturentzat indar substantzial bat irudikarazi.

Giza harrokeria honek galdegingo dit zer den, bada, hauteman eta sentitzeko ahalmen hori, gizonarengan arima, eta aberearengan sena deritzona. Unibertsitateek irakasten didatenean zer den higidura, soinua, argia, espazioa, gorputza, denbora, asebeteko dut galdera hau. Locke Jn. jakitunaren izpiritua esango dut: "Fisikaren zuzia falta zaigunean tenk egitean datza filosofia". Naturaren ondorioei behatzen diet, baina aitortzen dizuet ez ditudala lehen printzipioak zuek baino hobeto oldozten. Dakidan guztia zera da, ez dietela egotziko kausa batzuei, batez ere kausa ezezagunei, kausa ezagun bati egotz diezaiokedana: alta bada, pentsatu eta sentitzeko ahalmena egotz diezaioket nire gorputzari; beraz, ez dut bilatu behar ahalmen hau arima, edo izpiritua deituriko beste Izaki batean, haren ideiarik txikiena ere ez baitezaket eduki. Oiuhu egingo duzue proposamen hau dela eta, erlijio gabetzat joko duzue gorputzak pentsatu egin dezakeela esatera ausartzea. Baina zer esango duzue, erantzungo lizueke Locke Jn.ak, zeuok bazinete erlijioezaren errudunak, Jainkoaren ahalatasuna mugatzera ausartzen zaretenok? Eta zein gizaki da lurgainean zentzugabeko fedegabekeriarik gabe segurta dezakeena Jainkoari ezina zaiola materiari sentimendua eta pentsamendua ematea? Ahul eta ausartak zaretenez, materiak ez duela pentsatzen aitzinatzen duzue, ez baituzue uste substantzia hedatu batek pentsa dezakeenik, eta uste al duzue agian substantzia batek, edozein dela ere, pentsa dezakeenik?

Jainkoaren ahalaz erabakitzen duzuen filosofo handiok eta Jainkoak harri batetik aingeru bat egin dezakeela diozuenok, ez al duzue ikusten, zeuen arabera, Jainkoak kasu horretan ez lukeela egingo harri bati pentsatzeko ahalbidea eman besterik?; bada, harriaren materialak ez balu iraungo, ez litzateke izango aingeru bihurtutako harri bat, suntsitutako harri bat eta sortutako aingeru bailitzateke. Itzultzen zaretan aldera itzultzen zaretela, bi gauza aitortu beharrean zarete, zeuen ezjakintasuna eta kreatzailearen ahalatasun baztergabea: materia pentsatzailearen kontra erreboltatzen den zeuen ezjakintasuna, eta hori zinez ezinezkoa ez zaion kreatzailearen ahala.

Zuek, materia ez dela suntsitzen dakizuenok, ukatu egingo ote diozue Jainkoari, materia honetan, hornitu zueneko kualitatetik ederrena gordetzeko ahalmena? Berari esker, hedadurak iraun egiten du noski gorputzik gabe ere, zeren eta bada hustasunean sinesten duen filosoforik; akzidentek noski substantziarik gabe irauten dute transubstantiazioan sinesten duten kristauetan. Jainkoak, diozue, ezin du kontradiziorik duen ezer egin. Hori egia da, baina materia pentsatzailea gauza kontraesankor bat dela jakiteko, zuek dakizuen baino gehiago jakin beharko litzateke; egiten duzuen egiten duzuela, inoiz ez duzue beste ezer jakingo, gorputz zaretela eta pentsatu egiten duzuela baizik.

Eskolan ezertaz ez dudatzen ikasi duen anitz jendek, beren silogismoak orakulutzat eta beren superstizioa erlijiotzat hartzen dutenek, fedegabe arriskutsutzat daukate Locke Jn.a. Beldurtiak armada batean bezala dira superstiziotsuak gizartean: beldur ikaragarriak dituzte eta eragiten dituzte.

Izuikarak aienatzeko gupida behar da, beharrezko da jakin dezaten inoiz ere ez direla filosofoen sentimenduak izango erlijioari kalte egingo diotenak.

Segurua da eguzkitik datorrela argia eta planetak astro honen biran dabiltzala: hala ere, ez da Biblian jainera gutxiagoz irakurtzen, eguzkiaren aurretik egina dela argia, eta eguzkia Gabaongo herriaren gainean gelditu zela.

Frogatua dago ostadarra euriaz osatua dela nahitaez, haatik ez da gutxiago errespetatzen, uholdearen ondoren, urterik gehiago ez zela izango adieraztearren, Jainkoak bere arkua lainoetan tinkatu zuela dioen testu sakratua.

Hirutasunaren misterioa eta Eukaristiarena, nahiz eta froga ezagunen aurkakoak izan, ez dituzte begirune gutxiagoz gurtzen filosofo katolikoek, bai baitakite arrazoimenaren eta fedearen gaiak izaera desberdinetakoak direla.

Antipoden nozioa Aita Santuek eta Kontzilioek gaitzetsi izan dute: erabaki hori gorabehera, kontzilioak eta Aita Santuak onartzen dituztenek aurkitu dituzte antipodak eta haietara eramanez dute Kristau erlijio hori berori, zeinen suntsipena ziurtzat jotzen baitzen gurekiko burua behean eta oinak goian (orduan esan ohi zenez) lituzkeen gizaki bat aurkitzerik legokeen kasuan, eta zeina, filosofo arras eskasa den San Agustinek dioen bezala, zeruan eroriko baitzatekeen.

Filosofoek inoiz ez diote kalterik egingo herri bateko erlijio nagusiari. Zergatik? Suharrak gabeak direlako eta herriarentzat idazten ez dutelako.

Bana ezazue giza generoa hogeitazitan; hemeretzi euren eskuekin lan egiten dutenak izango dira, munduan Locke bat badela inoiz jakingo ez dutenak; gelditzen den hogeigarren partean, irakurtzen duen zein gizaki gutxi aurkitzen den! Eta irakurtzen dutenen artean, eleberriak irakurtzen dituztenak hogeitaz dira filosofia ikasiko duen baten kontra; pentsatzen dutenen multzoa sobera txikia da, eta horiek ez dira mundua nahasteaz arduratzen.

Ez da izan ez Montaigne, ez Locke, ez Bayle, ez Spinoza, ez Hobbes, ez Milord Shaftesbury, ez Collins Jn.a, ez Toland Jn.a, etab., beren aberrian diskordiarren zuzia eramanez dutenak. Hauek, gehienbat, teologoak dira, aurrena sektaburu izateko handinahia ukanik, berehala alderdiburu izatekoa ukan dutenak. Zer diot! Filosofo

modernoen liburu guztiak batera ipinita inoiz ez dute soilik hainbesteko zaratarik egingo behinola sokagileen eztabaidak egin zuena baino, euren mangaren eta euren txanoaren forma zela eta.

Gainerakoan, Jauna, berriro diotsut askatasunez idazten dizudalarik, ez naizela inolako iritziren barne; ez dut ezeren erantzukizunik. Bada, beharbada, arrazoiketen ametsen artean lehentasuna emango niokeen zenbait ameskeria: baina ez dago bat ere Erljioari eta Aberriari bat-batean sakrifikatuko ez niekeenik.

XIII. GUTUNARI

BIGARREN ERANSKINA

Gai beraren jarraipena

(XIII. gutunaren amaiera 1748-1751az gero)

Eman dezagun dozena bat filosofo on irla batean, non ez baitituzte barazkiak baizik ikusi inoiz. Irla hau, eta batez ere hamabi filosofo on, oso zailak dira aurkitzen; baina, tira, zilegi da fikzio hau. Mirestu egiten dute landareen harietan zehar dabilen bizitza hori, galdu eta berehalaxe berriztatzen dela dirudiena; eta landareak nola sortzen diren, nola hartzen duten beren elikadura eta nola hazten diren gehiegi ez dakitenez, landare arima deitzen diote horri. -Zer ulertzen duzue landare arimaz?, esaten zaie. -Hitz bat da, erantzuten dute, hori guztia higiarazten duen eragingailu ezezaguna adierazteko balio duena.

"Baina ez al duzue ikusten, esaten die mekanikari batek, hau guztia berenez burutzen dela pisu, palanka, gurpil eta txirringen bidez? -Ez, esango dute gure filosofoek, argiztatuak badira. Bada landaretza honetan higidura arruntaz beste zerbait; badago ezkutuko ahalmen bat, elikarazten dituen izerdi hori ezelango bultzadarik gabe bereganatzeko landare guztiek daukatena; eta ahal hori, inolako mekanikak esplikarazten ez duena, Jainkoak materiari egin dion dohain bat dela eta ez zuek eta ez nik ulertzen dugu haren izaera".

Gisa honetan eztabaidatu ondoren, abereek aurkitzen dituzte azkenean gure arrazonatzaileek. "Oi, oi, diote, azterketa luze baten ondoren, hona hemen gu bezala eratutako izakiak! Badute oroimenik ezbairik gabe, eta maiz guk baino gehiago. Gure grinak dituzte; ezagumena dute; euren premiak adierazten dituzte; euren espeziea iraunarazten dute guk bezalaxe."

Gure filosofoek izaki hauetako batzuk disekatzen dituzte, bihotz bat, burmuin bat aurkitzen dute haietan. Zer?, diote, ezer alferrik egiten ez duen makina hauen egileak, sentimen organo guztiak eman ote dizkie sentimendurik izan ez zezaten? Absurdua litzateke hori pentsatzea. Badago haietan benetan zerbait geuk ere, hoberik ezean, arima deitzen duguna; sentsazioak dituen zer edo zer eta nolabaiteko ideia neurri bat duena. Baina printzipio hori, zein da? Materiaren aldean zeharo desberdina den zerbait? Izpiritu soil bat ote da? Bitarteko izaki bat ote da, ezer gutxi ezagutzen dugun materiaren eta ezagutzen ez dugun izpiritu hutsaren artean? Jainkoak materia eratuari emandako berezkotasun bat ote da?

Esperientziak egiten dituzte orduan intsektuekin, zizareekin; zenbait zatitan ebakitzen dituzte, eta harriturik geratzen dira ebakitako zati horiei guztiei zenbait denboraren epean buruak ateratzen zaizkiela ikusirik; animalia bera birsortu egiten da eta bere suntsipenetik beretik ugaltzeko ahalmena ateratzen du. Arima ugari ote ditu, birsortutako zati horiei bizia emateko lehen gorputzenberrari burua moztu zai daudenak? Ostoz berriak eman eta txertaketaz birsortzen diren zuhaitzen antza dauka; arima bat baino gehiago al dute zuhaitz horiek? Ezetz dirudi; beraz oso litekeena da abere horien arima landareetan landare arima deitzen diogunaz bestelakoa izatea; maila goragoko ahalmen bat baita, Jainkoak materia zati batzuei ematea ontzat hartu duena; bere ahalasunaren froga berri bat da, bera adoratzeko zio berri bat da.

Gizaki zakar eta arrazonatzaile txar batek diskurtso hau entzun eta esaten die: "Gaiztagin batzuk zarete, gure arimaren onerako gorputzak erre beharko litzaizkizuenak, giza arimaren hilezkortasuna ukatzen baituzue"! Gure filosofoek elkarri begiratzen diote zur eta lur eginik: haietako batek eztiki dio erantzuten: "Zergatik erre gu hain azkar? Zer dela eta pentsatu ahal izan duzu zure arima gupidagabea hilezkorra delakoan gaudela? -Zera uste duzulako, berrekiten dio bestea, Jainkoak, gure moduan antolatuta dauden abereei sentimenduak eta ideiak izateko ahalmena eman diela. Bada, animalien arima ere beraiekin hiltzen da, beraz gizakien arima ere hil egiten dela uste duzu".

Filosofoak erantzun: "Ez gaude inola ere ziur abereetan arima deritzoguna eurekin hiltzen ote den, ongitxo dakigu materia ez dela galtzen, eta uste dugu balitekeela animalietan Jainkoak beti atxikiko duen zerbait jarri izana, Jainkoak nahi badu, ideiak edukitzeko ahalmena. Ez dugu ziurtatzen, hurbiltzekorik ere, gauza hala denik, ez baitagokie gizakiei horren fidakorrak izatea; baina ez gara ausartzen Jainkoaren ahala mugatzera. Esaten dugu oso litekeena dela animaliek, materia izaki, Harengandik adimenduaren berezitasuna hartu izana. Egunero aurkitzen ditugu materiaren tasunak, hots, lehen bururatzen ez zitzaizkigun Jainkoaren dohainak; lehenbizian substantzia hedatutzat definitu genuen materia; gero sendotasuna erantsi behar zitzaiola eman dugu ontzat; pixka bat geroago, materia honek indar bat daukala onartu behar izan da, inertzi indarra deritzona; horraz gero txit harriturik geratu gara materiak grabitatu egiten duela aitortu behar izanaz. Geure ikerketak are urrunago eraman nahi izan ditugunean, zenbait gauzatan materiaren antza duten izakiak errekonozitu beharrean izan gara, ez dituztenak ordea materia horniturik dagoeneko beste atributoak.

Oinarritzko suak, adibidez, gainerako gorputzek bezala eragiten du gure zentzumenen gain, baina ez du erdigune baterantz jotzen haiek bezala, alderantziz, zentrutik ihesi doa lerro zuzenetan alde guztietara. Ez dirudi erakarmenaren, grabitazioaren legeei obeditzen dienik, beste gorputzek bezala. Badira, azkenik, optikazko misterioak, zeinen arrazoa biziki ematerik ez dagoen, argi-izpiak bata bestean barneratzen direla suposatzen ausartuz ez bada. Ezen eta bostehun mila gizaki alde batetik eta beste hainbat bestetik dorre baten gainean legokeen kolore nabarreko gauzaki txiki bati begiratzen badiote, beharrezko da beste horrenbeste izpi eta mila milioi gehiago irten daitezen puntutxo koloretsu horietatik; elkar gurutzatu behar lukete guztiek begietara iritsi baino lehen: bada, nola iritsiko lirateke bakoitza bere kolorearekin bidean nahasketatuz? Bata bestearen barruan sar daitezkeela susmatu behar da ezinbestez; elkar barneratzen badute, ordea, materia ezagunetik oso desberdinak dira. Badirudi argia gorputzen eta ezagutzen ez ditugun beste izaki mota batzuen artean tarteko izaki bat dela. Guztiz daitekeena da beste mota horietxek berak ere beste izakietara daraman bitarteko bat izatea, eta infinitura igotzen diren substantzien katea bat egotea honela.

Usque adeo quod tangit idem est, tamen ultima distant

Ideia hau Jainkoaren handitasunaren duina iruditzen zaigu, haren duinik ezer bada. Substantzia horien artean, dudarik gabe bat hautatu ahal izan du gure gorputzetan ezarri duena, eta giza arima deitzen zaiona; materia gabeko substantzia hau hilezkorra da. Honetaz zalantzarik txikiena izatetik urrun gaude, baina ez gara baieztera ausartzen izaki guztien jaun absolutu honek materia deituriko izakiari sentimenduak eta oharmenak ere eman ez diezazkiokela. Zu oso ziur zaude zeure arimaren funtsa pentsatzea dela eta gu ez gaude hain seguru, ezen umekia ikertzen dugunean, zailtasunak ditugu haren arimak bere kofian ideia asko dituela sinesteko; eta zalantza handiak ditugu amets oso eta sakon batean, lozorro bete-betea, gogoetarik egin denik inoiz. Honela iruditzen zaigu pentsamendua, izaki pentsatzailearen esentzia ez, baizik eta guk pentsatzaileak deitzen diegun izaki horiei Jainkoak egin dien dohain bat izan

litekeela, eta honek guztiak susmo hau sorrarazi digu, nahi izango balu, atomo bati egin liezaiokeela opari hori, eta betiko iraunarazi atomo hori eta bere oparia, edo bere gogoz suntsitu. Zailtasuna gutxiago datza materiak nola pentsa lezakeen asmatzean, zeinahi substantziak nola pentsatzen duen asmatzean baino. Zuk ideiarik ez duzu Jainkoak eman nahi izan dizulako baizik; zergatik eragotzi nahi duzu beste espezieei eman diezazkien? Zeure arima prezeski jainkotasunera gehien hurbiltzen diren substantzien materia berekoa dela sinesteko bezain ausarta izango ote zinateke? Itxura guztien arabera badirudi maila askoz goragokoak direla horiek, eta ondorioz, beraiei pentsatzeko era infinituki ederragoa ematea ontzat hartu duela Jainkoak; zu baino maila apalagoko animaliei ideia neurri oso eskasa eman dien gisa berean. Honetan guztian ba al da ezer zure arima hilkorra dela ondorioztatu ahal izateko? Berriro ere, zuk bezala pentsatzen dugu zure arimaren hilezkortasunaz; ezjakinegiak garela uste dugu, ordea, Jainkoak gogo duen harako izaki bati pentsamendua emateko ahalmenik ez daukala baiezteko. Amaigabea den Kreatzailearen ahalmena mugatu nahi duzu zuk, eta beraren izatea hedatzen den bezain urrun hedatzen dugu guk. Barkaiguzu hura ahalguztiduntzat jotzea, beraren boterea txikitzea barkatzen dizugun bezala. Zuk badakizu, noski, hark egin dezakeen guztia eta guk ez dakigu ezer. Bizi gaitezen senide gisa, adora dezagun bakean geure Aita amankomuna; zuek zeuron arima jakintsu eta ausartekin; guk geuron arima ezjakin eta herabetiekin. Egun bat bizi behar dugu lurgainean, pasa dezagun eztiki, bihar hasiko den bizitza hilezkorrean argituko diren zailtasunengatik burrukan aritu gabe.

Filosofoek ezin dutela inoiz kalterik egin

Basatik, erantzuteko ezer egokirik ez izaki, asko hitz egin zuen, eta luzaroan egon zen haserre. Gure filosofo gaixoez historia irakurtzeari ekin zioten zenbait astetan, eta franko irakurri ondoren, hona hemen zer esan zioten arima hilezkorra edukitzeaz hain duineza zen basati honi: "Ene adiskide, irakurria dugu antzinate osoan gure garaian bezain ongi gertatzen zirela gauzak; bazela bertute handiagorik ere eta ez zitzaizela filosofoei beraiek zituzten ideienengatik eraso egiten; zergatik bada, zuk, kalte egin nahi zeniguke ez ditugun iritziengatik? Aintzinate osoak materia betierekoan sinesten zuela irakurtzen dugu. Sortu dela ikusi dutenek, bakean utzi dituzte besteak. Pitagoras oilarra izan zen, bere gurasoak zerriak, inork ez zuen zer arbuiatu izan, eta haren sekta mundu guztiak maitatu eta gurtu izan zuen, haragi erretzaileek eta baba saltzaileek izan ezik³³.

Estoikoek Jainko bat ezagutzen zuten, geroztik spinozistek hain ausartki onartu izan dutenaren antzekoxea; estoizismoa, alabaina, akreditatuena eta bertute harrigarritan joriena izan zen.

Epikurotarrek gure kalonjeen antzekoak egiten zituzten beren jainkoak, haien gizentasun nagia jainkotasunari eusten baitio eta bakean hartzen baitute beren nektarra eta beren anbrosia ezertan sartu gabe. Epikurotar horiek ausartki irakasten zuten arimaren materialtasuna eta hilezkortasuna. Ez ziren hargatik gutxiago preziatuak izan. Lanbide guztietan onartuak ziren, eta beren atomo kakodunek ez zioten inoiz kalterik egin munduari.

Platondarrek, gimnosofisten³⁴ ereduari jarraiki, Jainkoa bera gu eratzera beheatu zela suposatzeke ohorerik ez ziguten egiten. Hark, beraien iritziz, bere ofizialeei utzi zien eginkizun hau, beren lanean trakeskeria asko egin zuten jeinuei. Platondarren jainkoa langile bikain bat zen, mundu honetan ikasle aski erdipurdikoak erabili zituen. Gizakiek ez dute hargatik gutxiago gurtzen Platonen eskola.

Hitz batean, greziar eta erromarretan, zenbat sekta hainbat pentsamolde Jainkoaz, arimaz, iraganaz eta geroaz; horietako sekta bat ere ez zen pertsegitzaila izan. Guztiak tronpatzen ziren, horrek atsekabetzen gaitu; baina denak baketsuak ziren eta hori da nahasten gaituena; hori da kondentzen gaituena; horrek erakusten digu gaurko arrazoitzaile gehienak munstroak direla eta antzinakoak gizakiak zirela.

Erromako teatroan agerrian abestu ohi zen: Post mortem nihil est; ipsaque mors nihil. "Heriotzaren ostean ezer ez dago; heriotza bera ezer ez da". Sentimendu hauek ez zituzten gizakiak ez hobeak ez gaiztoagoak bihurtzen; dena gobernatzen zen, dena gertatzen zen arruntki; Titoek, Traianoek, Marco Aurelioek jainko ongile gisa gobernatzen zuten lurra.

Greziar eta erromarretatik nazio barbaroetara pasatzen bagara, gera gaitezen soilik juduetan. Herri miserable hori denik eta superstiziotsuena, krudelena eta ezjakinena zelarik ere, patuaren halabeharra eta metenpsikosia onartzen zituzten fariseoak ohoratzen zituzten halere; errespetua zien baita ere saduzeoei, arimaren hilezkortasuna eta izpirituen existentzia erabat ukatzen zituztenei eta Moisesen legean oinarritzen zirenei, zeinak ez baitzuen inoiz hitz egin heriotz osteko gaztiguaz edo sariaz. Esenioek, halabeharrean sinesten zutenak baita ere, eta tenpluan biktimarik inoiz ere sakrifikatzen ez zutenak, fariseoak eta saduzeoak baino ere gurtuagoak ziren. Beren iritzietako batek ere ez zuen inoiz gobernua asaldatu. Bazen han, ordea, elkarri lepoa moztu, erre eta hiltzeko zergatirik, nahi izan balute. Oi, gizon miserableok!, balia zaitezte eredu horietaz! Pentsa eta pentsatzen utz ezazue. Biziera labur honetan gure izpiritu ahulen kontsolamendua da. Zer! Adeitsuki hartzen duzue Mahomak ilargira bidaiatu duela sinesten duen turko bat; Bonneval Baxari higuin emateaz ongi zainduko zarete; eta zeuen anaia zati-zati egin nahi al zenduteke Jainkoak kreatura orori adimena eman liezaiokeela uste duelako? "Honela mintzatu zen filosofoetako bat; beste batek erantsi zuen: "Sinets iezadazue,[inoiz ez da ...]"³⁵.

HAMALAU GARREN GUTUNA

Descartes eta Newton³⁶

Londresa iristen den frantseak oso aldaturik aurkitzen ditu gauzak bai filosofian bai gainerako guztian ere. Mundua beterik utzi du; hutsik aurkitzen du. Parisen, materia sotilezko zurrumbiloz osaturik ikusten da unibertsoa; Londresen, ez da horrelako ezer ikusten. Gurean, ilargiaren presioa da itsasoaren higidura eragiten duena; ingelesen artean, itsasoa da ilargia erakartzen duena; halako moldez non ilargiak itsasgora eman behar ligukeela uste duzunean, itsasbehera izan behar duelakoan baitaude jaun horiek, zoritxarrez egiaztatu ezin daitekeena, zeren eta, hori argitzeko, ilargia eta mareak miatu beharko ziratekeen kreazioaren lehen unean.

Ohartuko zarete gainera eguzkiak, Frantzia gai honetan zerikusirik ez duenak, laurden batean laguntzen duela gutxienez hemen. Zuen, kartesiarron artean, ulertezina den bulkada batez gertatzen da dena; Newton baitan, erakarmen batengatik da, zeinaren kausa ez baita hobeki ezagutzen. Parisen, meloi baten gisa egina irudikatzen duzue lurra; Londresen, alde bietatik zapala da. Argia, kartesiar batentzat, airean existitzen da; newtondar batentzat, eguzkitik dator sei minutu t'erdian. Zuen kimikak azidoez, alkaliez eta materia sotilaz burutzen ditu bere eragiketa guztiak: erakarmena da nagusi are kimika ingelesean ere.

Gauzen zer-izana bera erabat aldatu da: ez zarete bat etorriko ez arimaren definizioari buruz ez materiarenari buruz. Descartesek ziurtzat ematen du arima eta pentsamendua gauza bat bera direla, eta Lockeek aurkakoa frogatzen du nahiko ondo.

Descartesek ziurtzat ematen du ere hedadurak ez bestek egiten duela materia, Newtonek sendotasuna eransten dio horri. Horra hor kontraesan haserreko batzuk.

Non nostrum inter vos tantas componere lites

Newton ospetsu hau, sistema kartesiarraren suntsitzaile hau, iaz, 1727ko martxoan hil zen. Bere aberrikideek ohoratua bizi izan da, eta bere menpekoei on egin ziezaiekeen errege baten antzera ehortzia izan da.

Antsiaz irakurri dute hemen, eta ingelesera itzuli dute Fontenelleko Jaunak Newtoni buruz Zientzien Akademian egin duen goresmena. Ingeles filosofiaren nagusitasunaren aitormen arranditsu bat bezala itxaroten zen Ingalaterran Fontenelleko Jaunaren irizpena; baina Descartes Newtonekin konparatzen zuela ikusi denean, Londreseko Errege Elkarre osoa asalatu da. Onetsia izatetik urrun kritikatu izan da hitzaldi hori. Zenbatzuk gainera (eta horiek ez dira filosofoenak) txundiarazi egin ditu konparaketa honek Descartes frantsesa zelako bakarrik.

Aitortu beharra dago bi gizaki handi hauek bata bestearengandik oso bestelakoak izan direla beren jokabidean, beren tankeran eta beren filosofian.

Descartes irudimen bizi eta indartsukoa jaio zen, bai bere bizitza pribatuan bai bere arrazoitzeko eran gizaki berezi bilakarazi zuena; irudimen hau ezin da ezkutatu ezta bere obra filosofikoetan ere, non une guztietan konparaketa adimentsu eta distiratsuak aurkitzen baitira, naturak ia poeta bat bihurtu zuen, eta izan ere bertsoetako divertimento bat paratu zuen Suediako erreginarentzat, bere oroimenaren ohorez inprimarazia izan ez dena.

Aldi batez gerraren ofizioan entseiatu zen, eta gero osoki filosofo bihurturik, ez zuen bere buruarekiko ezduintzat jo maitasuna egitea. Francine izeneko neska bat eduki zuen maitaletzat, gazterik hil zena, eta zeinaren galera biziki deitoratu baitzuen; hala, gizateriari dagokion oro frogatu zuen.

Askatasunean filosofatzeko, gizakietatik, eta bereziki beraren aberritik, ihes egin behar zela uste izan zuen luzaro. Arrazoi zuen; haren garaiko gizakiek ez zekiten hura ilustratzeko adina eta hari kalte egiteko baizik ez ziren gauza.

Frantzia utzi zuen, garai hartan Eskolako filosofia miserableak erasotzen zuen egia bilatzen zuelako; baina ez zuen arrazoi gehiago aurkitu Holandako unibertsitateetan, hara erretiratu baitzen. Ezen egiazkoak ziren bere filosofiako proposizio bakarrak Frantzian kondenatuak ziren garaian, hobekiago ulertzen ez zuten Holandako filosofo direlakoak ere erasotzen baizioten, eta, haren aintza hurbilagotik ikusiz, areago gorrotatzen baitzuten bere pertsona. Utrecht-tik irten beharra izan zuen; ateismo salaketa bat, kalumniatzaileen azken aterabidea jasan zuen; eta bera, Jainkoaren existentziaren froga berriak bilatzen bere izpirituaren ohartasun guztia erabili zuena, batto ez onartzeaz susmagarria izan zen.

Hainbat jazarraldik merezimendu handia eta berealdiko ospea suposatzen zuten: gisa honetan bata eta bestea ukan zituen benetan. Arrazoiak pixka bat zulatu ere egin zuen munduan Eskolako ilunbeetan eta herri superstizioaren aurriritzietan barna. Haren izenak azkenean hainbesteko zarata egin zuen ezen Frantziara erakarri nahi izan baitzuten errekonpentsa bidez. Mila ezkuturen pentsioa proposatu zitzaion, esperantza honekin etorri zen, orduan saldu ohi zen patentearen gastuak ordaindu zituen, ez zuen pentsioa lortu, eta ipar Holandako bere bakardadean filosofatzera itzuli zen, Galileo handia, laurogei urterekin, Inkisizioaren presondegietan auhenka ari zen garaian, lurraren mugimendua frogatu izanagatik. Azkenik Estokolmon hil zen heriotza goiztiarrez, eta sendabide txar batek eraginda, bere etsai ziren jakintsu batzuen erdian eta gorroto zion sendagile baten eskuen artean³⁷.

Newton zaldunaren bizialdia arras bestelakoa izan zen; laurogeita bost urte bizi izan da, beti lasai, zoriontsu eta ohoratua bere aberrian.

Bere zorion handia izan da herri libre batean ezezik, baita mutirikeria eskolastikoak baztertuak izan ziren eta arrazoia besterik lantzen ez zen garai batean ere jaio izana, eta mundua bere ikaslea baino izan ez zitekeenean, eta ez bere etsaia.

Descartesekiko duen aurkakotasun berezi bat zera da, bizitza hain luze baten ibilbidean zehar ez zuela ez grinarik ez ahuleziarik izan; ez zen inoiz inolako emakumerengana hurreratu: horixe egiaztatu dit sendagile eta zirujanoak, zeinaren eskuetan hil baitzen. Horregatik mirets daiteke Newton, baina ez da Descartes gaitzetsi behar.

Ingalaterrako herri iritzia filosofo bi horiei buruz, lehenengoa ameslari bat eta bestea jakintsu bat zelakoa da.

Londresen inor gutxik irakurtzen du Descartes, zeinaren obrak alferrikako bihurtu baitira egiaz; oso gutxik irakurtzen du Newton ere, txit jakintsua izan behar baita hura konprenitzeko; alabaina, mundu guztia mintzo da haietaz; ez zaio deus onartzen frantsesari, eta dena ematen zaio ingelesari. Zenbaitek uste du, baldin gaur hutsarekiko beldurrik ez badaukagu jadanik, baldin airea astuna dela badakigu, baldin hurreratzeko betaurrekoak badarabiltzagu, Newtoni zor zaiola. Alegiako Herkules da bera hemen, zeinari ezjakinek gainerako heroien egintza guztiak egozten baitzizkioten.

Londresen Fontenelleko Jaunaren hitzaldiaz egin den kritika batean, Descartes ez zela geometria handia aitzinatzaera ausartu izan dira. Honela mintzo direnek euren inudea jotzeaz sala ditzakete beren buruak; Descartesek geometria aurkitu zueneko puntatik eraman zueneko puntura egin duen bide hain luzea haren ondotik Newtonek egin duen bezainbatekoa da: kurben ekuazio algebraikoak burutzeko era aurkitu duen lehenbizikoa da. Haren geometria, berari eskerrak arrunta bihurtua gaur egun, hain sakona zen bere garaian, non ezein irakasle ausartu baitzen hura esplikatzen hastera, eta ez zegoen Holandan Schooten eta Frantzian Fermat baino hura ulertuko zuenik.

Asmaketa eta geometri izpiritu hau dioptrikara eraman zuen, zeina arte zeharo berria bilakatu baitzen bere eskuetan; eta zenbaitetan huts egin bazuen, lur berriak aurkitzen dituen gizaki batek haien tasun guztiak bat-batean ezagutu ez ditzakeelako da: haren ondotik datozenek eta lur horiek emankor egin dituztenek, aurkikundearen

merezimendua zor diote gutxienez. Ez dut ukatuko Descartes Jaunaren beste obra guztiak hutsegitez beterik daudenik.

Geometria nolabait berak eratu zuen gida bat zen eta ziuraski bere fisikan gidatuko ziokeena; halere, utzi egin zuen azkenean gida hori eta sistemaren izpirituari lotu zitzaion. Orduan bere filosofia eleberri burutsu bat besterik ez zen izan, eta gauzarik egiantzekoena ezjakinentzat. Erratu egin zen arimaren izateaz, Jainkoaren existentziaren frogez, materiaz, mugimenduaren legeez, argiaren izateaz: ideia ezsortuak onartu zituen, elementu berriak asmatu zituen, mundu bat sortu zuen, bere erara egin zuen gizakia, eta arrazoiz esan ohi da Descartesen gizakia ez dela Descartesena baizik, egiazko gizakitik oso urrundua.

Bi eta bi ez direla lau Jainkoak honela nahi izan duelako baizik esateraino eraman zituen bere errakuntza metafisikoak. Baina ez da gehiegi esatea are bere nahasmenduetan ere estimagarria zela baiezte. Tronpatu egin zen, baina metodoaz eta izpiritu kontsekuenteaz egin zuen gutxienez; bi mila urtez gero gazteria atzipetzen zuten funsgabeko kimerak birrindu zituen; haren garaiko gizakiei arrazoitzen eta bere armez bere kontra baliatzen erakutsi zien. Diru onez ordaindu ez bazuen ere, faltsua salatu izana asko da.

Ez dut uste, egiatan, haren filosofia Newtonarekin ezertan alderatu nahi denik: lehenengoa saio bat da, bigarrena maisulan bat. Alabaina egiaren bidean jarri gaituenak, gero lasterketa honen bururaino heldu denak adina balio du agian.

Descartesek ikusmena eman zien itsuei, antzinateko hutsegiteak eta berarenak ikusi zituzten. Hark zabaldu zuen errepidea amaigabeko bilakatu da harez gero. Rohauten liburuxka fisika guztia izan da denboraldi batean; gaurregun, Europako akademien bildumek ez dute sistema hasiera bat ere egiten: eta leize hau sakonduz, mugagabea dela ikusi da. Newton Jn.ak amildegi hau zenbateraino industu duen ikustea da orain kontua.

HAMABOSGARREN GUTUNA

Erakarmenaren sistemaz

Newton zaldunaren aurkikuntzek, hain ospe handia eman diotenek, munduaren sistemari, argiari, geometriari infinituari, eta azkenik, atsedean hartzearen jolastu izan zeneko kronologiari buruz ari dira.

Esatera noakizu (hitz jariokeriarik gabe, ahal badut) zein gutxi atzeman izan dudana ideia goitiar hauetatik guztietatik.

Gure munduaren sistemari dagokionez, aspaldidanik eztabaidatzen zen planeta guztiak birarazi eta beren orbitetan eutsarazten dituen kausari buruz, eta mundu honetan gorputz guztiak lurrazalerantz eraisten dituenari buruz.

Descartesen sistemak, beraren ondoren adieraziak eta arras aldatuak, fenomeno honen zentzuzko arrazoia ematen zuela zirudien, eta arrazoi honek hainbat egiazkoagoa zirudien ezen mundu osoarentzat sinplea eta ulergarria baita. Alabaina, filosofian errazegi ulertu uste denaz bezainbat mesfidatu behar da ulertzen ez diren gauzez.

Astuntasuna, lur gainera jaisten diren gorputzen erorketa azeleratua, planeten iraultza beren orbitetan, horien errotazioak beren ardatzaren inguruan, hau guztia higidura besterik ez da: higidura, ordea, bultzadaz baizik ez daiteke pentsatua izan; beraz, gorputz horiek guztiak bultzatuak dira. Baina zerk eragiten die? Espazio osoa beterik dago; beraz, materia txit sotilaz osatua dago, ez baitugu hautematen; beraz, materia hori Sortaldetik Sartaldera doa, planeta guztiak Sortaldetik Sartaldera erakarriak baitira. Halaber, irudipenez irudipen eta egituraz egitura, materia sotilezko zurrumbilo zabal bat imajinatu izan da, non planetak eguzkiaren biran eramana baitira; beste zurrumbilo berezi bat ere asmatu izan da, handian igeri dabilena, eta egunero planetaren inguruan birak ematen dituen. Hau guztia egin denean, astuntasuna eguneroko higidura horren menpe dagoela baietsi nahi da; ezen, esaten da, gure zurrumbilo txikiaren inguruan biraka dabilen materia sotilak lurra baino hamazazpi bider azkarrago joan behar baitu: beraz, lurra baino hamazazpi bider azkarrago baldin bada, indar zentrifugo gehiago eduki behar du konparaziorik gabe eta ondorioz gorputzak oro lurrerantz erakarri. Hona hemen astuntasunaren kausa sistema kartesiarrean.

Materia sotil horren indar zentrifugoa eta abiadura kalkulatu aurretik, ordea, bazela ziurtzat eman behar zen, eta izan bazela suposatuz, oraindik ere faltsua dela frogatua dago astuntasunaren kausa izan daitekeenik.

Newton Jn.ak erremediorik gabe suntsitzen dituela dirudi zurrumbilo handi eta txiki hauek guztiak, bai eguzkiaren inguruan planetak arrastatzen dituen, bai planeta bakoitza bere baitan birarazten duena.

Lehen-lehenik, lurreko zurrumbilo txiki delakoari dagokionez, bere higidura ezarizarian galdu behar duela egiaztaturik dago; lurra fluido batean igeri baldin badabil, egiaztaturik dago fluido hori lurraren dentsitate berekoa izan behar duela, eta fluido hori dentsitate bereko baldin bada, higiaraz ditzagun gorputz guztiek punta-puntako erresistentzia espermentatu behar dutela, hots, lurraren luzerako palanka bat beharko litzatekeela libra baten pisua altxatzeko.

2. Zurrumbilo handiei dagokienez, are kimerikoagoak dira. Adostezinak dira Keplerren arauekin, zeinen egia frogaturik baitago. Newton Jaunak erakusten du, ustez Jupiter arrastan daraman fluidoaren bira ez datorrela bat lurreko fluidoaren birarekin, nola Jupiterren bira baitator lurrekoarekin.

Egiaztatzen du, planeta guztiek beraien birak elipseetan egiten dituztenez, eta ondorioz bata bestetik askoz urrunago daudenez beraien afelioetan eta askoz hurbilago beraien perihelioetan, lurra esate baterako, lasterrago joan beharko lukeela Venusetik eta Martitzetik hurbilago dagoenean, arrastaka daraman isurkinak, zanpatuago egonik

orduan, mugimendu gehiago eduki behar baitu; eta, hala ere, orduantxe da hain zuzen lurraren higidura pausatuagoa.

Egiaztatzen du Sartaldetik Sortaldera doan materia zerutarrik ez dagoela, kometek nahiz Sartaldetik Sortaldera nahiz Iparretik Hegoara zeharkatzen baitituzte espazio gune horiek.

Azkenean, zailtasun oro, ahal bada, are hobekiago erabakitzeko, egiaztatzen du edo, gutxienez, probableago bihurtzen du, eta are esperientzien bidez ere, betetasuna ezinezkoa dela, eta Aristotelesen eta Descartesen mundutik jaurtiki zuten hustasuna ekartzen du atzera.

Arrazoi guztiongatik eta beste askorengatik, kartesianismoaren zurrumbiloak suntsituta, naturan ea baden printzipio ezkutu bat, batera gorputz zerutar guztien higidura eragin eta lurraren grabitatea sortzen duena inoiz ezagutu ahal izateaz etsitzen zuen. 1666an landara, Cambridgetik hurbilera, erretiraturik, bere lorategian paseatzen ari zelarik eta zuhaitz bateko fruituak erortzen ikusi zituen egun batean, hausnarketa sakon batera eramaten utzi zuen bere burua astuntasun hori dela-eta, zeinaren kausa hain luzaro alferrik bilatu izan baitute filosofo guztiek, eta zeinean misteriorik ere susmatzen ez baitu jende arruntak. Bere baitan esan zuen: "Gure hemisferioan gorputz horiek edozein altueretatik erortzen direla ere, Galileok aurkituriko progresioan izango litzateke noski erorkera; eta haiek ibilitako eremuak denboren karratuak bezalakoak izango lirateke. Gorputz pisutsuak eraitsarazten dituen indar hau berbera da, inolako gutitze nabarmenik gabe, lurpean den edozein sakoneratan nahiz mendi altuenaren gainean. Zergatik ez litzateke ilargiraino zabalduko ahal hau? Eta, egia bada haraino sartzen dela, ez al dago ahalmen horrek bere orbitan atxikitzen duenaren eta bere mugimendua erabitzen duenaren itxura guztia? Alabaina, ilargiak printzipio horri, edozein delarik ere, obeditzen badio, ez al da halaber txit arrazoizkoa gainerako planetak ere haren menpean daudela sinestea?"

"Baldin eta ahal hori existitzen bada, distantzien karratuen alderantzizko arrazoiz behar du gehitu (egiaztaturik dagoena, bestalde). Aztertu besterik ez dago, bada, gorputz pisutsu batek goiera kaxkar batetik lurrera eroriz egingo lukeen bidea eta aldi berean ilargiaren orbitatik eroriko litzatekeen gorputz batek egingo lukeen bidea. Hori jakiteko, lurraren neurria eta ilargitik lurrerainoko tartea baizik ez da ukan behar."

Hara nola arrazoitu zuen Newton Jn.ak. Garai hartan, ordea, gure globoari buruzko neurri arras faltsuak baino ez zeuzkaten Ingalaterran; zenbatu behar ziren hirurogeita hamarren baten orde, graduak hirurogei milia ingeles zenbatzen zituzten pilotuen hala moduzko estimuaz fidatzen ziren. Kalkulu faltsu hau Newton Jn.ak atera nahi zituen ondorioekin bat ez zetorrenez, bertan behera utzi zituen. Filosofo kaxkar eta harrokeria besterik ez lukeen batek, ahal zezakeen bezala koadraraziko zukeen lurraren neurria bere sistemarekin. Newton Jn.ak orduan bere proiektua uztea hobetsi zuen. Baina Picart Jaunak lurra zehatz neurtu izan zuenetik, Frantziari hain ohore handia damaion meridiano hori trazatuz, Newton Jn.ak bere lehen ideiak berrartu zituen, eta Picart Jaunaren kalkuluekin bat etorerrarazi zuen bere kontua. Beti miresgarria iruditzen zaidan gauza da, koadrante baten laguntzaz eta aritmetika apur batez hain egia goitiarrak aurkitu izana.

Lurraren zirkunferentziak ehun eta hogeita hiru milioi berrehun eta berrogeita bederatzita mila seiehun Pariseko oin ditu. Honetatik soilik jarrai daiteke erakarmen sistema osoa.

Ezaguna da lurraren zirkunferentzia, ezaguna da ilargiaren orbita eta orbita horren diametroa. Ilargiaren bira orbita horretan hogeita zazpi egun, berrogeita hiru minututan egiten da; beraz, frogaturik dago ilargiak, bere batazbesteko higiduran, ehun eta laurogeita zazpi mila bederatziehun eta hirurogei Pariseko oin ibiltzen dela minutuko; eta, teorema ezagun batez, frogaturik dago gorputz bat ilargiaren goieratik erortaraziko

lukeen indar zentralak ez liokeela lehen minutuan hamabost Pariseko oin baino gehiago erortaraziko.

Hala ere, gorputzek pisatu, grabitatu, distantzien karratuen alderantzizko arrazoiz elkar erakartzen duteneko araua egiazkoa bada; arau honi jarraiki natura osoan diharduena ahalmen bera bada, argi dago, lurra ilargitik hirurogei diametroerdi urrundua egonik, gorputz pisutsu batek lur gainera hamabost oin lehenbiziko segundoan eta berrogeita hamalau mila oin lehenbiziko minutuan erori behar duela.

Bada, gertatzen da, gorputz pisutsu bat hamabost oin erortzen dela, izan ere, lehenengo segundoan; lehen minutuan berrogeita hamalau mila oin kurritzen dituela, hamabost bider hirurogeiren karratua den zenbakia berau; hortaz, distantzien karratuen alderantzizko erlazioan pisatzen dute gorputzek; hortaz, indar berberak sortzen du astuntasuna lurrazalean eta eusten dio ilargiari beronen orbitan.

Egiaztaturik egonda, beraz, ilargiak pisatu egiten duela lurrazalerantz, hau baita bere higidura bereziaren erdigunea, egiazturik dago lurrak eta ilargiak pisatu egiten dutela eguzkirantz, hau baita bere urteroko higiduraren erdigunea.

Gainerako planetek lege orokor honi men egin behar diote, eta lege hau baldin badago, planeta horiek Keplerrek aurkituriko arauei jarraitu behar zaizkie. Arau horiek guztiak, harreman horiek guztiak erabateko zehaztasunaz zaintzen dituzte planetek, noski; beraz, grabitazio indarrak eguzkirantz bultzarazten ditu planetak oro, gure globoa bezalaxe. Azkenik, gorputz bakoitzaren erreakzioa akzioarekiko proportzionala denez, ziurtzat ematen da lurrak bere aldetik ilargirantz sakatzen duela, eguzkiak baterantz eta besterantz sakatzen duela, Saturnoren sateliteetako bakoitzak lauretarantz sakatzen duela, eta laurak hartarantz, bostek Saturnorantz eta Saturnok guztietarantz; honela gertatzen dela Jupiterren, eta globo horiek guztiak eguzkiak erakarriak direla, berau ere era berean haiek erakarria izanik.

Grabitazio indar honek gorputzek daukaten materiarekiko proportzioan dihardu; Newton Jaunak esperientzia bidez frogarazi duen egia da. Aurkikuntza berri honek zera erakusteko balio izan du, eguzkiak, planeta guztien zentruak, bereganantz erakartzen dituela guztiak beraien masekiko arrazoi zuzenean, beren urruntasunaz konbinaturik. Hortik, giza izpirituarentzat eginak ez ziruditen ezagutzetaraino mailaka igoaz, zenbat materia daukan eguzkiak eta zenbat dagoen planeta bakoitzean kalkulatzera ausartzen da; honela erakusten du ezen, mekanikaren lege soilez, globo zerutar bakoitza dagoen lekuan egon behar duela ezinbestean.

Grabitazio legeen haren printzipio bakarrak globo zerutarren ibilbideetako desberdintasun ageriko guztien arrazoiak ematen du. Ilargiaren gorabeherak lege horien ezinbesteko ondorio bat bihurtzen dira. Gainera, argi eta garbi ikusten da ilargiko korapiloek zergatik egiten duten beraien bira hemeretzi urtetan eta lurrekoek hogeita sei mila urte inguruko epean. Itsasoaren fluxua eta birfluxua ere erakarmen honen ondorio arras sinple bat da. Ilargiaren hurbiltasuna bere betean eta berria denean, eta haien urruntasuna bere aldietan, eguzkiaren ekintzarekin konbinatuz, ozeanoaren goraldiaren eta beheraldiaren zentzumenezko arrazoi bat hornitzen dute.

Haren teoria goitiarraren bidez planeten ibilbide eta desberdintasunen berri eman ondoren, lege beraren balaztaren menpe ezarri zituen kometak. Su hauek, hain luzaroan ezezagunak, munduaren izuikara eta filosofiaren behaztoparri zirenak, Aristotelesek ilargiaren pean ezarriak eta Descartesek Saturnoz harantzago bidaliak, beren egiazko lekuan ezarri ditu Newtonek azkenean.

Eguzkiaren ekintzaren eremuan mugitzen diren gorputz trinkoak direla frogatzen du, eta elipse hain exzentrikoa eta parabola batetik hain hurbila deskribatzen dute, ezen zenbait kometak bostehun urte baino gehiago eman behar baitu bere biran.

Halley Jaunak uste du 1680ko kometa Julio Zesarren garaian agertu zen bera dela: horrek, batez ere, beste edozerk baino gehiago balio du kometak gorputz gogor eta opakoak direla ikustarazteko; ezen eguzkitik hain hurre igaro zen non ez baitzen honengandik bere diskoaren seirena besterik urrundu; ondorioz, burdinarik gorienarena baino bi mila bider berotasun maila bortitzagoa eskuratu behar izan zuen. Gorputz opakoa izan ez balitz denbora gutxian urtua eta ahitua izango zatekeen. Orduan hasten zen kometen ibilbideari igartzeko moda. Jacques Bernoulli matematikari ospetsuak bere sistemaren bidez ondorioztatu zuen 1680ko kometa famatu hori 1719ko maiatzaren 17an berragertuko zela³⁸. Europako astronomo bakar bat ere ez zen oheratu maiatzaren 17ko gau horretan, baina kometa famatua ez zen agertu. Trebetasun gehiago dago gutxienez, ziurtasun gehiago ez badago, itzultzeko bostehun eta hirurogeita hamabost urte hari ematean. Whilston deituriko geometra ingeles batek, geometra bezain kimerikoak, seriocki esan du, Uholdearen garaian gure globoa urez estali zuen kometa bat egon zela, eta berari iseka egin izanaz harriturik gelditzeko bidegabekeria ukan zuen³⁹. Antzinateak Whilstonen gustura pentsatzen zuen gutxi gorabehera; kometak beti lur gaineko ezbehar handiren baten aitzindari zirela uste zuen. Newtonek, oster, oso onuragarriak direla susmatzen du eta haietatik irteten diren keek planetak sokorritu eta birpizteko baizik ez dutela balio, eguzkiak kometatik askatu dituen partikula horiez guztiez blaitzen baitira haiek beraien ibilbidean. Sentimendu hau bestea baino daitekeenagoa da gutxienez.

Hau ez da dena. Baldin eta grabitazio, erakarmen indar hau globo zerutar guztietan ari bada, globo horien alde guztietan ari da dudarik gabe, zeren eta gorputzek beraien masengatik erakartzen badute elkar, beraien aldean kopuruarengatik baizik ez daiteke izan, eta ahalmen hori osoan kokatua badago, erdian dudarik gabe badago, laurdenean dago, zortzirenean eta honela infinituraino. Gainera, ahalmen hori zati bakoitzean berdinki ez balego, beti leudeke besteak baino gehiago grabitatzen duten globoko alde batzuk, gertatzen ez dena. Hortaz, ahal hori materia osoan eta materiaren partikularik txikienetan dago egiaz.

Hala, hona hemen erakarmena, natura osoa higiarazten duen erresorte handia.

Newtonek aurikusia zuen dagoeneko, printzipio honen existentzia egiaztatu ondoren, haren izen hutsaren kontra erreboltatuko zirela. Bere liburuko leku batean baino gehiagotan, erakarmenaren beraren kontra ohartarazten dio irakurleari, antzinako kualitate ezkutuekin ez nahasteko abisatzen dio, eta gorputz guztietan, unibertsoko mutur batetik bestera, mekanikaren lege aldaezinei jarraiki, hurbileneko zein urruneneko gorputzen gain ari den indar zentral bat badela ezagutzeaz kontentatzeko.

Harrigarria da, filosofo handi horren protesta arranditsuen ostean, Saurin Jn.ak eta Fontenelle Jn.ak, izen hori merezi dutenak berauek ere, hari peripatetismoaren kimerak garbiki egotzi izana: Saurin Jn.ak 1709ko Akademiaren txostenetan, eta Fontenelleko Jn.ak Newton Jn.aren Gorazarrean bertan.

Ia frantses guztiek, jakintsuak nahiz besteak, errepikatu dute destaina hau. Esaten entzuten da nonahi: "Zergatik ez da Newton oso ondo ulertzen den bultzada hitzaz baliatu, ulertzen ez den erakarmen hitzaren orde?"

Kritikari horiei Newtonek erantzun ahal izango ziekeen: "Lehenik, ez duzue bultzada hitza erakarmenarena baino hobekiago ulertzen eta, ez baduzue kontzebitzen gorputz batek beste gorputz baten erdigunerantz jotzen duela, ez duzue hobeto irudikatuko zeren indarrez bultza dakioken gorputz batek besteari.

Bigarrenik, nik ezin izan dut bultzada onartu; zeren horretarako, materia zerutar batek planetei benetan bultzatzen diela jakin beharko nukeen; bada, materia hori ez ezagutu ezezik, izan ez dela ere egiaztatu baitut.

Hirugarrenik, ez naiz erakarmen hitzez baliatzen, naturan aurkitu dudan ondorio bat adierazteko ez bada, printzipio ezezagun baten ondorio ziur eta eztabaidea ezina, materiari berezkoa zaion kalitatea, zeinaren kausa ni baino iaioagoaren batzuek aurkituko duten, ahal badute.

-Zer erakutsi diguzu, bada, ekiten diote berriro, eta zertarako hainbeste kalkulu zerorrek ere ulertzen ez duzuna guri esateko?

-Erakutsi dizuet, jarrai lezake Newtonek, indar zentralen mekanikak bere materiaren proportzioan erakarrarazten dituela gorputzak oro, indar zentral horiek beroriek soilik higiarazten dituztela planeta nahiz kometak markatutako proportziotan. Frogatzen dizuet ezinezkoa dela gorputz zerutar guztien higiduraren eta grabitatearen beste kausarik egotea: bada, gorputz pisutsuak indar zentralen proportzio frogatuaren arabera erortzen direnez lur gainera, eta planetek proportzio horietxei jarraituz burutzen dituztenez beren ibilbideak, gorputz horien guztien gain arituko litzatekeen beste indarrik baldin balego oraindik, berorien abiadurak gehitu eta berorien norabideak aldatuko litzuke. Gorputz horietariko batek ere ez dauka, ordea, mugimendu, abiadura, determinazio gradu bakar bat ere, indar zentralen ondorena dela frogatua ez denik; hortaz, ezina da beste printzipiorik izatea".

Zilegi bekit oraindik une batez Newtoni hitz eginaraztea. Zer egokiagorik hau esango balu: "Antzinakoenaren aldean kasu arras bestelakoan nago ni; haiek ikusten zuten, adibidez, ura bonbetatik igotzen eta esaten zuten: hutsari beldur diolako igotzen da ura; ni, aldiz, ura bonbetatik igotzen dela lehenbizikoz ohartu zuenaren eta ondorio honen kausa azaltzeko ardura besteei utziko liokeenaren kasuan nago. Besoa giharrak kizkurtzen direlako higitzen dela aurrenengoz esan zuen anatomistak, erantzunezinezko egia erakutsi zien gizakiei; gutxiago zor ote zaio giharrak zergatik kizkurtzen diren jakin izan ez badu? Airearen eragingailuaren kausa ezezaguna da, baina eragingailu hori aurkitu duenak zerbitzu handia egin dio fisikari. Nik aurkitu dudan erresortea ezkutuago zegoen, unibertsalagoa zen; beraz, eskerrak eman behar lizkidakete. Materiaren propietate berri bat, Kreatzailearen sekretuetariko bat aurkitu dut; haren kalkuluak egin ditut, haren ondorioak frogatu ditut, gaitzets ote nazakete eman diodan izenarengatik?

"Zurrumbiloak dira kalitate ezkutu dei daitezkeenak, sekula ez baita haien izatea egiaztatu. Erakarmena, aldiz, gauza erreala da, beraren ondorioak frogatu eta beraren proportzioak kalkulatzeko baitira. Kausa honen kausa Jainkoa baitan dago."

Procedes huc, & non ibis amplius.

HAMASEIGARREN GUTUNA

Newton jaunaren optikaz

Unibertso berri bat aurkitu dute azken mendeko filosofoek, eta mundu berri hori hainbat zailago zen ezagutzen non ez baitzen bazenik ere susmatzen. Jakintsuenei ausarkeria bat zela iruditzen zitzaien zein legek higiarazten dituzten gorputz zerutarrak eta nolatan diharduen argiak igarri zitekeela amestera ausartze hutsa.

Galileok, bere aurkikuntza astronomikoengatik, Keplerrek, bere kalkuluengatik, Descartesek, bere dioptrikan gutxienez, eta Newtonek, bere lan guztietan, munduko erresorteen mekanika ikusi dute. Geometrian, kalkuluaren menpe ezarri dute infinitua. Odolaren zirkulazioak abereetan eta saparenak landareetan natura aldatu dute guretzat. Izateko era berri bat emana izan zaie gorputzei makina pneumatikoan; objektuak gure begietara hurbildu zaizkigu teleskopioen laguntzaz; azkenik, Newtonek argiaz aurkitu duena gizakien jakinminak itxaron zezakeen ausartenaren duin da, hainbeste berrikuntzaren ondoren.

Antonio de Dominis arte, ostadarrak ezin argituzko mirari bat zirudien; eguzkia eta euriaren ezinbesteko ondorena zela antzeman zion filosofo honek. Descartesek hilezkor bihurtu zuen beraren izena hain fenomeno natural honen azalpen matematikoarengatik; argiaren distirapen eta zehardurak kalkulatu zituen euri tantetan, eta ohartasun honek jainkozko zerbait izan zuen aldi hartan.

Baina, zer esango zukeen jakinarazi bazitzaion argiaren izakeraz tronpatu egiten zela; ez zeukala batere arrazoirik gorputz bikortsu bat zela ziurtatzean; faltsua dela materia honek, unibertso osoan barrena hedatuz, ez duela eguzkiak bultza egitea besterik itxaroten ekintzari lotzeko, makila luze bat mutur batetik higitzen den bezala beste muturretik butz egiten zaionean; txit ziurra dela eguzkiak jaurtikia dela eta, azkenik, argia eguzkitik lurrera zazpi bat minututan heltzen dela, nahiz eta kanoi obus batek, beti bere abiadurari eutsiz, ezin dezakeen bide hori egin hogeita bost urtetan baizik?

Zein izango zatekeen bere harridura esan izan balitzaio: "Faltsua da argia zuzenki isladatzen dela gorputzaren alde trinkoetan botea eginez; faltsua da gorputzak gardenak direla poro zabalak dituztenean; eta gizaki bat helduko da paradoxa horiek azalduko dituen eta argi izpi soil bat anatomizatuko duena artistarik trebeenak giza gorputza disekatzen duen baino abilezia gehiagorekin".

Heldu da gizaki hori. Newtonek, prismaren laguntza soilaz, begiei erakutsi die argia kolorezko izpi mordoa dela, denak batean kolore zuria ematen dutenak. Izpi bakar bat zazpi izpitan banatzen du berak, guztiak beren ordenan ohial nahiz paper zuri baten gainean kokatzera datozenak, bata bestearen gainean eta tarte ezberdinetan. Lehenengoa su kolorekoa da; bigarrena, limoia; hirugarrena, horia; laugarrena, berdea; bosgarrena, urdina; seigarrena, indigoa; zazpigarrena, morea. Izpi horietariko bakoitzak, ondoren beste ehun prismak tamizaturik, ez du daraman kolorea sekula aldatuko, iragazitako urrea dagoeneko arragoetan aldatzen ez den bezala; eta, oso-osorik frogatzeko oinarritzko izpi horietako bakoitzak bere baitan daramala gure begientzat bere kolorea osatzen duena, har ezazue zur pusketa hori bat, adibidez, eta su koloreko izpian ezar ezazue: bat-batean su kolorez tindatzen da; ezar ezazue izpi berdean: kolore berdea hartzen du; eta horrela gainerakoekin.

Zein da, bada, naturako koloreen zergatia? Halako ordena bateko izpiak isladatzeko, eta beste guztiak xurgatzeko gorputzen jarrera besterik ez. Zein da jarrera ezku hori? Gorputza osaturik dagoeneko zatitxo osagaien lodiera dela soilik erakusten du berak. Eta nolatan egiten da isladapen hau? Izpiek gorputz trinko baten azalean bala batek bezala errebotatzen zutelako zela pentsatzen zen. Inola ere ez; beren poroak zabalak direlako gorputzak opakoak izateaz harrituriko filosofoei Newtonek erakusten die ezen poro berorien barnetik errainutzen dela argia gure begietara; gorputz bateko poroak

zenbat eta txikiagoak izan orduan eta gardenago dela gorputza: hala, paperak, lehorra dagoenean argia isladatzen duenak, olioztatua dagoenean igortzen du, zeren eta olioak, haren poroak betez, askoz txikiago bihurtzen baititu.

Era honetan, gorputzen porositate izugarria aztertuz, zati bakoitzak bere poroak dituenaz, eta zati bakoitzaren zati bakoitzak bereak, ikusi behar da ezin daitekeela erabat ziurtzat eman materia trinkoko hatz kubiko bat badenik unibertsoan; gure izpiritua hain urrun baitago materia zer den atzematetik!

Argia honela deskonposatuz, eta haren aurkikuntzen ohartasuna bere lehen koloreez osaturiko kolorea ezagutzeko bidea erakusteraino eramanez, berak erakusten du oinarritzko errainu horiek, prismaren bidez bananduak, ez direla beren ordenan antolatzen ordena horretan bertan zeiharkatuak direlako baizik; eta proportzio horretan puskatzeko propietate ordurarte ezezagun hori da, izpien errefrakzio desberdin hori da, gorria laranja kolorea baino gutxiago zeiharkatzeko ahalmen hori, etab., zeiharkagarritasuna izendatzen duena.

Izpirik isladagarrienak dira zeiharkagarrienak, hortik ikusarazten du ahalmen berberak eragiten dituela argiaren isladapena zein zeihardura.

Haren aurkikuntzen hasiera besterik ez dira hainbeste mirari; aurkituak ditu argiaren dardara eta iharrauspeneak, etengabeko joan etorrian dabiltzanak, eta aurkitzen dituzten zatien lodieraren arabera argia igortzen nahiz isladatzen dutenak; bata bestearen gainean ipinitako beira biren, bata laua eta bestea alde batetik konbexuaren artean, delako transmisio edo isladapena gauzatzeko, eta horrelako edo halako kolorea egiteko, beharrezko airearen partikulen lodiera kalkulatzera ausartu da.

Konbinaketa haietatik guztietatik aurkitzen du zein proportziotan diharduen argiak gorputzen gain eta gorputzek haren gain.

Hain argi ikusi du argia, ezen erabaki baitu zein puntutaraino mugatu behar den teleskopioekin gure begiak lagundu eta gehitzeko artea.

Descartesek, konfidantza noble batengatik, ia berak aurkituriko arte baten hastapenek ematen zioten sugarrean guztiz barkagarria, lur gainean bereizten diren moduko objektu hain txikiak ikustea espero zuen astroetan hurbilpen betaurrekoen bidez.

Newtonek erakutsi du betaurrekoak ezin direla hobeagotu, errefrakzio horrengatik eta zeiharkagarritasun horrexengatik, objektuak guri hurbilaraziz, gehiegi urrunarazten baitituzte oinarritzko izpiak; beira horietan, izpi gorrien eta izpi urdinen urruntasun proportzioa kalkulatu du; eta, bazirenik ere sumatzen ez zen gauzetara frogapena eramanez, beiraren irudiak sortzen dituen desberdintasunak eta zeiharkagarritasunak egiten duena ikertzen ditu. Aurkitzen du, betaurrekoaren objektibo den beira alde batetik konbexua eta bestetik laua izanik, alde laua objekturantz bihurtua baldin badago, beiraren eraikuntza eta jarreratik datorren akatsa bost mila bider txikiago dela zeiharkagarritasunetik datorrena baino; eta, hala, ez dela beiren itxura hurbilpen betaurrekoen hobetzea eragozten duena, baizik eta argiaren materiari berari dagokiola.

Hona hemen zergatik asmatu zuen teleskopio bat, objektuak isladapenez agertzen dituenaz, eta ez errefrakzioz. Betaurreko mota berri hau egiten oso zaila da, eta ez da erabilera errazekoa; Ingalaterran haatik esan ohi da bost oineko isladapen teleskopio batek ehun oineko betaurreko baten efektu bera duela.

HAMAZAZPIGARREN GUTUNA

Infinituaz eta kronologiaz

Infinituaren labirintoa eta amildegia ere Newtonen kurritutako lasterketa berri bat da, eta berari zor diogu bertan gida gaitzakeen haria.

Descartes da berriz ere haren aintzindari berrikuntza harrigarri honetan; bere geometrian zangokadaka zihoan infiniturantz, baina ertzean gelditu zen. Wallis Jn.a, lehengo mendearen erdialdera, frakzio bat, betiereko zatiketa batez, sail infinitu batera murriztu zuen lehena izan zen.

Milord Brounker sail honetaz baliatu zen hiperbolea koadratzeko.

Mercatorrek koadratura horren frogapen bat argitaratu zuen. Aldi horretantsu, Newtonen, hogeita hiru urterekin, metodo orokor bat asmatu zuen hiperboleari buruz saiatu berria zena kurba guztiei buruz egiteko.

Infinitua kalkulu algebraikoari nonahi plegatzeko metodo hori da kalkulu diferentziala, edo fluxioena, eta kalkulu integrala deritzana. Bazenik ere pentsa ezin daitekeen hori zenbatzeko eta zehatz-mehatz neurtzeko artea da.

Izan ere, ez duzue uste izango, bada, zuetaz burlatzen direla, angelu infinituki txiki bat eratzen duen lerro infinituki handiak daudela esaten dizuetenean?

Lerro zuzen bat, zuzena dena mugatua den heinean, norabidez infinituki gutxi aldatuz, amaigabeko kurba bihurtzen dela: kurba bat infinituki gutxiagoko kurba bilaka daitekeela?

Badirela infinituaren karratuak, infinituaren kuboak eta infinituaren infinituak, zeinen azkenaurrena deus ez den azkenarekiko?

Hori guztia, aldeztu aurretik desarrazoiaren gaindidura dirudiena, giza izpirituaren hedapen eta ohartasunaren ahalegina da egiaz, eta ordura arte ezezagunak ziren egiak aurkitzeko metodoa.

Eraikuntza hain ausart hau, gainera, ideia sinpletan oinarritua dago. Kontua da karratu baten diagonal neurtzea, kurba baten azalera lortzea, ohiko aritmetikan erro karraturik ez duen zenbaki batena aurkitzea.

Eta, azken buruan, horrenbeste infinitu ordenak ez luke irudimena hainbeste jazarri behar, zirkulu baten eta tangente baten artean beti pasaraz daitekeela kurbarik dioen proposizio hain ezagun horrek adina; edota, materia beti zatigarri dela dioen beste horrek baino. Bi egia hauek aspaldidanik daude egiaztaturik, eta ez dira besteak baino ulergarriago.

Luzaro eztabaidatu izan zaio Newtoni kalkulu famatu honen asmaketa. Leibniz Jn.a eduki izan da Alemanian Newtonen fluxioak deitzen dituen diferentzien asmatzaileetzat, eta Bernouillik kalkulu integrala errebindikatu du; halere, lehen aurkikuntzaren ohorea Newtoni dagokio, eta gainerakoentzat geratzen da berorien eta haren artean dudatu ahal izanaren aintza.

Gisa berean ukatu zitzaion Harveyri odolaren zirkulazioaren aurkipena; Perrault Jn.ari sapolaren zirkulazioarena. Hartsoekerrek eta Lewenhoek elkarri ukatu diete eginak gaudeneko har txikiak lehena ikusi izanaren ohorea. Hartsoeker horrek berak Huguens Jn.ari eztabaidatu zion izar tinko baten urruntzea kalkulatzeko era berri baten asmakizuna. Ez dakigu oraindik zein filosofok aurkitu zuen erruletaren problema.

Dena den, infinituaren geometria honen bidez iritsi da Newton ezagupenik goitiarrenetara.

Zuri beste lan batez hitz egitea geratzen zait, giza generoari eskurakoiagoaz, baina Newtonen bere ikerketa guztietan jartzen zuen izpiritu kreatzaile horren agerpen dena; kronologia zeharo berri bat da, ezen, ekiten zion guztian, beste gizonek jasotako ideiak aldatu behar izaten baitzituen.

Kaosa argitzen ohitua, zenbait argi ekarri nahi izan du bederen historiarekin nahasturiko antzinako fabula horietakoan eta zalantzazko kronologia bat finkatu. Egia da ez dagoela familiarik, hiririk, naziorik bere jatorria atzeratzen saiatzen ez denik; gainera, lehen historilariak dira datak markatzen axolagabeenak; liburuak gaurregun baino mila bider desarruntagoak ziren; ondorioz, kritikari gutxiago atxikiak zeudenez, zigorgabekiago engainatzen zuten mundua, eta, gertakariak nabariki asmatu izan direnez gero, litekeena da datak ere asmatu izana.

Eskuarki Newtoni iruditu zitzaion kronologistek ziotena baino bostehun urte gazteagoa zela mundua. Naturaren ohiko joanairan eta astronomi behaketetan oinarritu zuen bere ideia.

Giza belaunaldi bakoitzaren denboraldia esan nahi du hemen naturaren ibilbideak. Egiptoarrak izan ziren lehenak zalantzazko zenbaketa era horretaz baliatzen. Euren kondairaren hastapenak idatzi nahi izan zituztenean, hirurehun eta berrogeita bat belaunaldi kontatzen zuten Menesengandik Setonengana; eta, data finkorik ezean, ehun urtean ebaluatu zuten hiru belaunaldi; hala, Menesen erreinalditik Setonen erreinaldira hamaika mila hirurehun eta berrogei urte zenbatzen zituzten.

Greziarrek, olinpiadaka zenbatu aurretik, egiptoarren metodoari jarraitu zitzaizkion, eta pixka bat luzatu zuten gainera belaunaldien iraupena, belaunaldi bakoitza berrogei urteraino handituz.

Honetan, ordea, egiptoar eta greziarrek huts egin zuten beren kalkuluan. Egi-egia da, naturaren ohiko ibilbidearen arabera, hiru belaunaldik ehun edo ehun eta hogeitaz inguru egiten dutela; ez da oso arrunta, ordea, hiru erreinaldik urte multzo hori irautea. Nabari-nabaria da, erregeek gobernatzen duten baino luzaroagoa bizi direla gizakiak oro har. Era honetan, data zehatzik ukan gabe historia idatzi nahi lukeen gizaki batek, eta nazio batean bederatzi errege izan zirela dakikeenak, arrunt huts egingo luke bederatzi errege horientzat hirurehun urte kontatuko balitu. Belaunaldi bakoitza hogeita hamasei urte ingurukoa da; erregealdi bakoitza hogeitaz ingurukoa da, batzaz beste. Har itzazue Ingalaterrako hogeita hamar erregeak, Gilen Konkistatzaileagandik Jurgi lehena arte; seihun eta berrogeita zortzi urte erreinatu dute; hori hogeita hamar erregeen artean zatituz, hogeita bat urte t'erdiko erreinaldia dagokio bakoitzari. Frantziako hirurogeita hiru erregek, batzaz beste, bakoitzak hogeiren bat urte erreinatu dute. Hona naturaren ohiko ibilbidea. Beraz, antzinakoek huts egin dute belaunaldien iraupena eta erreinuen iraupena eskuarki berdindu dutenean; beraz, sobera zenbatu dute; beraz, moztu egin behar dira pixka bat beraien kalkulak.

Astronomi behaketek are gehiago laguntzen diotela dirudi gure filosofoari, beraren lur-eremuan gudukatuz indartsuago agertzen da.

Badakizu, Jauna, lurak, urte baten epean Mendebaldetik Ekialdera eguzkiaren biran arrastarazten duen higidura urterokoaz gain, iraultza berezi bat ere baduela, guztiz ezezaguna azken garaiotara arte. Haren poloek Ekialdetik Mendebalderako eretrogradazio higidura txit geldoa dute, egun oroz beraren posizioa zeruko puntu berberekin bat etor ez dadin eragiten duena, hain zuzen. Diferentzia hau, sentigabea urtebetea, handi samarra bihurtzen da denborarekin, eta hirurogeita hamabi urteren buruan, aldea gradu batekoa dela aurkitzen da, hots, ortze osoaren hirurehun eta hirurogeirena. Hala, hirurogeita hamabi urte ondoren, udaberriko ekinozioaren Koluroak, finkotzat hartua zenak, beste finko bati datxekio. Hortik dator, eguzkia, Hiparkoren garaian Aharia zegoeneko zeru partean egon ordez, Zezena dagoen zeru aldeari atxekitzea, eta Bizkiak behinola Zezena zegoen tokian daude. Zeinuak oro lekualdatu dira; guk, oster, antzinakoen hizkerari eusten diogu, udaberrian eguzkia Aharian dagoela diogu, eguzkia biraka dabilela diogun adeitasun berberaz.

Hipparko izan zen greziarren artean, konstelazioetan ekinozioekiko aldaketa batzuez ohartu zen lehena, edo, hobekiago, egiptoarrendik ikasi zituen. Filosofoek izarrei egotzi zieten mugimendu hori; ezen lurreen halako iraultzarik imajinatzetik oso urruti baitzeuden garai hartan; higiezintzat zeukaten zentzu guztietan. Izar guztiak eseki zituzteneko zero bat sortu zuten, bada, eta Ekialderantz aitzinarazten zien higidura berezi bat eman zioten ortze horri, izar guztiek beren eguneroko bidea Ekialdetik Mendebaldera egiten zutela zirudienean. Errakuntza honi askoz funtsezkoagoko bigarren bat gehitu zioten; uste izan zuten ezen izar finkoen delako ortze hori ehun urtean gradu bat aitzinatzen zela Ekialderantz. Hala, tronpatu egin ziren beren kalkulu astronomikoetan nola beren sistema fisikoan. Adibidez, astronomo batek esango zukeen orduan: "Udaberriko ekinozioa, harako behatzailearen garaian, harako zeinuan, harako izarrean izan da; bide gradu bi egin ditu behatzaile horrengandik gureganaino; bada, bi graduk berrehun urte balio dute; beraz, behatzaile hori ni baino berrehun urte lehenago bizi zen". Segurua da horrela arrazoituko zukeen astronomo batek, berrogeita hamalau urtez huts egingo zuela hain zuzen. Hona zergatik antzinakoek, birritan engainatuak, beren munduaren urte handia osatu zuten, hots, ortze osoaren iraultza, hogeita hamasei mila urte ingurukoa. Baina modernoek badakite izarren zeruaren iraultza irudimenezko hori, lurraren poloan iraultza besterik ez dela, hogeita bost mila bederatziehun urtetan burutzen dena. Ongi dago hemen ohartaraztea, bidenabar, Newtonek, lurraren irudia mugatzerakoan, txit dohatsuki adierazi duela iraultza honen zergatia.

Hau guztia idatzita, kronologia finkatzeko zera geratzen da, ikustea ea ekinozioaren koluroak zein izarretatik moztu duen gaur ekliptika udaberrian, eta jakitea ea badagoen antzinakoren bat bere garaian esan diguna zein puntutan moztua zen ekliptika ekinozioen koluro berberetik.

Klemente alexandriarrak aipatzen du nola Kironek, Argonauten espediziokoa zenak, konstelazioak aztertu zituen espedizio famatu honen garaian, eta Ahariaren erdian ezarri zuela udaberriko ekinozioa, Balantzaren erdian udazkeneko ekinozioa, Kantzerren erdian gure udako solstizioa, eta Kaprikornioaren erdian neguko solstizioa.

Argonauten espediziotik askoz beranduago, eta Peloponesoko gerra baino urtebete lehenago, Metonek udako solstizioaren puntua Kantzerren zortzigarren gradutik iragaten zela hauteman zuen.

Hortaz, Zodiakoaren zeinu bakoitza hogeita hamar gradukoa da. Kironen garaian, zeinuaren erdian zegoen solstizioa, hots, hamabosgarren graduan; Peloponesoko gerra baino urtebete lehenago, zortzigarrenean zegoen; beraz, zazpi graduz gibelatu zen. Gradu batek hirurogeita hamabi urte balio ditu; beraz, Peloponesoko gerraren hasieratik Argonauten ekintzara arte ez daude zazpi bider hirurogeita hamabi urte baino, bostehun eta lau urte egiten dutelarik, eta ez zazpiehun urte, greziarrek zioten bezala. Hala, gaurko zeruaren egoera orduan zegoenarekin alderatuz, Argonauten espedizioa Jesukristo baino bederatziehun urte lehenago jarri behar dela ikusten dugu, eta ez mila eta lauhun urte inguruan; eta, ondorioz, uste zen baino bostehun urte inguru gutxiago du munduak. Horrenbestez, epoka guztiak hurreratu dira, eta diotena baino beranduago egin da dena. Ez dakit sistema burutsu honek fortuna handia egingo duen, eta ideia hauen gainean munduaren kronologia berriztatzea erabaki nahi izango duten⁴⁰; agian, jakintsuek gehiegizkotzat joko lukete, gizaki berberari fisika, geometria eta historia batera hobetu izanaren ohorea aitortzea; monarkia unibertsalaren mota bat litzateke hori, zeinari txarto makurtzen baitzaio amodio propioa. Orobat, filosofo txit handiek erakarmena zela eta erasotzen zioten garai berean, beste batzuek haren sistema kronologikoa gudukatzen zuten. Denborak, garaipena zeini zor zaion erakutsi beharko lukeenak, eztabaida are zalantzazkoago uztea baino ez du egingo beharbada.

LEHEN ERANSKINA

Infinituaren historia

Lehen geometrak ohartu ziren, dudarik gabe, hamaikagarren edo hamabigarren proposiziotik abiatuz, desbideratzeke ibiliz gero, amildegi baten ertzean zirela, eta aurkitzen zituzten ukaezinezko egiatxoak infinituaz inguraturik zeudela. Erdikusi egiten zen hori, karratuaren alderdi batek ezin duela inoiz diagonalara neurtu, edota zirkulu ezberdinen zirkunferentziak zirkulu baten eta beraren tangentearen artean pasatuko direla beti, etab... amets egiten zenez geroztik.

Sei zenbakiaren erroa soilik bilatzen zuen edonork, garbi ikusten zuen bi edo hiruren arteko zenbaki bat zela, baina, egiten zuen zatiketa egiten zuela, beti hurbiltzenago zen erro hori ez zen sekula aurkitzen. Kontuan hartzen bazen beste lerro zuzen bat perpendikularki ebakitzen duen lerro zuzen bat, zatiezineko puntu batean ebakitzen zirela ikusten zen; baina zeharkari ebakitzen baziren, behartuak zeuden, edo beste bat baino puntu handiago bat onartzera, edo ezer ulertzera puntuen izaera eta handitasun ororen hasieraz.

Kono baten ikertze hutsak izpiritua txundiarazi behar du; ezen oinarriak, zirkulu bat izaki, lerro kopuru azkengabea baitu. Lerrotik mugagabeki ezberdintzen den zerbait da haren erpina. Kono hori bere ardatzari paraleloki ebakiz gero, konoak osatutako triangeluaren aldeetara beti gero eta gehiago hurbiltzen zen irudia atzematen zen, sekula ere aurkitu gabe. Infinitua nonahi zegoen; nola ezagutu zirkulu baten azalera? Nolatan edozein kurbarena?

Apolonio baino lehen, zirkulua angeluen neurri gisa, eta zenbait bitarteko proportzional emateko bide gisa baizik ez zen aztertua izan. Horrek frogatzen du bidenabar egiptoarrak, greziarrei geometria irakatsi zietenak, geometria txit erdipurdikoak, nahiz eta astronomo aski onak, izan zirela. Apolonio sartu zen ebakidura konikoen xehetasunetan. Arkimedesek kontaezinezko aldetako iruditzat jo zuen zirkulua, eta diametroaren zirkunferentziarako erlazioa eman zuen; giza izpirituak eman dezakeen eran. Parabola koadratu zuen; Kioko Hipokratesek zirkuluaren ilargiskak koadratu zituen.

Kuboaren bikoizketa, angeluaren trisekzioa, ohiko geometrian gauzaezina, eta zirkuluaren koadratura, geometria ororentzat ezinezkoa, antzinakoen alferreko ikerketa gaia izan ziren. Sekretu batzuk aurkitu zituzten euren bidean, harri filosofalaren bilatzaileen antzera. Ezagunak dira Dioklesen zisoidea, bere zuzentzailera behin ere heldu gabe hurbiltzen dena, Nikomedesen konkoidea, kasu berean dena, Arkimedesen espirala. Hau guztia algebrarik gabe aurkitu zen, giza izpirituari hain biziki laguntzen diona, eta berau aurkitzeke gidatzen duela dirudien kalkulu hori gabe.

Bi aritmetikarik, adibidez, kontu bat egin behar dutelarik, aurrenekoak bere zenbakiak beti bere gogoan izanik buruz egin dezakeena; eta besteak paperean egin dezakeena errutinazko arau batez, baina seguru, non bilatzen ari den egia sekula ez duen ikusten emaitzaren ondoren ez bada, eta bertara begiak itxita iritsi den gizon baten gisa; hona hemen, gutxi gorabehera, irudiak gogoan hartu eta bere erlazioak ikusten dituen geometria kalkulurik gabeko baten, eta erlazio honek izpirituari mintzo ez zaizkion eragiketen bidez bilatzen dituen algebrakale baten arteko aldea. Haatik, ezin da urruti joan lehenbiziko metodoarekin: berau agian gu baino goragoko izakientzat erreserbatua dago. Geure ahulezia frogatu eta sorosten duten laguntzak behar ditugu. Geometria hedatu den heinean, laguntza horien premia handiagoa izan da.

Hariot Anglais, Viette Poitevin, eta batez ere Descartes famatuak, zeinuak, letrak erabili zituzten. Descartsek algebraren menpe jarri zituen kurbak eta ekuazio algebraikotara murriztu zuen dena.

Descartesen garaian, Cavallierok, jadanik irauten ez duen Jesuateen Ordena bateko erlijiosoak, zatiezinen geometria eman zion jendeari 1635ean: geometria guztiz berria, non planoak bukaezinezko lerroz osatuak baitaude, eta solidoak bukaezinezko planoz. Egia da ez zela infinitu hitza matematiketan esatera ausartu Descartesek fisikan baino areago. Bata eta bestea mugagabe hitz leunagoaz baliatzen ziren; alabaina, Robervalek Frantzian ideia berak zituen, eta aldi hartan bazen Brugesen jesuita bat urrats erraldoiz zihoana bide ezberdin baterako lasterketa honetan. San Bizenteko Gregorio zen, zeinak, hutsegite bat helburutzat hartuta, eta zirkuluaren koadratura kaustitu zuelakoan, gauza miressgarriak aurkitu baitzituen, aurkitu. Infinitua bera erlazio mugatutara murriztu zuen, txikian eta handian ezagutu zuen infinitua. Ikerketa hauek, ordea, hiru in folio-tan itoak zeuden: ez zuten metodorik; eta, okerrago dena, liburuari amaiera ematen zion hutsegite nabarmen batek, hark zeuzkan egia guztiei kalte egin zien.

Kurbak koadratzea bilatzen zen beti. Descartes tangentez baliatzen zen. Fermatek, Toulouseko kontseilariak, maximis eta minimis erregela erabiltzen zuen; Descartesek eman ziona baino justizia gehiago merezi zuen erregela. Wallis Anglaisek, 1655ean, ausartki eman zuen infinituaren aritmetika, eta anitz serie infinitu.

Milord Brounker serie honetaz baliatu zen hiperbola bat koadratzeko. Holsteineko Mercatorrek parte handia ukan zuen asmakizun honetan; alabaina, lord Brounkerrek hain dohatsuki entseiatu zuena kurba guztiekin nahi zen egin. Infinitua algebraren pean jartzeko metodo orokor baten bila zebiltzan, Descartesek finitua ezarri zuen bezala: metodo hori da Newtonen hogeita hiru urterekin aurkitu zuena; hamahiru urterekin, *Traité de la mesure des courbes à double courbure* inprimarazi berri duen gure Cleraut Jn. gaztea bezain miressgarri horretan. Newtonen metodoak bi parte ditu, kalkulu diferentziala eta kalkulu integrala.

Diferentziala, ezein finkagarri baino kopuru txikiagoa aurkitzean datza, zeinak, ezin konta ahala aldiz hartuta, emandako kopurua berdintzen duen; Ingalaterran fluenteen edo fluxioen metodoa deitzen dutena da.

Integrala kantitate diferentzialen kopuru osoa hartzean datza.

Leibnitz filosofo ospetsuak eta Bernoulli matematikari sakonak, biek erreibindikatu dute, bata kalkulu diferentziala, besteak kalkulu integrala; hain gauza gorenak asmatzeko gauza izan behar da berorren ohorea norberaganatzera ausartzeko. Zergatik hiru matematikari haundik, denak egiaren bila ari, ez dute berau aurkitu? Torricellik, La Louberek, Descartesek, Robervalek, Pascalek, ez al dituzte guztiek frogatu, bakoitzak bere aldetik, zikloidearen, aldi hartan erruleta deituaren, propietateak? Ez al dira maiz ikusi hizlariak, gai berbera erabiliz, gogoeta berberak hitz ezberdinez adierazten? Newtonen eta Leibnitzek baliatu zituzten zeinuak ezberdinak ziren, eta gogoetak berberak ziren.

Nolanahi den, orduan hasi zen infinitua kalkuluaren bidez erabiltzen. Besteak baino handiagoko infinitu batzuk onartzeraz ohitu ziren oharkabea. Eraikuntza hain ausart honek arkitektoetariko bat beldurtu zuen. Leibnitz ez zen ausartu infinitu horiei paregabeak baizik deitzera; baina Fontenelleko Jn.ak, azkenik, ezarri berriak ditu infinitu ordena ezberdinok batere gupidarik gabe, eta bere egitateaz oso ziur egon behar zuen horretarako ausardia izateko.

BIGARREN ERANSKINA

Newton

Newton lehenbizi Elizarako destinatua izan zen. Teologo izateari ekin zion eta horren markak bizitza osorako geratu zitzaizkion. Zinez hartu zuen Arrioren aldeko jarrera Atanasioren aurka. Arrio baino urrutixeago ere joan zen, soziniar guztiak bezalaxe. Gaur egun, iritzi honetako jakintsurik franko bada European; ez dut elkargo honetakoak esango, ez baitute gorputzik osatzen. Zatiturik ere badaude, eta beraietako zenbaitek deismo hutsera mugatzen du bere sistema, Kristoren moralera egokiarazita. Newton ez zen azken hauetakoa. Ez zen konsubstantzialitatearen puntuan baizik ezberdintzen Eliza anglikanotik eta gainerako guztia sinesten zuen.

Bere fede onaren frogapen bat, Apokalipsia komentatu izan duela da. Han garbiro dakusa Aita Santua Antikristoa dela, eta horretaz arta hartu duten guztiek bezala azaldu du liburu hori. Itxuraz, iruzkin horren bidez, giza arraza kontsolatu nahi izan zuen beronen gain zeukan nagusitasunarengatik.

Anitz jendek, Newtonek bere Printzipio Matematikoak-en amaieran jarritako Metafisika apurra irakurtzean, Apokalipsia bezain iluna den zerbait aurkitu dute bertan. Xingola batez begiak estalita borrokarazten zitzaien gladiadore mota haren antz dextente dute metafisikoez eta teologoez. Alabaina, Newtonek, bere Matematiketan begiak zabalik lan egin zuenean, munduaren mugetan ezarri zuen bere begirada.

Berak asmatua da infinituarena deritzan kalkulua; berak aurkitu eta frogatu du natura osoa higiarazten duen printzipio berri bat. Bera baino lehen ez zen argia ezagutzen. Ideia nahasi eta faltsuak baino ez zeuden. Berak esana da: "Ezagutu bedi argia", eta ezagutua izan da.

Berak asmatuak dira isladapen teleskopioak. Aurrenekoa beraren eskuez eginga da; eta teleskopio arruntan indarra zein irispidea zergatik ezin diren gehitu ikusarazi du. Bere teleskopio berria zela eta, jesuita alemaniar batek langileztat, betaurrekogileztat hartu zuen Newton. Artifex quidam nomine Newton, dio berak liburuska batean. Harez gero, ederki mendekatu dute ondorengoek. Bidegabekeria gehiago egiten zitzaion Frantzian; huts egin zuen entseigileztat jo izan zuten; Mariotte prisma txarrez baliatu zelako, gaitzetsi egin zituzten Newtonen aurkikuntzak.

Bere aberkideen aldetik miretsia izan zen idatzi eta lan egin zuenez geroztik. Frantzian ez da berrogei urteren buruan baizik ongi ezagutua izan. Baina, ordainez, Descartesen materia ubidetsua eta materia arraunlaria eta Aita Malebranche agurgarriaren zirimolatxo belaskak geneuzkan; eta Molièren Privat Jna.ren sistemak Molièren Poquelin Jna.ren sistemak adina balio ez duena, halere.

De Polignac kardinalearekin apur bat bizi izan diren guztietarik ez dago inor, Newton peripatetikoa zela eta bere izpi koloretsuek eta, ororen gainetik, bere erakarmenak ateismoaren eragin handia zutela esaten entzun ez dionik. De Polignac kardinalak naturatik jaso zituen abantaila guztiei mintzo biziki ederra erantsi zien. Latinezko bertsoak zorionezko eta harrigarritzko erraztasunez egiten zituen, baina Descartesen filosofia besterik ez zekien eta haren arrazonamenduak gogoan atxiki zituen, datak atxikitzen diren bezala. Ez zen geometria bilakatu eta ez zen filosofo jaio. Katiliniariak eta Eneida juzga zitzakeen, baina ez Newton eta Locke.

Kontuan hartzen denean Newton, Locke, Clarke, Leibnitz pertsegituak izan zitezkeela Frantzian, espetxeratuak Erroman, erreak Lisbonan, zer pentsatu behar da giza arrazoimenaz? Berau Ingalaterran sortua dela mende honetan. Maria erreginarene denboran jazarraldi gogor samarra izan zen grekoaren ahoskera zela eta, eta pertsegitzaileak oker zeuden. Galileo zigorraziti zutenak are gehiago tronpatu ziren. Inkisidore orok barne-muinetaraino gorritu behar luke Kopernikoren esfera bat ikuste hutsaz. Ordea, Newton Portugalen jaio izan balitz eta dominikar batek heresia bat ikusi

balu distantzien karratuaren alderantzizko arrazoian, Sanbenito batez jantziko zuketena sir Isaac Newton Auto da Fe batean.

Sarri askotan galdetu izan da zergatik izan diren hain maiz ezjakin eta errukigabe beren ministerioak jakintsu eta barkabera izateko agintzen dietenak. Ezjakinak izan dira luzaro ikasi izan zutelako, eta krudelak izan dira euren ikasketa txarrak jakintsuen mesprezabide zirela ohartzen zirelako. Egiaz, Kopernikoren sistema, heretikotzat ezezik, absurdutzat ere kondenatzeko ausarkeria izan zuten inkisidoreek ez zuten sistema honi zertan beldur izan. Lurra eta beste planetak Eguzkiaren inguruan eramanak izan arren, haiek ez zuten ezer galtzen beraien irabazietatik ez beraien ohoreetatik. Dogma, halere, beti dago seguru, filosofoek baizik erasaten ez diotenean; unibertsoa akademiek oro ez dute herriaren sinestea ezertan aldaraziko. Zein da, hortaz, amorru honen iturburua, hainbat aldiz Anitusak Sokratesen kontra gogoberotu dituenak? Anitusek zera diote beren bihotzaren barnean: "Sokratesek mesprezatu egiten gaituzte." Nire gazte denboran uste izan nuen bere merezimendu gorenagatik aberastu zela Newton. Iruditzen zitzaidan Londresko Gorteak eta hiriak aho batez izentatu zutela Erresumako Moneten Maisu handi. Inola ere ez. Isaac Newtonek bazuen iloba maitagarri samar bat, Conduit anderea deitua. Berau biziki gogoko zuen Hallifax diruzain handiak. Kalkulu infinitesimalak nahiz grabitazioak ez zioteten ezertarako balio izango iloba polit bat gabe.

HEMEZORTZIGARREN GUTUNA

Tragediaz

Ingelesak, eta orobat espainiarrek, bazuten ordurako teatro bat, frantsesek teatrotxoak baino ez zituztenean. Shakespeare, ingelesen Corneilletzat hartua zena, Lope de Vegaren garatsuan loratu zen; berak sortu zuen teatroa. Indarrez eta joritasunez beteriko aiurria zuen, naturala eta sublimea, gustu oneko txinpart txikienik gabea, eta arauen ezagutza txikienik gabea. Gauza ausart, baina egiazkoa esango dizut: autore horren merituak galdu duela ingeles teatroa; hain eszena ederrak, hain zati handi eta izugarriak daude tragediak deitzen dieten fartsa itxuragabeko horietan, non pieza horiek arrakasta handiz antzeztuak izan baitira beti. Denborak, gizakien ospea eragiten duen bakarrak, errespetagarri bihurtzen ditu azkenean berorien akatsak. Autore honen ideia bitxi eta itzel gehienek berrehun urteren buruan lortu dute sublime fama izatea; autore modernoek kopiatu egin diote ia denek; Shakespearengan arrakasta zuena, ordea, txistukatua da hauengan eta dakikezunez, aspaldiko honi erakusten zaion benerazioa, modernoak gutxietsiak diren neurrian areagotzen da. Ez dute gogoeta egiten ez litzatekeela haren berdina egin behar, eta bere kopiatzaileen arrakasta txarrak hura imitaezintzat hartzera soilik eragiten du.

Zuk badakizu Veneziako Moroa-ren tragedian, antzerti-lan guztiz hunkigarrian, senar batek bere emaztea urkatzen duela antzeztokian, eta emazte gaixoa urkatu ondoren, txit bidegabeki hil dela egiten duela oihu. Ez duzu zuk enoratzen Hamlet-en ehorzleek hilobi bat haitzurtzen dutela edanez, vaudevilleak abestuz, eta aurkitzen dituzten buru-hezurren gainean euren lanbideko jendeari dagozkion txantxak egiten dituztelarik. Txundiaraziko zaituena, ordea, zera da, zozokeria horiek Karlos II.aren erregealdian, adeitasunaren eta arte ederren urrezko aroa zenean, imitatu izan direla.

Otway-k, bere Venezia salbatua-n, Bedmarko markesaren konspirazioko horroreen erdian sarrarazten ditu Antonio senadorea eta Naki gortesana. Antonio senadore zaharrak libertari zahar inpotente eta zentzugabe baten ziminokeria guztiak egiten ditu bere gorteanderearen ondoan; zezena eta txakurra imitatzen ditu, ostikoak eta zartadak ematen dizkion bere maitalearen zangoei horzka egiten die. Otwayren antzezlanetik kendu egin dira jendailarik bilauenarentzat eginiko bufoikeria hauek; hala ere, gorde egin dira Shakespeareren Julio Zesar-en Bruto eta Casiorekin eszenaturiko zapatari eta zapataginen txantxak. Otwayren zozokeria modernoa baita izan, eta Shakespearerena antigoalekoa.

Dudarik gabe, kexatu egingo zara orain arte ingeles teatroaz, eta bereziki Shakespeare sonatu horretaz, hitzegin dizutenek, haren hutsegiteak besterik ikusarazi ez dizkizutelako, eta inork ez duelako aipatu bere akats guztientzako barkamena eskatzen duten leku harrigarri horietako bat bakarrik ere. Nik erantzungo nizuke oso erraza dela poeta baten hutsegiteak prosaz adieraztea, baina oso zaila bere bertso ederrak itzultzea. Beren burua idazle ospetsuen kritikotzat hartzen duten marmarti guztiek liburuak pilatzen dituzte: nik nahiago nituzke zenbait edertasun ezagutaraziko lizkiguketen orrialde bi, ezen beti mantenduko baitut, gustu oneko jendearekin, probetxugarriago direla Homero eta Virgilioren hamabi bertso, bi gizon handi horiez egin diren kritika guztiak baino.

Arriskatu egin naiz ingeles poeta hoberenaren zati batzuk itzultzen: hona hemen Shakespeareren bat. Baimen emaiogu kopiari jatorrizkoaren faboretan, eta oroit ezazu beti, itzulpen bat dakusazunean, koadro eder baten irudi ahula baino ez duzula ikusten. Hamlet-en tragediako bakarrizketa hautatu dut, mundu guztiak ezagutzen duena, eta bertso honekin hasten dena:

To be or not to be, that is the question.

Hamlet, Danimarkako printzea, da mintzo dena:

Demeure, il faut choisir, et passer à l'instant
 de la vie à la mort, ou de l'être au néant.
 Dieux cruels! s'il en est, éclairez mon courage.
 Faut-il vieillir courbé sous la main qui m'outrage,
 supporter ou finir mon malheur et mon sort?
 Qui suis-je? qui m'arrête? et qu'est-ce que la mort?
 C'est la fin de nos maux, c'est mon unique asile;
 après de longs transports, c'est un sommeil tranquille;
 on s'en-dort, et tout meurt. Mais un affreux réveil
 doit succéder peut-être aux douceurs du sommeil.
 On nous menace, on dit que cette courte vie
 de tourments éternels est aussitôt suivie.
 O mort! moment fatal! afreuse éternité!
 Tout coeur à ton seul nom se glace, épouvanté.
 Eh! Qui pourrait sans toi supporter cette vie,
 de nos prêtres menteurs bénir l'hipocrisie,
 d'une indigne maîtresse encenser les erreurs,
 ramper sous un ministre, adorer ses hauteurs,
 et montrer les languers de son âme abattue
 à des amis ingrats qui détournent la vue?
 La mort serait trop douce en ces extrémités;
 mais l'escrupule parle, et nous crie: "Arrêtez!".

Il défend à nos mains cet hereux homicide,
 et d'un héros guerrier fait un chrétien timide, etc. ...⁴¹

Ez pentsa gero hitzez hitz itzuli dudarik hemen ingelesa; zoritxarrekoak hitzez hitzeko
 itzulpenen egileak, berba bakoitza itzuliz, esanahia ahultzen baitute. Kasu honetan bai
 esan daitekeela letrak hil egiten duela eta izpirituak biztu.

Hona hemen, baitere, ingeles tragiko baten pasarte bat, Drydenena, Karlos II.aren
 garaiko poetarena, autore emankorragea zentzuduna bainoago, orbaingabeko ospea
 izango lukeena, bere obren hamarrena baizik egin ez balu, eta zeinaren hutsegite handia
 unibertatsala izan gura izana baita.

Zati hau honela hasten da:

When I consider life, t's all a cheat.

Yet fool'd by hope men favour the deceit.

De desseins en regrets et d'erreurs en désirs

les mortels insensés proménent leur folie.

Dans des malheurs présents, dans l'espoir des plaisirs,

nous ne vivons jamais, nous attendons la vie.

Demain, demain, dit-on, va combler tous nos vœux;

demain vient, et nous laisse encor plus malheureux.

Quelle est l'erreur, hélas! du soin que nous dévore?

Nul de nous ne voudrait recommencer son cours:

de nos premiers moments nous attendons encore

ce qu'ont en vain promis les plus beaux de nos jours, etc.

Zati solte hauetan dira nabarmendu ingeles tragikoak orain arte: euren antzezpenek, ia
 denak basatiak, jendetasunik, ordenarik, egiantzik gabeak, distira harrigarriak dituzte
 gau horren erdian. Idaztankera hanpatuegia da, naturaz kanpokoegia, asiar hanturaz hain
 beteriko idazle hebertarrendandik kopiaturagia; aitortu behar da, halaber, estilo
 figuratuko makuluek, zeinen ganean baitago ingeles hizkuntza eraikia, izpiritua ere oso
 gora altxatzen dutela, urrats irregularrez izan arren.

Antzerti lan zentzuzko bat egin eta hasieratik bukaerara dotoretasunez idatzi duen lehen ingelesa, Adisson Jn. ohoragarria da. Haren Uticako Caton maisulan bat da mintzamenagatik eta bertsoen edertasunagatik. Catonen errola Corneilleren Ponpeio-ko Corneliorenaz gainetik dago nire gusturako; izan ere, Caton hantusterik gabe baita handi, eta Cornelio, beharrezko ez den pertsonaia bestalde, mordoilokeriara lerratzen da batzutan. Adisson Jn.aren Caton inongo antzokitan den pertsonaiarik ederrena iruditzen zait; oster, antzerkiko beste errolek ez dute behar besteko mailarik eta hain ederki idatzitako obra hau amodio intriga hotz batek itsusten du, zeinak piezan zehar heriotza dakarkion ahuleria hedatzen baitu.

Obra dramatikoetan maitasuna nola-hala sartzeko ohitura 1600. urte inguruan iragan zen Parisetik Londres, gure xingolekin eta gure pelukekin batera. Ikuskariak paratzen dituzten emakumeek, hemen bezala, ez dute jasan nahi maitasunaz ez bestetaz hitzegin diezaien. Adisson jakitunak bere izaeraren garraztasuna bere garaiko ohituretara plegatzeko nahikeria belaska izan zuen eta, atsegin eman nahi izateagatik, maisulan bat hondatu zuen.

Ordudanik, antzerti lanak erregularrango bilakatu dira, herria zailago, autoreak zentzuzkoago eta ez horren ausart. Ikusia dut antzezpen berririk, guztiz zuhurrak, baina hotzak. Badirudi ingelesak ez direla gaurdaino edertasun irregularrak sortzeko baizik eginak izan. Shakespeareren munstro distiratsuak zuhurtasun moderno baina mila bider gogokoagoak dira. Gaur arte, ingelesekin jeinu poetikoak naturak landaturiko zuhaitz usua ematen du, mila adar azarean botaz eta desberdinki eta indartsu haziz; hil egiten da, beraren izaera bortxatu eta Marlyko jardinetako zuhaitz baten antzera moztu nahi badugu.

HEMERETZIGARREN GUTUNA

Komediaz

Ez dakit nola De Muralt Jn. jakitun eta argia, zeinaren Ingeles eta frantsesei buruzko gutunak baititugu, Shadwell izeneko komiko bat kritikatzera mugatu den, komediaz hitz egiterakoan. Autore hau aski mesprezatu zen bere garaian; ez zen inondik ere jende errespetagarriaren poeta; haren antzerti-lanak, emanaldi batzutan herriaren gogokoak, gustu oneko jende guztiak erdeinatzen zituen, Frantzian jendea erakarri eta irakurleak uxarazten ikusi ditudan hainbat piezaren antza zuten, eta zeinengatik esan ahal izan baita:

Paris osoak kondenatzen ditu eta Paris osoa dabil haien atzetik.

De Muralt Jn.ak, dirudienez, aldi hartan bizi zen autore bikain batez hitzegin beharko zigukeen: Wicharley Jn.a zen, luzaro Karlos II.aren amoranterik printzipalenaren maitale aitortu zena. Bere bizitza gizarterik garaienean igaro zuen gizon honek ezin hobeki ezagutzen zituen haren bizio eta irrigarriak, pintzelik irmoenaz eta kolorerik egiazkoenez margotzen zituenez.

Molièregandik imitatu duen misantropo bat egin du. Wicharleyren trazoak oro indartsuago eta ausartago dira gure misantropoarenak baino; baina finezia eta jendetasun gutxiago du, baitere. Autore ingelesak zuzendu egin du Molièreren obran den akats bakarra; akats hau intriga eta interesik eza da. Ingeles pieza interesgarria da eta beraren intriga jeinutsua: ausartegia da, zalantzarik gabe, gure ohituratarako. Adorez, zintzotasunez eta giza jendearenganako mesprezuz beteriko untzi-kapitain bat da; adiskide burutsu eta leial bat dauka, zeinaz ez baita fido, eta samurki maite duen amorante bat, zeinarengan begiak ezartzera ez baita ausartzen; aitzitik, arnas hartzen duen gizakirik duinezana den sasi-adiskide batengan ezarri du bere konfidantza osoa, eta emakume guztietan koketenari eta fede gaiztokoenari eskaini dio bere bihotza; txit seguru dago Penelope bat dela emakume hori eta sasiadiskide hori Caton bat. Holandarren aurka borrokatzera abiatzen da eta bere dirua guztia, bere harribitxiak eta munduan duen guztia emakume on horri uzten dizkio, eta emakume hau berau adiskide leial horri gomendatzen dio, harengan zalantzagabeko usteon baitu. Alabaina, hain mesfidagarria zaion gizon zintzoa berarekin untziratzen da; eta begiratzeko ere duin ez zen maitalea morroiz mozorrotu eta itzuli guztian kapitain haren sexuaz ohartzeke egiten du bidaialdia.

Kapitaina, bere itsasuntzia erasoaldi batean saltarazi ondoren, Londresa da itzultzen, laguntzarik gabe, untzi nahiz dirurik gabe, bere morroiarekin eta bere lagunarekin, ez bataren adiskidetasuna ez bestearen maitasuna ezagutzeke. Badoa zuzenean emakumeen perlaren etxera, zeina bere dirukutxarekin eta bere fideltasunarekin aurkitzea espero baitu: fidatu zeneko frikun onestarekin ezkondua dago, eta ez diote bere ondasuna gainerakoa baino hobeki gorde. Nire gizonari zeharo nekeza egiten zaio emakume on batek halako jukutriarik egin dezakeenik sinestea; baina, hura hobeto konbentzitzeko, andere prestu hau morroi txikiaz maitemintzen da eta bortxaz bereganatu nahi du. Hala ere, beharrezkoa denez zuzenbidea egin dadin eta antzerti lan batean bizioa zigortua eta bertutea saritua izan dadin, hara zer gertatzen den ororen buruan, kapitaina morroiaren lekuan jartzen da, bere desleialarekin oheratzen da, bere saltzaile lagunari adarrak jartzen dizkio, ezpatakada on bat ematen dio gorputzean zehar, bere diru-arka berreskuratu eta bere morroiarekin da ezkontzen. Ohartuko zarenez, sarrera egiten du pieza honetan Pimbesheko kondesa batek ere, auzilari zaharra, kapitainaren lehengusina, zeina, teatroan den kreaturarik atseginena eta karaktererik hoberena baita zinez.

Wicharleyk Molièregandik hartu du, halaber, pieza ez gutxiago bakan eta ausarta: Emakumeen eskola-ren antzeko bat da.

Antzerkiko pertsonaia nagusia pikaro irri egingarri bat da, Londresko senarren izumena, zeinak, bere jokuaz seguruago egoteko, zurrumurru hau zabaltzen baitu, bere azken gaisotasunean zirujauk irendu egiten dutela, alegia. Fama on honekin, senar guztiek beren emazteak ekartzen dizkiote, eta gizaixoak hautaketarena beste eragozpenik ez du; lehentasuna damaio batez ere inozentzia eta tenperamentu asko duen laboraritzo bati, zeinak adarrak jartzen baitizkio bere senarrari damarik trebeenen maliziak baino gehiago balio duen fede onaz. Antzerti lan hau ez da, nahi baduzu, ohitura onen eskola, baina bai horregatik bizitasunaren eta komiko onaren eskola.

Vanbrouck delako zaldun batek komedia are irrigarriagoak egin ditu, baina ez horren burutsuak. Zaldun hau gizon atseginkoia zen; horrezaz gainera, poeta eta arkitektoa: bada esaten duenik eraikitzen zuen moduan idazten zuela, trakets samar. Bera da Blenheimeko jauregi sonatua eraiki zuena, Hochsteteko gure bataila zorigaiztokoaren oroigailu dorpe eta iraunkorra. Murruak lodiak diren bezain zabalak balira gelak soilki, jauregi hori nahikoa eroso litzateke.

Vanbroucken epitafioan zera jarri zuten, lurra arina ez izatea opa ziotela, bizi zelarik hain basaki zamatu zuenez gero.

Zaldun honek, 1701eko gerratearen aurretik Frantzian zehar itzulia egin zuelarik, Bastillan giltzaperatua izan zen eta bertan eman zuen zenbait denbora, gure Ministerioaren aldetiko goraipamen hau zerk erakarri zion sekula jakin ahal izateke. Komedia bat egin zuen Bastillan; eta nire iritziz guztiz bitxia dena zera da, ez dagoela antzerti-lan honetan indarkeria hori jasanarazi zion herriaren kontrako inolako arrastorik.

Ingeles guztien artean, teatro komikoaren ospea urrutien eraman duena, Congreve Jn. zena da. Pieza gutxi baizik ez du idatzi, baina guztiak dira bikainak beren arloan. Antzerti arauak zorrozki gordetzen dira haietan; erabateko fineziaz ñabarturiko adiurrez beteak daude; ez da onartzen txantxa gaizto txikienik ere; han nonnahi ikusten duzu jende prestuaren hizkera barrabasari dagozkion ekintzekin; bere mundua ongi ezagutzen zuela, eta konpainia ona deitzen den horretan bizi zela frogatzen du horrek. Eri eta ia hilik zegoen nik ezagutu nuenean, akats bat zuen, aurreneko bere autore ofizioa, bere entzutea eta bere aberaspidea eragin zituen, nahikoa estimatu ez izana. Bere mailaren azpiko bagatela gisa hitz egiten zidan bere antzezlanek eta, gure lehen solasaldian, zera esan zidan, oso sinpleki bizi zen aitonen semetzat baino ez hartzeko bera; nik zera erantzun nion, beste edozein bezalako aitonen seme baizik ez izateko zoritxarra izan balu, inoiz ez nintzaiokeela ikustera etorriko, eta harri eta zur geratu nintzen hain gaizki bideratutako harrokeria horretaz.

Haren piezak izpiritualenak eta zehatzenak dira; Vanbrughenak, alaienak, eta Wicherleyrenak, indartsuenak.

Azpimarragarria da izpiritu eder horietako inork ez duela Molièrez gaizki hitzegin. Ingeles autore txarrek soilik esan dituzte moldakaizkeriak gizon handi honetaz. Italiako musikari txarrek dira Lully mesprezatzen dutenak, baina Buononcini batek estimutan dauka eta justizia egiten dio. Mead batek Helvetius bati eta Silva bati kasu egiten dien gisa berean.

Ingalaterrak badu poeta komiko onik ere, hala nola Steele zalduna eta Cibber Jn.a, antzerkigile bikaina eta Erregearen poeta gainera, erridikulua dirudien titulua, baina mila ezkutu errenta eta pribilegio ederrak ematen dituen. Gure Corneille handiak ez zuen horrenbeste eduki.

Gainerakoan, ez iezadazu eska aldeko porrokatua naizeneko pieza ingeles horien xehetasunik txikienean sartzeko, ezta Wicherley edo Congreveren txantxa edo esaldi on bat zuei aipatzeko; ez da barrerik egiten itzulpen batean. Ingeles komedia ezagutu nahi baduzu, Londres joatea beste biderik ez dago horretarako, han hiru urte igaro, ingelesa

ondo ikasi eta egunero komediara joatea. Plauto eta Aristofanes irakurriz ez dut atsegin handirik hartzen: zergatik? ez naizelako greziarra ez erromatarra. Esaldi politen abilezia, alusioa, ateraldiak, hori guztia galdua da kanpotarrentzat.

Tragedian ez da halakorik gertatzen; han ez da iharduten grina handiez eta alegia nahiz histori errakuntza zaharrek kontsakraturiko zorakeria heroikoez baizik. Edipo, Elektra, espainiarrena, ingelesena eta gurea da greziarrena bezalaxe. Komedia ona, ordea, nazio bateko bitxikerien pintura mintzoduna da, eta ez baduzu nazioa sakonki ezagutzen, ezin dezakezu pintura juzga.

HOGEIGARREN GUTUNA

Letrak lantzen dituzten jaunez

Izan zen garai bat Frantzian non Estatuko lehenek Arte Ederrak lantzen baitzituzten. Gortesauak arduratzen ziren batez ere horretaz, nahiz eta axolagabekeria, huskerien gustua, azpikeriekiko grina, guztiak herrialdearen jainkotasunak izan.

Iruditzen zait ezen gaur egun gortean letrekiko guztiz bestelako gustua dela nagusi. Denbora gutxi barru, agian, pentsatzeko moda itzuliko da: errege batek nahi izatea aski; nazio honetaz nahi den guztia egiten da. Ingalaterran pentsatu egin ohi da eskuarki eta letrek Frantzian baino ohore handiagoa dute. Abantaila hau haien gobernabidearen ezinbesteko ondorioa da. Badira Londresen zortziehunen bat pertsona agerian hitzegin eta nazioaren interesei eusteko eskubidea dutenak; bost edo sei mila inguruk, orobat, ohore bera nahi dute; gainerako guztiek berorien epailetzat dute euren burua eta zeregin publikoez pentsatzen duena inprimaraz lezake edonork. Hala, nazio osoak du eskolatzeko premia. Atenas eta Erromako gobernuez baizik ez da mintzatzen entzuten; beharrezko da, eskolatuak izan arren, beraietaz mintzo izan diren autoreak irakurtzea; ikasketa horrek berez-berez darama letra ederretara. Eskuarki, gizakiek beren egoeraren izpiritua dute. Zer dela eta, gehienetan, gure magistratuek, gure abokatuek, gure medikuek eta anitz elizgizonek eskola, gustu eta jeinu gehiago dute, gainerako lanbide guztietan aurkitzen dena baino? Ezen izpiritua landuta edukitzea baita euren egoera, nola merkatari batena bere negozioa ezagutzea baita. Ez da denbora asko jaun ingeles gazte-gazte bat Italiatik itzultzean Parisera ikustera etorri zitzaidala; bertsotan egina zuen herri horren deskribapen bat, Rochesterko kondeak eta gure Chaulieuek, gure Sarrasindek eta gure Chapelleek egin duten guztia bezain txukunki idatzia.

Nik egin dudan itzulpena jatorrizkoaren indarra eta umore ona iristetik hain urruti dago non barkamena seriooki eskatu beharrean bainaiz autoreari eta ingelesa ulertzen dutenei; hala ere, Milord...-en⁴² bertsoak ezagutarazteko beste biderik ez dudanez, hona hemen itzulita:

Zer ikusi dut, bada, Italian?

harrotasuna, maltzurkeria eta lazeria;
konplimendu handiak, zintzotasun gutxi
eta zeremonia ugari;
komedia bitxia

askotan Inkisizioak⁴³

erlijioa deitu nahi duena
baina hemen zorakeria deitzen duguna.

Natura banoki ongiegileak
leku xarmant horiek nahi ditu joritu:
apaizen esku hondagarriak
haren opari ederrenak itotzen ditu.

Monsinoreak, ustez handiak,
bakarrik euren jauregi bikainetan,
alferrontzi ilustreak dira,
dirurik eta zerbitzaririk gabeak.

Txikiei dagokienez, askatasunik gabe
menperatzen dituen uztarriaren martiri,
pobretasun botua dute egin,

Jainkoari nagikeriaz otoizka,
eta miserian barau eginez beti.

Aita Santuak bedeinkaturiko leku xarmantok
deabruz biztanduak dirudite

eta bizilagun urrikalgarriak
paradisuan daude kondenatuak.

Bertso hauek heretiko batenak direla esango dute, beharbada; alabaina, egun oroz itzuli ohi dira, eta nahiko gaizki ere bai, paganoak izateko zoritxarra zuten Horazio eta Juvenalenak. Ongi dakizue itzultzaileak ez duela bere autorearen sentimenduen erantzule izan behar; egin dezakeen guztia, haren konbertsioaren alde Jainkoari erregutzea da, horixe baita, izan ere, nik Milordenaren alde egiten dudana.

HOGEITA BATGARREN GUTUNA

Rochesterreko Kondeaz
eta Waller jaunaz

Mundu guztiak ezagutzen du bere ospeagatik Rochesterreko kondea. Saint-Evremond Jaunak asko hitz egin du hari buruz; alabaina, ez digu ezagutarazi Rochester famatuaz gizon atseginkoia, zori oneko gizona baizik; jeinu gizona eta poeta handia ezagutarazi nahi dizut nik harengan. Berari baizik ez dagokion irudimen sutsu horrekin distiratzten duten obren artean, gure Despreaux ospetsuak hautatu zituen gai berberei buruzko satira batzuk egin ditu. Gustua hobetzeko ez dut gauza baliagarriarik ezagutzen gai berberaz ihardun izan duten jeinu handien konparaketa baino.

Hona hemen nola mintzatu den Despreaux Jna. giza arrazoiaren kontra gizakiari buruzko bere satiran:

Hala ere, hura ikusita, lurrun arinez beterik
bere burua kulunkatzen bere kimera propioetan,
bera bakarrik da naturaren oinarri eta habe,
eta hamargarren zerua ez da beregatik baizik biratzen.

Abere guztietan bera da nagusi hemen;
nork uka lezake, diozu? Neuk, agian:

legeak diktatzen dizkien nagusi delako horrek,
animalien errege horrek, zenbat errege ditu?

Hona hemen, gutxi gorabehera, nola mintzo den Rochesterreko Kontea gizakiari buruzko bere satiran; beharrezko da, ordea, irakurleak birgogora dezan poeta ingelesaren itzulpen librearen direla hauek, eta bertso gintzaren kezka eta gure hizkuntzaren gozotasun eztiak ez daitezkeela ingeles estiloaren lizentzia oldartsuaren baliokide izan.

Gorrito dudan izpiritu hori, hutsegitez josiriko izpiritu hori,

ez duk nire arrazoia, Doktore, hirea baizik;

hire arrazoia fribolo, urduri, harroa duk

abere jakintsuen arerio erdeinakorra

berorien eta aingeruaren artean erdia atxiki

eta mundu honetan bere Jainkoaren irudia izan uste du,

atomo bilau nardagarria, sinetsi, dudatu, eztabaidatu,

arrastatu, altxatu, jausi eta bere erorketa ere ukatzen duena;

esaten diguna: "aske naiz", bere kateak erakutsiz

eta zeinaren begi uher eta faltsuak unibertsoa zulatu uste baitu.

Tira, agurgarri erook, burubero doatsuok!

pila itzazue zeuen huskeria eskolastikook!

Ikuskarien eta enigma sakratuen gurasook,

galtzen zareteneko labirintoaren egileok,

zoazte ilunki zeuen misterioak argitzera,

eta kurri eskolara zeuen kimerak gurtzera!

Bada beste hutsik, debotu horiena,

beren kabuz atsedenenaren gogaitasunera kondenatuena.

Mistiko klaustratu hori, bere nagitasunaz harro,

Jainko baitan lasai, zertan ari da? Pentsati dago.
Ez, hik ez duk pentsatzen, miserablea, lo hago.
Lurrarentzat ezgauza eta hilen pareko,
hire izpiritu ahula belaskerian duk kokorikatzen;
Itzar hadi, gizon izan hadi, eta heure mozkorralditik irten hadi.
Gizakia ekiteko duk jaio, eta hik gogoetan nahi duk ari!
Ideia hauek egiazkoak ala faltsuak izan, poeta markatzen duen indarrez adierazita daude.

Gauza filosofo gisa aztertzeaz eta pintzela konpasaz ordezteaz ondo begiratuko naiz hemen. Nire xede bakarra gutun honetan ingeles poeten jeinua ezagutaraztea da eta tonu berean jarraituko natzaio.

Asko hitz egin izan da Waller ospetsuaz Frantzian. La Fontaine, Saint-Evremond eta Bayle Jn.ek goretsi egin dute; baina haren izena besterik ez da ezagutzen berataz. Voiturek Parisen ukan zuen ospe beretsua izan zuen gutxi gorabehera Londresen, eta nik uste dut gehiago merezi zuela. Artean ezjakintasunean zeudeneko eta barbareriatik irtetzen ari zireneko garaian etorri zen Voiture. Jeinua eduki nahi zuten baina ez zeukaten artean. Pentsamenduen ordeztzulinguruak bilatzen zituzten: brilante faltsuak harribitxiak baino aiseago aurkitu ohi dira. Voiture, jeinu fribolo eta errazaz jaioa, frantses literaturaren goiztiri honetan distiratu zuen aurrenekoa izan zen; Louis XIV.aren mendea ilustratu duten gizaki handien ondoren etorri izan balitz, edo ezezaguna izango zatekeen, edo mesprezatzeko baizik ez zuketzen berataz hitz egingo, edo bere idaztankera zuzenduko zukeen. Despreaux Jnak. goraipatu egiten du, baina bere lehen satiretan, ordea; Despreauxen gustua anartean eratzeko zegoen aldia zen: gaztea zen eta gizakumeak beren izatez ez baizik beren entzutearengatik juzgatu ohi diren adinean zegoen. Bestalde, Despreaux biziki zuzengabea zen maiz bere laudorioetan eta bere maiseoetan. Segrais goraipatzen zuen, inork irakurtzen ez duena; Quinault iraintzen zuen, zeina mundu guztiak buruz ezagutzen baitu; eta ez du deus esaten La Fontainez. Waller, Voiture baino hobe, ez zen artean perfektua: haren obra adeitsuek grazia jarriotzen dute; zabarkeriak, baina, ahuldu egiten ditu, eta sarritan gogoeta faltsuek dituzte desitxuratzen. Ingelesak haren garaian ez ziren artean xuxen idaztera iritsi. Haren gainerako piezen bigunkeriaz itxarongo ez genukeen indarraz beterik daude bere obra serioak. Beronek egin du Cromwellen hileta gorazarre bat, beronen akats eta guzti, maisulantzat jotzen dena. Lan hori ulertzeko, Cromwell ohi ez bezalako ekaitz egun batean hil zela jakin behar da.

Honela hasten da antzerti lana:

Ez dago jada; akabo da, amore eman diezaiozun zorteari:

ortzeak ekaitzez markatu du egun hori,
eta trumoi hotsak, gure gainean lehertuz,
haren heriotza iragarri berri du.
Bere azken hatsez irla hau du kordokatzen,
bere besoak hainbatetan dardarazi zuen irla hau,
bere balentrien ibilbidean zehar
erregeen burua zuenean hausten
eta herri otzan hutsa bere uztarpean ezartzen.
Itsaso, zakartu egin hintzen. Oi itsaso! hire olatu nahasiek
bazter urrunenei orro eginez esaten bide dute
lurreko izumena, eta hire jabea, akabo dela.
Behiala Romulo zerura hegaldatu zen bezala,
hala utzi zuen lurra ekaitz artean,
hala jaso zuen herri gerlariaren omena:
obeditua bizi zenean, gurtua bere heriotzean,

haren jauregia tenplu bat izan zen, etab...

Cromwellen gorespen horren kariaz erantzun zion honela Karlos II.a erregeari, Bayleren hiztegian ageri denez. Erregeak, zeinari Wallerrek, errege eta poeten usadioaren arabera, laudorioz beteriko pieza bat aurkeztu berria baitzion, Cromwelli hobeto egin ziola aurpegiratu zion. Wallerrek erantzun zion: "Sire, guk poetok arrakasta handiagoa dugu fikzioetan egietan baino". Erantzun hau ez zen enbaxadore holandarrarena bezain egiatia, zeinak, errege berau kexatzen zenean Cromwellekin baino begirune gutxiago zutela berarekin, erantzun baitzuen: "Ai, Sire, Cromwell hori oso bestelako gauza zen." Nire helburua ez da Wallerren izaeraz ez inorenaz komentariarik egitea; beren heriotza ostean, beren obregatik baizik ez dut jendea kontuan hartzen; gainerako guztia ezereztaturik dago niretzat; hau ohartarazten dut soilik, Wallerrek, gortean jaioak, hirurogei mila libera errentarekin, ez zuela inoiz bere talentua bazter uzteko harrokeria tontorik ez nagikeriarik izan. Dorseteko eta Roscommongo kondeek, Buckinghamgo dukeek, Milord Halifaxek eta beste hainbatek ez dute beren burua apaldu uste izan poeta txit handi eta idazle ohoragarri bihurtuz. Beraien izenak baino ohore handiagoa damaiete euren obrek. Berorietatik beren aberastasuna itxaron bailuten landu dituzte letrak; gainera, arteak errespetagarri bilakarazi dituzte herriaren begietarako, zeinak guztian baitu handien gidaritzaren premia, eta, halere, beroriengandik gutxiago gidatzen dira Ingalaterran munduan beste inongo aldetan baino.

HOGITA BIGARREN GUTUNA

Pope jaunaz eta beste poeta

ospetsu batzuez⁴⁴

Prior jaunaz, Ingalaterrako poeta maitagarrienetakoaz hitz egin nahi nizun, zeina Parisen ikusi baituzu plenipotentziario eta ezohiko mandatari gisa 1712an. Zuri ematekotan nintzen, baitere, Milord Roscommonen, Milord Dorseten, etab.en poesiei buruzko argibideren bat; baina ohartzen naiz liburu guztiz lodia egin beharko nukeela eta, neke askoren ondoren, obra horien guztien ideia zeharo eskas bat besterik ez nizukeela emango. Musika mota bat da poesia: berau epaitzeko entzun egin behar da. Poesia atzerritar horien zati batzuk itzultzen dizkizudanean, berorien musika adierazten dizut imperfektuki; alabaina, ezin dizut jakinarazi berorien abestiaren gozoa.

Bada bereziki ingeles poema bat zuri ezagutarazteko amorratzen nagoena; Hudibras du izena. Gudu zibila eta irrigarri utzitako puritanoen sekta du gaitzat. Don Kixote da, gure Satira Menipea da, batera bilduta: inoiz irakurri ditudan liburuetan, agudeziaz beteena da; itzulgaitzena ere bada, ordea. Nork uste izango zuen giza generoaren ahalketasun guztiak atzematen eta hitzak baino pentsamendu gehiago dituen liburu batek ezin duela itzulpenik jasan? Bertan ia guztiak abentura bereziei aipamena egiten dielako da, izan: ahalkerik handiena teologoen gain erortzen da batik bat, berauei munduko jende gutxik ulertzen baitie; aldi bakoitzean iruzkin bat beharko litzateke, eta txantxa azalaraziak txantxa izateari uzten dio: esaldi burutsuen komentatzaile oro inozo bat da.

Hona zergatik ez lituzketen inoiz ondo ulertuko Frantzian Swift doktore adimentsuaren liburuak, zeinari Ingalaterrako Rabelais deitzen baitiote. Apaiz izateko ohorea du, Rabelaisak bezala, eta orotaz burlatzekoa, hark bezalaxe; hala ere, bidegabekeria handia egiten zaio, ene iritzi apalean, izen horrekin deituz. Rabelaisak, bere liburu bitxi eta ulergaitzean, alaitasun bete-betea eta ausartzia are handiagoa ixuri ditu; erudizioa, zikinkeria eta asperdura barreiatu ditu; bi orrialdeko ipuin on batek tontakeria pila baten kontrapisua du. Gustu bitxiko pertsona banaka batzuk baino ez dira harrotzen obra hau guztia konprenitu eta estimatzeaz, nazioko besteei irri dagite Rabelaisen txantxez eta liburua gutxiesten dute. Bufoietan aurrenekotzat daukate; sumindu egiten gara horrenbesteko adimena zuen gizon batek hartaz hain erabilera eskasa egin izanagatik; filosofo mozkor bat da, bere mozkoraldian baizik idatzi ez duena⁴⁵.

Swift Jn.a Rabelais da, bere zentzu eta lagunarte onean biziz; ez dauka, egiaz, lehenaren alaitasuna, baina Mendongo gure apaizari falta zaion gustu ona, hautamena, arrazoa eta fintasun guztia badu. Haren bertsoak gustu apartekoak eta ia imitaezinak dira; txantxa ona da bere dohaina bertsotan zein prosan, baina, hura ondo ulertu ahal izateko, bidaialditxo bat egin behar da bere herrialdera.

Errazago molda dezakezu nolabaiteko ideia bat Pope Jn.ari buruz; berau da, nik uste, Ingalaterran izan den poetarik dotoreena, zuzenena eta, are gehiago dena, harmoniatsuena. Tronpeta ingelesaren txistu garratzak xirularen doinu ezti bilakarazi ditu; itzuli egin daiteke, zeharo argia baita, eta bere gai gehienak orokorrak eta nazio guztiei dagozkienak baitira.

Laster ezagutuko da Frantzian bere Kritikari buruzko entseiua, Resnelko Abate Jn.ak bertsotan egin duen itzulpenean.

Hona hemen bere Ile kizkurra poemaren zati bat, neure ohiko askatasunaz itzuli berri dudana: ezen, berriro diot, poeta bat hitzik hitz itzultzea baino gauza okerragorik ez baitut ezagutzen.

Umbriel à l'instant, vieux gnome rechigné,
va, d'un aile pesante et d'un air renfrogné,
chercher, en murmurant, la caverne profonde
où, loin des doux rayons que respand l'oeil du monde,

la déesse aux vapeurs a choisi son séjour.
Les tristes Aquilons y sifflent a l'entour,
et le souffle malsain de leur aride heleine
y porte aux environs la fièvre et la migraine.
Sur un riche sofa, derrière un paravent,
loin des flambeaux, du bruit, des parleurs et du vent,
la quinteuse déesse incessamment repose,
le coeur gros de chagrins, sans en avoir la cause,
n'ayant pensé jamais, l'esprit toujours troublé,
l'oeil chargé, le teint pâle, l'hypocondre enflé.
La médisante envie est assise auprès d'elle,
vieux spectre féminin, decrepite pucelle,
avec un air dévot déchirant son prochain,
et chanssonnant les gens l'Evangile à la main.
Sur un lit plein des fleurs négligemment penchée,
une jeune beauté non loin d'elle est couchée:
c'est l'Affectation, qui grasseye en parlant,
qui rougit sans pudeur, et rie de tout sans joie,
de cent maux différents prétend qu'elle est la proie,
et, pleine de santé sous le rouge et le fard,
se plaint avec mollesse et se pâme avec art.

Irakurriko bazenu zati hau jatorrizkoan, itzulpen ahul honetan irakurri ordez, Atrila-ko nagikeriaren deskribapenaz alderatuko zenuke.

Horra hor txit oneski ingeles poetei buruzkoa; esana dizut hiztxo bat euren filosofoez. Historigile onei dagokienez, ez diet bakar bat ere ezagutzen oraindik, beharrezko izan da frantses batek beren historia idatz diezaien. Agian jeinu ingelesak, hotz edo oldartsu izaki, ez ditu oraindik atzeman hitz jariotasun tolesgabe hori eta historiaren taxu noble eta xume hori; agian, baitere, ikusmena lausotzen duen alderdikeriak beraien historigile guztiak deskreditu ditu: nazioko erdia beste erdiaren etsai da beti. Aurkitu izan dut jenderik segurtatu didana Milord Malborough koldarra zela eta Pope Jn.a ergela zela, hala nola Frantzian zenbait jesuitak izpiritu ziztrintzat baitauka Pascal eta zenbait jansenistak esaten baitu aita Bourdalouse hitzontzi bat besterik ez zela. Maria Estuardo santu harrigarria da jakobistentzat; gainerakoentzat, zirtzila, adulteriogilea eta gizahiltzailea; honela, Ingalaterran bada libelurik baina ez historiarik. Egia da badela gaur egun Gordon Jn. bat, Tazitoren itzultzaile bikaina, bere herriko historia idazteko guztiz gai dena, baina Thoirasko Rapin Jn.ak aurea hartu dio. Hitz batez, iruditzen zait ingelesek ez daukatela guk adinako historigile onik, ez daukatela benetako tragediarik, komedia xarmangarriak dituztela, poesia zati miresgarriak eta giza generoaren irakasle izan behar luketen filosofoak.

Ingelesak asko baliatu dira gure hizkuntzako lanez; maileguz eman ondoren, geuk ere haiengandik zerbait hartu behar genuke: ingelesak eta gu italiarren ondoren etorri gara, berauek izan baitira guztian gure maisuak eta zenbait gauzatan gainditu ditugunak. Ez dakit hiru nazioetako zeini eman beharko litzaiokeen lehentasuna; baina dohatsua berorien merezimendu desberdinak hautematen dakiena!

HOGEITA HIRUGARREN GUTUNA

Letretako jendeari zor zaion

begiruneaz

Ez Ingalaterran ez munduko inongo herrialdetan aurkitzen da arte ederren aldeko eraikuntzarik Frantzian ezik. Ia nonahi daude unibertsitateak; alabaina, Frantzian bakarrik aurkitzen dira astronomiarako, matematikaren atal guztietarako, medikuntzarako, antzinatearen ikerketarako, pintura, eskultura eta arkitekturarako eragingarri horiek. Luis XIV.a hilezko bihurtu da fundazio horien guztiengatik, eta hilezkortasun hori ez zaio kostatu berrehun mila libera ere urtean.

Aitor dut nire harriduretako bat zera dela, Ingalaterrako Parlamentuak, zeinak luzeren ezinezko aurkikuntza egiten duenari hogeit mila ginea hitzmatea erabaki baitu, Luis XIV.a arteekiko bere handitasunean imitatzea sekula pentsatu ez izana.

Merezimenduak zinez aurkitzen du Ingalaterran sari ohoragarriagorik nazioarentzat. Hainbestekoa da herri horrek talentuenganako duen errespetua, non merezimenduzko gizaki batek fortuna egiten duen han beti. Addison Jn.a, Frantzian, akademia batekoa izango zatekeen eta, emakumeren baten izen ona medio, mila eta berrehun liberako pentsioa iritsiko zukeen, edo hobeki, arazoak sortuko zizkioketen, Caton bere tragedian, gizon posiziodun baten atezainaren kontra zenbait arrasto nabaritu izanaren aitzakiaz; aldiz, Ingalaterran, Estatu idazkaria izan da. Newton Jn.a erresumako moneten intendentea zen; Congreve Jn.ak kargu inportantea zeukan; Prior Jn.a plenipotentziarioa izan da. Swif doktorea Irlandako deana da, eta lehen apezpikua baino estimatuagoa da han. Pope Jn.aren erlijioak ez baldin badio ere plaza bat izaten uzten, ez dio eragozten bederen Homeroren bere itzulpenak berrehun mila libera balio izana. Luzaro ikusi dut Frantzian Rhadamiste-ren egilea⁴⁶ goseak hiltzeko zorian; eta Frantziak ukan duen gizon handienetarikoa baten semeak, bere aitaren oinatzetatik ibiltzen hasia zena⁴⁷, miseriara eraitsia izango zatekeen Fagon Jn.a gabe. Ingalaterran Arteak gehien sustatzen dituen, beroriek duten estimua da; lehen ministroaren erretratua bere bulegoko tximiniaren gainean aurkitzen da; Pope Jn.arena, berriz, hogeit etxetan ikusia dut.

Newton Jn.a ohoratua izan zen bere bizi-denboran, eta hil ondoren ere behar bezala omendua izan da. Nazioko printzipalak haren hiletako segizioan hil ohiala eramateko ohoreagatik lehiatu dira. Sar zaitez Westminsterren. Ez dira erregeen hilobiak han miresten direnak; nazioaren errekonozimenduak beraren loriari lagundu dioten gizakirik handienei eraikitako monumentuak dira; haien estatuak ikusten dituzu bertan, Atenasen Sofokles eta Platonenak ikusten ziren bezala; eta konbentziturik nago oroitarri aintzatsu horien ikuste hutsak izpiritu bat baino gehiago akuilatu duela eta gizaki handi bat baino gehiago moldatu.

Ingeleseki aurpegiatu ere egin zaie urrutiegi joan izana merezimendu hutsari ematen dizkioten ohoretan; eragozpenak jarri dituzte Miss Oldfield komedianten ospetsua Westminsterren gutxi gorabehera Newton Jn.ari eman zaizkion ohore berberei ehortzi izanagatik. Batzuek esan izan dute Mlle. Lecouvreurren gorpua zimauregira bota izanagatik egozten ziguten bidegabekeria basati eta koldarra guri gehiago sentiarazteko egin zituztela aktorea hau neurri horretaraino omentzeko itxurak⁴⁸.

Nik, ordea, segurtatzen diezazuket ingelesek, euren Saint-Denisen hilobiratutako Miss Oldfielden hiletan, ez diotela beraien gustuari baizik kontsulta egin; oso urrun daude Sofokles eta Euripidesen arteari infamia iratxikitzei, eta, euren herria loriatzen deneko obrak beraien aurrean errezitatzen dihardutenak, haien herrikideen elkartetik kentzetik.

Karlos Lehenaren garaian, eta errigorista fanatikoek hasitako gerra zibil horien hasieran, zeinen biktima izan baitziren azkenean beraiek, asko idatzi ohi zen ikuskizunen aurka, hainbat gehiago Karlos Lehenak eta beraren emazteak, gure Enrike Handiaren alabak, izugarri maite baitzituzten.

Prynne izeneko doktoreak, kezkatu bururaino, gainjantzi motz baten ordeztutana bat eramanez izan balu kondenatutzat sentituko zatekeenak, eta Jainkoaren aintzagatik eta propaganda fideagatik gizakien erdiak beste erdia sarraskitu izana nahiko zutekeenak, liburu zeharo txar bat idaztea erabaki zuen errege-erreginarene aurrean batere gaiztakeriarik gabe egunero jokatu ohi ziren komedia aski on batzuen kontra. Rabinoen agintea eta San Bonaventuraren zenbait pasarte aipatu zituen Sofoklesen Edipo Deabruaren obra zela eta Terentzio ipso facto eskomikaturik zegoela frogatzeko; eta erantsi zuen ezen jansenista txit zorrotza zen Brutok ez zuela Zesar hil, ez bada Zesarrek, Apaiz Nagusia zenak, Edipo-ren tragedia bat egin zuelako; azkenik esan zuen ikuskari batera joaten ziren guztiak beren krisma eta beren bataioa ukatzen zituzten eskomikatuak zirela. Erregea eta errege familia osoa laidoztatzea zen hau. Ingelesek begirune zioten orduan Karlos Lehenari; ez zuten jasan nahi izan, gero burua moztu zioten printze hori berori eskomikatzeari hitzegin zezaten. Prynne Jna. Ganbara izarreztatuaren aitzinera deitua izan zen, bere liburu berreroaren eskuaz erreta ikustera eta bere belarriak moztuta ikustera kondenatua. Haren auzia akta publikoetan gordetzen da.

Ondo zaintzen dira Italian opera egurtzeak eta signor Senozini edo signora Cuzzoni eskomikatzeari; niri dagokidanez, gure ikuskizun aurka Frantzian argitaratu diren nik ez dakit zer liburu kaxkar ezaba ahal daitezen desiratzera ausartuko nintzateke; ezen, italiar nahiz ingelesek, gailentzen gareneko arte bat itsuskeria handienaz lohitzen dugula jakin dezaten; erlijiosoen artean eta komentuetan antzezturiko ikuskari bat fedegabekotzat kondenatzen dela; Luis XIV eta Luis XV.a aktore izan diren jokoak desohoratu egiten direla; magistratu zorrotzenek berrikusi eta erregina bertutetsu baten aitzinean jokatutako piezak deabruaren obratzat deklaritzen direla; kanpotarrak, diot, jabetu daitezenean ozartasun honetaz, errege aginpidearekiko begirune falta honetaz, kristau zorrozatasuna deitzera ausartzen diren barbarokeria gotiko honetaz, zer nahi duzu gure nazioak pentsa dezaten? Eta, nola pentsa dezakete, edo gure legeak baimena eman diezaioten horren ahalkegarritzat jotako arte bati, edo halako infamiaz markatzera ausart daitezen legeak onarturiko arte bat, subiranoek sariztatua, gizaki handiek landua eta nazioek miretsia; eta liburu saltzaile berberarenean aurkitzea gure ikuskizun aurkako aita Le Brunen adierazpena, Racine, Corneille, Molière, etab.en obra hilezinen alboan?

HOGITA LAUGARREN GUTUNA

Akademie⁴⁹

Ingelesak Zientzien Akademia bat izan dute guk baino askoz lehenago; ez dago, ordea, gurea bezain ongi arautua, eta hau, agian, antzinakoagoa delako arrazoi soilarengatik; zeren eta Pariseko Akademiaren ondotik eratua izan balitz, berorren zenbait lege zuhur onartu eta gainerakoak hobetuko baitzituzkeen.

Londresko Errege Elkarteari gizakientzat beharrezkoenatarikoak diren gauza bi falta zaizkio: sariak eta arauak. Parisen ondasuntxo ziurra da, geometra nahiz kimiko batentzat, Akademian eserleku bat hartzea; aldiz, Londresen fortuna bat kostatzen da Errege Akademiakoa izatea. Ingalaterran, "Arteak atsegin ditut" esan eta Elkartekoa izan nahi duen edonor berehala da bertan. Frantzian, oster, Akademiako bazkide eta pentsiodun izateko, ez da aski zaletua izatea, jakintsua izan behar da eta plazarengatik zenbat eta lehiakide beldurgarriagoen aurka borrokatu, nola adore ematen baitien aintzak, interesak, zailtasunak berak eta kalkuluaren zientzien ikaskuntza egoskorrak eragin ohi duen izpiritu zurruntasunak.

Zientzien Akademia zuhurki bideratua dago izadiaren ikasketara eta egiaz esparru nahikoa zabala da bertan berrogeita hamar eta hirurogei pertsona iharduteko. Londresekoak ardurarik gabe nahasten du literatura fisikaz. Hobe dela deritzot letra klasikoentzat akademia berezi bat edukitzea, ezer nahas ez dadin eta erromatarren orrazkerari buruzko mintzaldi bat ehunen bat kurba berriren ondoan ikus ez dadin.

Londresko Elkarteak ordena gutxi eta inolako bizkorgarririk ez duenez, eta Parisekoa guztiz bestelako egoeran dagoenez, ez da harrizkoa gure Akademiaren txostenak harenak baino goitiagoak izatea: soldado ongi disziplinatua eta ongi ordainduak, luzarora, nagusitu egiten zaizkie bolondresei. Egia da Errege Elkarteak Newton bat ukan duela, baina ez da hark sortua izan; gutxi ziren ulertu zuten bere kideak ere; Newton Jn.a bezalako jeinu bat Europako Akademia guztiena zen, guztiek baitzuten harengandik zerikasirik asko.

Swift doktore ospetsuak, Ana erreginaren erreinaldiko azken urteetan, hizkuntza akademia bat eratzeko asmoa izan zuen, Akademia frantsesari jarraiki. Proiektu hau Oxfordeko kondeak, diruzain nagusiak, bultzatu zuen, eta batik-bat Bolingbroke bizkondeak, Estatu Idazkariak, zeinak Parlamentuan hitzetik hortzera hain garbiki hitz egiten zuen, nola Swiftak idazten baitzuen bere bulegoan eta zeina izango baitzatekeen Akademia horren babesle eta apaingarri. Hura osatu behar zuten kideak ingeles hizkuntza adinbat iraungo zuketena obren egileak ziren; honako hauek ziren, Swift doktorea, Prior Jn.a, hemen ministro publiko ikusi duguna, eta Ingalaterran, gure artean La Fontaine duen entzute bera duena; Pope Jn.a, Ingalaterrako Boileau, Congreve Jn.a, haien Molière dei dakiokena; beren izenak hemen ahanztirik ditudan beste batzuek, guztiek loraraziko zuketena lagunarte hori berorren jaiotzatik. Erregina, ordea, bat-batean hil zen: Whig-ak Akademiaren babesleak urkarazten saiatu ziren; hori, pentsatuko duzunez, hilgarria izan zen letrentzat. Gorporazio honetako kideek abantaila handia izango zuketena Frantses Akademia eratu zuten lehenengoan gain; zeren Swift, Prior, Congreve, Dryden, Pope, Addison etab.ek...ingeles hizkuntza finkatu baitzuten beraien izkribuekin, Chapelain, Colletet, Cassaigne, Faret, Perrin, Cotin, zuen lehen akademikoak, zure nazioaren ahalkeak ziren bitartean, eta beraien izenak hain irrigarri bilakatu dira, non autore pasagarriren batek Chapelain nahiz Cotin deitzeko zoritxarra balu bere izena aldatu beharrean izango bailitzateke. Beharrezko izango zatekeen ororen gainetik Ingeles Akademiak gurearen aldean guztiz bestelako iharduerak izan zitzaizkion. Egun batez, herrialde honetako jeinu zoli batek Frantses Akademiaren txostenak eskatu zitzaizkidan. "Ez du txostenik idazten, erantzun nion, baina hirurogei edo laurogei kunplimendu liburuak inprimarazi ditu". Bat edo bi irakurri zituen; ez zuen inoiz estilo

hori ulertu ahal izan, nahiz eta gure autore on guztiak ongi ulertzen zituen. "Diskurtso eder horietan begiztatzen dudan guztia, esan zidan, zera da, sarreragileari, bere aurrekoa gizaki handia zela, Richelieu kardinala gizaki txit handia, Seguier kantzalaria gizaki aski handia, Luis XIV.a gizaki handixeagoa zela segurtatu ondoren, zuzendariak gauza bera erantzuten diola, eta sarreragilea ere zinez gizaki mota handia izan litekeela eta, beroni, zuzendariari, dagokionez, bere alde egongo dela gaineratzen du".

Erraz da ikusten zer halabeharrez ia diskurtso horiek guztiak hain ohore gutxi eman dioten elkargo horri: *vitium est temporis potius quam hominis*. Usadioak ezarri du emeki-emeki akademikide orok laudorio horiek guztiak errepika zitzen bere harrerakoan: lege mota bat bihurtu da publikoa gogaitaraztea. Bilatzen bada gero elkargo horretan sartu diren jeinurik handienek zergatik egin dituzten batzutan hitzaldirik txarrenak, erraz askoa da horren zergatia ere: distiratsu nahi izan dutelako da, gai zeharo gastatua era berri batez erabili nahi izan dutelako da; hitzegin beharra, ezer esatekorik ez edukitzearen aztorapena, jeinu izan nahia, gizakirik handiena ere irrigarri bihur dezaketen hiru gauza dira; pentsamendu berriak aurkitu ezinik, itzulunguru berriak bilatu dituzte eta pentsatu gabe hitzegin dute, hutsean mastekatu eta ahulduraz hiltzerakoan jateko itxurak egingo lituzkeen jendearen antzera.

Diskurtso horiek guztiak inprimaraztea Frantses Akademian lege bat izan beharrean, horregatik bakarrik baita hura ezaguna, ez inprimaraztea izan beharko luke lege.

Letra Ederren Akademiak xede zuhurragoa eta baliagarriagoa ukan du, publikoari ikerketaz eta kritika bitxiz beteriko txosten bilduma bat aurkeztea. Txosten hauek estimatuak dira jadanik atzeritarren artean; desiragarri izango litzateke soilki gai batzuetan gehiago sakondu balute eta beste batzuk aipatu ere egin ez balituzte. Bazterrera utziko genukeen, adibidez, nik ez dakit zein disertazio eskuineko eskuaren eskubideez ezkerreko⁵⁰ eta beste zenbait ikerketa, irrigarritasun gutxiagoko izenburupean, arinkeria gutxiagokoak ez direnak.

Zientzien Akademiak, bere ikerketa zailenetan eta onuragarritasun nabariagokoetan, izadiaren ezagutza eta arteen perfektzioa besarkatzen ditu. Uste izatekoa da ikaskuntza hain sakon eta hain jarraiek, kalkulu hain zehatzek, aurkikuntza hain finek, ikuspegi hain zabalek, unibertsoaren onerako balioko duen zerbait ekarriko dutela azkenean.

Orain arte, elkarrekin behatu dugunez, menderik basatienetan egin izan dira aurkikuntzarik baliozkoenak; badirudi garai argiztatuenen eta lagunarte jakintsuenen berezitasuna ezjakinek asmatu dutenaz arrazoitzea dela. Ezaguna da gaur egun, Huyghens Jn.aren eta Renaud Jn.aren eztabaida luzeen ondoren, gilarekiko itsasuntziko lema baten angelurik abantailagarrienaren finkapena; Kristobal Kolonek, alabaina, angelu honetaz deus susmatzeke aurkitu zuen Amerika.

Hortik praktika huts soilera mugatu behar dela ondorioztatzen oso urrun nago; bikaina izango litzateke, ordea, fisikariak eta geometrek, ahal den neurrian, praktika eta espekulazioa bateratuko balituzte. Premiazkoa ote da giza izpirituari ohorerik handiena ematen diona, sarritan erabilgarritasun urrienekoa izatea? Gizaki bat, aritmetikako lau erregelekin eta zentzu komunarekin, negoziari handi bat bihurtzen da, Jacques Coeur bat, Delmat bat, Bernard bat; algebrari gizajo batek, oster, bizitza osoa igarotzen du zenbakietan erlazio eta propietate harrigarriak bilatzen, baina erabilera gabekoak eta aldakuntza zer den irakatsiko ez diotenak. Arte guztiak daude kasu horretan gutxi gorabehera; bada puntu bat, berau iraganez gero, ikerketak jakinmin hutsez baino ez dira egiten: egia jeinutsu eta alferrikako horiek argitasunik ematen ez diguten izarren antzekoak dira, guregandik urrutiegi baitaude.

Frantses Akademiari dagokionez, zer zerbitzu egingo lieke letrei, hizkuntzari eta nazioari, urtero kunplimenduak inprimarazi ordez, Luis XIV.aren mendeko obra onak inprimaraziko balitu, berorietan lerraturiko hizkuntz akatsak oro kenduta? Corneille eta

Molière haietaz josita daude; La Fontainek ugari ditu: zuzentzerik ez leudekeenak markatuak izango lirateke, gutxienez. Autoreak irakurtzen dituen Europak berorien bidez ikasiko luke seguruen gure hizkuntza, beronen garbitasuna behin-betiko finkaturik geldituko litzateke, frantses liburu onak, erregearen kontura hain ardura handiz inprimaraziak, nazioaren monumenturik aintzatsuenak izango lirateke. Adu du esaten Despreaux Jn.ak lehenagorik egin zuela proposamen hau eta beritu egin duela jeinu, jakitua eta kritika sendoko gizaki batek; alabaina, ideia honek beste proiektu baliagarri askoren zortea izan du, onartua eta alde batera utzia izatekoa.

HOGITA BOSGARREN GUTUNA

Pascal Jaunaren gogoetez

Pascal Jaunaren gogoetei buruz aspaldidanik eginak ditudan oharpen kritikoak bidaltzen dizkizut. Ez nazazu konpara hemen, otoi, Salomonen liburu guztiak errearazi nahi izan zituen Ezekiasekin. Errespetatu egiten ditut Pascalen jeinua eta mintzo ederra; baina zenbat eta gehiago errespetatzen ditudan, orduan eta konbentzituago nago hark berak zuzenduko zituzkeela gogoeta horietako asko, paper gainera azarean jaurtiki zituenak, ondoren aztertzeko: haren jeinua miretsiz, gudukatzen ditut bere ideietariko batzuk.

Iruditzen zait, oro har, Pascal Jaunak gogoeta horiek idatzi zitueneko izpiritua, gizakia ikuspegi gorrotagarri batetik erakustea zela. Guztiok gaizto eta dohakabe pintatzeko amorrua du: Jesuiten aurka idazten zuen bezalatsu idazten du giza naturaren aurka. Gure naturaren izaerari egozten dio zenbait gizakiri baizik ez dagokiona; elederki egiten dio irain giza generoari. Gizateriaren alderdia hartzera ausartzen naiz misantropo sublime horren kontra; berak dioen bezain gaizto eta dohakabe ez garela ziurtatzera ausartzen natzaizu; gainera, erabat konbentziturik nago, gogoan zerabilen liburuan bere gogoetetan ageri den xedeari jarraitu izan balitzaio, aho ederreko paralogismoz eta miragarriro ondorioztaturiko faltsukeriaz beteriko liburua egingo zukeela. Uste dut, halaber, kristau erlijioa frogatzeko berriki idatzi diren liburu horiek guztiak eskandalubide direla onbide baino areago. Jesukristok eta apostoluek baino gehiago jakin uste ote dute autore horiek? Haritz bati kanaberaz inguraturik eustea bezalatsu da; kendu egin daitezke alferrikako kanabera horiek zuhaitzari kalte egiteko beldurrik gabe. Zuhurki hautatu ditut Pascalen zenbait gogoeta; azpian jartzen ditut neure erantzunak. Zeuk juzgatuko duzu arrazoi dudan ala ez.

I

"Gizakiaren handitasunak eta miseriak hain begibistakoak dira non behar-beharrezkoa baita egiazko erlijioak irakats diezagun badela haren baitan handitasun printzipio handiren bat eta aldi berean miseria printzipioren bat. Zeren beharrezko baita egiazko erlijioak gure izaera sakonki ezagut dezan, hots, handitik duen guztia eta miseriazkotik duen guztia eta bataren eta bestearen zergatia ezagut ditzan. Beharrezko da, baitere, haren baitan aurkitzen diren aurkakotasun harrigarrien zergatia adieraz diezagun."

Arrazoibide honek faltsua eta arriskutsua dirudi, zeren Prometeo eta Pandoraren fabulak, Platonen androginoek eta siamdarren dogmek ere ongi adieraziko bailituzkete itxurazko aurkakotasun horien zioak. Kristau erlijioak ez dio egiazkoa izateari utziko nahiz eta berorrengandik jeinua distirarazteko baizik balio ez dezaketen ondorio jeinutsu horiek atera ez.

Kristautasunak ez du lainotasuna, gizatasuna, karitatea baino irakasten; hura metafisikara murriztu nahi izatea, errakuntz iturburu bihurtu nahi izatea da.

II

"Azter daitezela puntu honetaz munduko erlijio guztiak eta ikus dadila ea baden kristautik kanpo asebeteko duenik.

Filosofoek irakasten zutena ote da, agian, ontasun guztizat guregan dagoen ontasun bat proposatzen digutena? Hori ote da zinezko ongia? Aurkitu al die erremedioa gure gaitzei? Harrokeriatik sendatu ote da gizakia Jainkoa bezainbat eginez? Eta abereekin berdindu gaituztenek eta ontasun guztizat lurreko plazerrak eman dizkigutenek erremedioa ezarri ote die gure atseginkeriei?"

Filosofoek ez dute erlijiorik irakatsi: ez da haien filosofia gudukatu behar dena. Ezein filosofok ez du Jainkoak inspiratu dionik esan, zeren aurrerantzean filosofo izateari utzi eta profeta bihurtuko baitzatekeen. Arazoa ez da ea Jesukristo Aristotelesi nagusitu behar zaion jakitea; Jesukristoren erlijioa dela egiazkoa eta Mahomarena, paganoena eta gainerako guztiak faltsuak direla frogatzea da ardura duena.

III

"Eta, hala ere, misterio hori gabe, guztietan ulergaitzena, geure buruekiko ulertezinak gara. Gure izatearen korapiloak jatorrizko bekatuaren leizean hartzen ditu bere bihurguneak eta pleguak; gisa horretan, gizakia pentsaezinagoa da misterio hori gabe, misterio hori gizakiarentzat pentsaezina den baino."

Arrazoitzea ote da esatea: gizakia pentsaezina da misterio pentsaezin hori gabe? Zergatik joan nahi da Eskritura baino areago? Laguntza behar duela eta ideia filosofiko horiek eman diezaioketela sinestea ez al da ausarkeria?

Zer erantzungo ziokeen Pascal Jn.ak zera esango liokeen gizaki bati: "Badakit jatorrizko bekatuaren misterioa nire fedearen kontua dela eta ez nire arrazoimenarena. Misteriorik gabe oso ongi hautematen dut zer den gizakia; beste animaliak bezala munduratzen dela ikusten dut; zenbat eta delikatuago diren hainbat eta mingarriago dela amen erditzapena; batzuetan emakumeak eta abere emeak erditzerakoan hiltzen direla; badirela batzuetan gaizki eratutako umeak, bi edo hiru zentzumen eta arrazoimenaz gabeturik bizi direnak; hobekien eraturik daudenak direla grinarik bizienak dituztenak; norberarekiko amodioa gizaki guztietan berdina dela eta bost zentzumenak bezain beharrezko zaiela; amodio propio hau Jainkoak emana zaigula gure izatearen kontserbaziorako eta erlijioa eman digula amodio propio hau arautzeko; gure ideiak zuzenak eta inkontsekuenteak, ilunak eta argitsuak direla, gure organoak gutxiago edo gehiago gotorrak edo malguak direla, geure suhartasunaren arabera; inguratzen gaituen airearen, hartzen ditugun janarien menpeko garela eta, honetan guztian, ez dagoela deus kontraesankorrik. Gizakia ez da enigma bat, zuri iruditzen zaizun bezala, berorri antzemateko atsegina izatearren. Gizakia naturan bere lekuan dagoela dirudi, animaliak baino gorago, berorien antzeko izanik organoengatik, beste izakiak baino beherago, berorien antzeko bide delarik pentsamenduagatik. Ikusten dugun guztia bezala, ongiaren eta gaizkiaren, atseginaren eta atsekabearen nahasketa bat da. Ekiteko grinez eta ekintzak gobernatzeko arrazoimenez horniturik dago. Gizakia perfektua balitz, Jainko litzateke, eta ustezko aurkakotasun horiek, kontraesanak deitzen diezunak, gizakiaren eraketan sartzen diren osagai beharrezkoak dira, hala behar baitu, izan ere.

IV

"Jarrai gakizkien geure higidurei, beha ditzagun geure buruak eta ikus dezagun ea ez ote ditugun aurkituko bi natura horien jite biziak.

Hainbeste kontraesan aurkituko ote lirateke subjektu bakun batean?

Hain da bistakoa gizakiaren bitasun hau, non baden bi arima ditugula uste izan dakorik, iruditzen baitzitzaie subjektu bakun bat ez zela hainbat eta horren gorabehera bat-batekoaren gai, ez zitekeela alda neurrigabeko ustekeria batetik bihotz ahulezia ikaragarri batera."

Gure nahi desberdinak ez dira naturako kontradikzioak eta gizakia ez da subjektu bakuna. Ezin kontatuzko organo kopuruaz osatua dago. Organo horietariko bakar bat asaldatuxea baldin badago, beharrezko da burmuineko inpresioak alda ditzan, eta abereak pentsamendu berriak eta nahi berriak izan ditzan. Egi-egia da batzuetan tristuraz eraitsiak, beste batzutan harropuzkeriaz hanpatuak gaudela, eta hala behar du izan egoera kontrajarrietan aurkitzen garenean. Bere nagusiak laztantzen eta janaritzen duen abere batek, eta disezio bat egiteko emeki eta trebetasunez lepoa mozten zaion beste batek, sentimendu oso aurkakoak jasaten dituzte: horixe egiten dugu geuk ere; gure artean dauden desberdintasunak hain dira kontrakotasun gutxikoak, kontraesankorra izango litzatekeela haiek ez egotea.

Bi arima ditugula esan duten eroek, hogeita hamar edo berrogei eman liezazkigukete arrazoi berberaz; zeren gizaki batek, grina handi baten menpean, gauza beraren hogeita

hamar edo berrogei ideia desberdin baititu sarritan, eta nahitaez ukan behar ditu, objektu hori alderdi desberdinez agertzen zaion neurrian.

Gizakiaren itxurazko bitasun hori ideia metafisikoa bezain absurdua da. Berdin litzaidake esatea horzka egiten duen txakurra eta laztantzen duena bikoitza dela; bere kumeen ardura hain handia duen eta, gero, ez onartzeraino abandonatzen dituen oiloa, bikoitza dela; objektu ezberdinak islatzen dituen ispilua, bikoitza dela; batzuetan hostoz beterik, beste batzuetan biluzirik dagoen zuhaitza, bikoitza dela. Aitortzen dut gizakia pentsaezina dela; alabaina, naturako beste guztia ere hala da eta ez dago gizakiaren baitan naturan baino ageriko kontraesan gehiago.

V

"Jainkoa badela apostu ez egitea, bera ez dela apostu egitea da. Zer hautatuko duzue orduan? Pisa ditzagun irabazia eta galera, Jainkoa badelakoaren alde jarritz. Irabazten baduzue, dena irabazten duzue; galtzen baduzue, ez duzue ezer galtzen. Badela apustu egin ezazue, beraz, zalantzarik gabe. -Bai, jokatu egin behar da, baina gehiegi jokatzeko dut agian. -Tira, irabazi eta galera arrisku berdina dagoenez, batengatik bi bizitza besterik ez bazenute ere irabaztekorik, jokatu egin zenezakete oraindik".

Nabariro faltsua da esatea: Jainkoa badela apustu egitea, ez dela apustu egitea da, zeren zalantzak izan eta argitzea eskatzen duenak, ez du seguraski ez alde ez kontra apostu egiten.

Bestalde, artikulu honek indezente eta pueril samarra ematen du; jokoaren, galeraren eta irabaziaren ideia hau ez dagokio gaiaren seriotasunari.

Gainera, gauza bat sinesteko dudak interesa ez da gauza horren existentziaren froga bat. Emango dizut, diostazu, munduko inperioa, arrazoi duzula sinesten badut. Bihotz osoz desiratzen dut orduan arrazoi izan dezazun; baina harik eta frogatzen didazun arte, ezin diezazuket sinets.

Has zaitez, esan geniezaioke Pascal Jn.ari, nire arrazoimena konbentzitetik. Axola zait, dudarik gabe, jainko bat egotea; baina, zure sisteman, Jainkoa hain pertsona gutxienez etorri bada, hautatuen kopuruaren txikitasuna hain izugarria bada; neure kabuz ezin badezaket ezertxo ere, esaidazu, otoi, zer interes daukat zuri sinesteko? Ez ote daukat ageri-ageriko interesa alderantzizkoen konbentziturik egoteko? Zein aurpegirekin ausartzen zara niri zorion infinitua erakustera, berau hurrupatzeko eskubidea, milioi gizakitatik, batek bakarrik doi-doi duenean? Konbentzitu nahi banauzu, molda zaitez beste era batera, eta ez iezadazu batzuetan azareko jokoaz, apostuaz, gurutze ala pileaz hitz egin, eta beste batzuetan jarraitu nahi eta behar duen bidean ereiten dituzun arantzez ikaratu. Zure arrazoiketarik ateak egiteko baino ez luke balioko, izadi osoaren bozak ez baligu jainko bat badela oihu egingo, milikeria horiek duten ahuleziaz bezainbesteko indarrak.

VI

"Ikusirik gizakiaren itsukeria eta miseria, eta bere izaeran aurkitzen diren kontraesan harrigarri horiek, eta so eginez unibertso mutu osoari eta argirik gabeko gizakiari, bere kasa utzirik eta unibertsoko txoko honetan galdurik bezala, jakin gabe nork ezarri duen bertan, ez zer egitera etorri den hona, ez zer izango dan berataz hiltzen denean, izuikara sartzen zait irla huts eta beldurgarri batera lotan eramango luketen, eta non dagoen jakiteke eta bertatik irteteko inolako modurik gabe esnatuko litzatekeen gizaki bati bezala, eta harritu ere egiten naiz nola ez den etsipenean erortzen halako egoera miseriakoan."

Gogoeta hau irakurtzerakoan, herrialde oso urrun batean bizi den nire lagunetariko baten gutuna jasotzen dut. Hona hemen bere hitzak:

"Hemen nago ni zuk utzi ninduzun bezala, ez alaiago, ez tristeago, ez aberatsago, ez pobregago, osasun bete-beteaz gozatuz, biziera atsegina egiten duen guztia ukanez,

amodiorik gabe, zekenkeriarik gabe, handinahikeriarik eta desiorik gabe, eta honek dirauen bitartean, gizaki zoriontsu deituko naiz ausarki."

Anitz gizaki da bera bezain zoriontsu. Abereekin bezala gertatu ohi da gizakiekin; harako zakur hura bere maitalearekin jan eta etzaten da; harako hark noriari daragio eta pozik dago; beste hura amorru gaitzak hartu eta hil egiten dute. Niri dagokidanez, Londres edo Paris ikusten ditudanean ez dut arrazoi bat ere aurkitzen Pascal Jn.ak dioen etsipen horretan erortzeko; uharte huts baten ezelako antzik ez duen hiri bat ikusten dut; baizik eta jendeztatua, oparoa, zibilizatua, zeinetan gizakiak giza naturak ahalbideratzen duen bezain dohatsu baitira. Zein gizaki zuhur dago bere burua urkatzeko prest Jainkoari aurrez aurre nola begiratu ez dakielako eta bere arrazoimenak Hirutasunaren misterioa argitu ezin dezakeelako? Orobat etsi beharko litzateke lau zango eta bi hegal ez edukitzeagatik.

Zergatik geure izakeraz ikaratu? Gure izatea ez da sinestarazi nahi zaigun bezain zorigaitzekoa. Unibertsoa presogelatzat eta gizakiak oro hilarazi beharreko kriminaltzat edukitzea fanatiko baten ideia da. Mundua plazerra besterik egon behar ez lukeen atseginlekua dela uste izatea, sibarita baten ametsa da. Lurra, gizakiak eta abereak Probidentziaren ordenan izan behar dutena direla pentsatzea, gizaki zuhur batena dela uste dut.

VII

"(Juduek uste dute) Jainkoak ez dituela gainerako herrialdeak ilunbe horietan betierean utziko; etorriko dela guztientzat askatzaile bat; hura iragartzeko daudela beraiek munduan; gertakari handi horren mezulari izateko berariaz eginak izan direla, herrialde guztiei askatzaile horren esperoan elkarretaratzera hotsegiteko."

Juduek askatzaile bat itxaron dute beti; baina euren askatzailea beraientzat da eta ez guretzat. Juduak kristauen jabe egingo dituen Mesias bat itxaroten dute, eta guk egunen batean Mesiasek juduak kristauekin elkartuko dituela itxaroten dugu: guk pentsatzen dugunaren guztiz bestelakoa pentsatzen dute haiek, hain zuzen.

VIII

"Herrialde hori gobernatzen duen legea da era berean munduko lege zaharrena, perfektuena eta etenik gabe Estatu batean beti bete izan den lege bakarra. Hori da Filon juduak hainbat tokitan eta Josefok Apionen kontra miresgarriki erakusten duena; hor ikusarazten du hain dela zaharra non lege izena bera zaharrenek ez baitute ezagutu mila urte beranduago baizik; hainbestearino non Homero, hainbat herrialdez hitzegin duena, ez baita inoiz hartaz baliatu. Eta errazki juzga daiteke lege horren perfekzioa berorren irakurketaz bakarrik, zeinetan ikusten baita gauza guztiak hainbesteko zuhurtziaz, hainbesteko zuzentasunez, hainbesteko zentzun eginak dituela, non argiren bat zuten greziar eta erromatar legegile zaharrenek handik mailegatu baitituzte beren lege printzipalak; hori ageri baita beraiek Hamabi Mahaiena deitzen dutenetik eta Josefok ematen dituen beste frogetatik."

Erabat faltsua da juduen legea zaharrena dela, zeren Moisesen, beraien legegilearen aurretik, Egipton, bere lege zuhurrengatik lurreko herrialderik sonatuenean, bizi baitziren.

Erabat faltsua da lege izena Homeroren ondorenera arte ez dela ezaguna izan; Minosen legeez mintzo baita hura; lege hitza Hesiodogan dago; eta lege izena ez Hesiodogan ez Homerogan aurkituko ez balitz ere, horrek ez luke ezer frogatuko. Baziren erregeak eta epaileak, beraz baziren legeak.

Erabat faltsua da, baitere, greziar eta erromatarrek juduengandik hartu dituztela legeak. Hori ezin zitekeen izan beren errepubliken hasieretan, ezen orduan ezin baitzitzaketen juduak ezagut; ezin daiteke izan beren handitasunaren garaian, ezen orduan lur osoan ezaguturiko mesprezua baitzieten barbaro horiei.

IX

"Herrialde hau miresgarria da zintzotasunean ere. Amodioz eta leialtasunez gordetzen dute Moisesek beti Jainkoarekiko eskergaiztoko izan direla eta badakiela bera hil ondoan are gehiago izango direla dioen liburua; alabaina, haien kontra zeru-lurrak deitzen dituela lekuko, berak aski esana ziela: azkenik, Jainkoak, haien kontra sumindurik, lurreko herrialde guztien artean sakabanatuko dituela; euren Jainko ez zirenak adoratzuz sumindu dutenez, berak berdin haserrearaziko dituela bere herria ez den herri bat deituz. Hala eta guztiz ere, liburu hori, haiek horrenbeste desohoratzen dituen, beraien bizitzaren kaltetan, gorde egiten dute. Ez munduan etsenplurik, ez naturan bere sustrairik duen zintzotasuna da."

Zintzotasun horrek alde guztietan ditu etsenpluak eta naturan baino ez du bere sustraia. Judu bakoitzaren urguilua interesaturik dago sinesteko ez direla bere politika higuingarria, arteen bere ezjakintasuna, bere arrunkeria galbidea ekarri diotenak, baizik eta Jainkoaren haserre delako zigorra ezarri diona. Atseginez uste du mirariak behar izan direla bera lur joarazteko; eta bere nazioa zigorra ezartzen dion Jainkoaren maitea dela betiere.

Predikari bat pulpitura igo eta frantsesei esan diezaiela: "Ez bihotzik ez gizabiderik duzuen miserableak zarete; garaituak izan zarete Hochstedten eta Ramilliesen, ez baituzue zeuen burua defendatzen jakin", harrikatua izango da. Baina esaten badu: "Jainkoak maitaturiko katolikoak zarete; zuen bekatu zantarrek Betierekoa sumindu zuten, zeinak heretikoengana bota baitzintuzten Hochstedten eta Ramilliesen; alabaina, Jainkoagana itzuli zaretenean, orduan bedeinkatu egin du zuen adorea Denainen", hitz hauek entzulegoarengandiko maitasuna erakarriko diote.

X

"Baldin bada Jainko bat, ez da hura baizik maitatu behar, eta ez kreaturak."

Txit samurki maitatu behar dira kreaturak; nork bere aberria maitatu behar da, nork bere emaztea, nork bere aita, nork bere haurrak, eta hainbeste maitatu behar dira non Jainkoak geure buruak gorabehera maitarazten dizkigun. Aurkako printzipioak arrazoitzaile basatiak egiteko bestetarako ez dira gai.

XI

"Zuzengabeak jaiotzen gara, nork berarengana jotzen baitu. Hori ordena ororen kontra doa. Orokorrerantz jo behar da. Eta norberarenganako joera nahasmendu ororen hasiera da guduan, polizian, ekonomian, etab.etan..."

Ordena ororen araberakoa da hori. Hain ezinezkoa da gizarte bat amodio propiorik gabe eratu eta irautea, nola ezinezkoa bailitzateke seme-alabak irritsik gabe egitea, goserik gabe jatean pentsatzea, etab. Geure buruarenganako maitasuna da besterenganako maitasuna laguntzen duena; geure elkarrekiko premiengatik gara giza generoari baliagarri; merkataritza ororen oinarri da; gizakien arteko lokarri betierekoa da. Hura gabe ez zatekeen arte bat bera ere asmatu izango, ezta hamar pertsonako gizarte bat eratuko ere. Abere bakoitzak naturatik jaso duen amodio propio hau da besterena errespetatzeko gaztigatzen diguna. Legeak zuzentzen du amodio propio hau eta erlijioak hobetzen. Guztiz egia da besteren onari soilik kasu egiten dioten kreaturak egin zitzakeela Jainkoak. Kasu horretan, merkatariaik karitatez joango ziratekeen Indietara eta harginak bere lagunurkoari gustua emateagatik pikatuko zukeen harria. Ordea, Jainkoak beste era batera antolatu ditu gauzak. Ez dezagun sala berak damaigun sena eta egin dezagun hartaz manatzen digun erabilera.

XII

"(Profezien zentzu ezkutuak) ez zezakeen huts egitera eraman, eta hau bezalako herri hain haragikoia baizik ez zitekeen horretan engaina.

Zeren eta ondasunak naharoki hitzemanak direlarik, zerk eragozten zien egiazko ondasunak ulertzea, ez bada haien gutiziak, lurreko ondasunei zentzu hori ematen zienak?"

Fede honez, bestela uler ote zezakeen lurreko herririk izpiritualenak? Erromatarren esklabo ziren; garaile bihurtuko zituen eta Jerusalem mundu osoan errespetaraziko zukeen askatzaile bat itxaroten zuten. Beren arrazoimenaren argiekin, nola ikus zezaketen garaile hori, errege hori Jesus pobre eta gurutziltzatuarengan? Nola uler zezaketen beren Hiriburuaren izenaren bidez Jerusalem zerutiar bat, eurei, dekalogoak hitz egin ere ez bazien egin arimaren hilezkortasunaz? Nolatan, beraien legeari hain atxikitako herri batek, goragoko argirik gabe, ezagut zitzakeen beren profezietan, beren legeak ez zirenetan, Jainko ezkutu bat erdaindutako judu baten itxuran, zeinak bere erlijio berriaz erdaikuntza eta larunbata, lege judutarraren oinarri sakratuak, suntsitu eta higuigarri bihurtu baititu? Berririo ere, adora dezagun Jainkoa bere misterioen ilunbean sartu nahi izan gabe.

XIII

"Jesukristoren lehen etorreraren garaia iragarria izan da. Bigarrenaren garaia ez da izan, lehenengoak ezkutatua izan behar baitzuen; bigarrenak aldiz, garaipenezkoa eta hain agerikoa behar du izan non haren etsaiek beraiek ezagutu egingo baitute".

Jesukristoren bigarren etorreraren garaia lehenengoa baino argiago iragarria izan da. Pascal Jn.ari ahaztu egin bide zitzaion Jesukristok, San Lukasen XXI. kapituluaren espreski dioela:

"Gudaloste batek Jerusalem inguratzen ikusiko duzuenean, jakin ezazue hurbil dela hondamendia... Jerusalem ostikoz erabilia izango da, eta seinaleak agertuko dira eguzkian eta ilargian eta izarretan; itsasoko olatuek orro handia egingo dute... zeruetako ahalak kordokatuko dira, eta orduan ikusiko dute gizakiaren semea, ahalmen handiz eta ospe handiz hodei baten gainean etorriko dena".

Ez al da hemen ikusten bigarren etorrera ezberdinki iragarria? Alabaina, hori ez bada oraindik gertatu, ez dagokigu guri Proidentziari galdekatzera ausartzea.

XIV

"Mesiasak, judu haragikorren arabera, lur honetako printze handi bat behar du izan. Kristau haragikorren arabera, gu Jainkoa maitatzetik libratzera etorri da, eta gu gabe dena egiten duten sakramentu zenbait ematera. Ez bata eta ez bestea ez da erlijio kristaua ez judua ere".

Artikulu hau gehiago da satirazko lerro bat kristau hausnarketa bat baino ere. Ikusten da jesuitei egiten zaiela eraso hemen. Baina, ezein jesuitak esan al du inoiz gu Jainkoa maitatzetik libratzera etorri dela Jesukristo? Jainkoaren maitasunari buruzko eztabaida hitz eztabaida hutsa da, hain gorroto biziak eta zoritxar izugarriak eragin dituzten beste liskar zientifiko gehienak bezala.

Bada beste akats bat ere artikulu honetan. Izan ere, hor uste da Mesias baten itxaropena erlijio puntu bat zela juduen artean. Nazio honetakoen artean hedaturiko ideia kontsolagarri bat zen bakarrik. Juduek askatzaile bat itxaroten zuten. Alabaina, hartan fede artikulu gisa sinesteko agindurik ez zeukaten. Beraien erlijio guztia legearen liburuetan bilduta zegoen. Juduek sekula ez dituzte profetak legegiletzat hartu.

XV

"Profeziak ikertzeko konprenitu egin behar dira. Ezen uste baldin bada, zentzu bat baino ez dutela, ziur da, Mesias ez dela oraindik etorri; baina bi baldin badituzte, ziur da Jesukristo baitan etorria dela".

Kristau erlijioa hain da egiazkoa, ez daukala zalantzazko frogen beharrik. Alabaina, baldin zerbaitek kolokan jar balitzake erlijio santu eta arrazoitsu honen oinarriak, Pascal Jnaren sentimendu hauxe da. Denak bi zentzu izan dezan nahi du Eskrituran; baina

sinesgogor izateko zoritxarra lukeen gizaki batek esan liezaioke: bere hitzei bi zentzu ematen dizkienak gizakiak engainatu nahi ditu, eta bitasun hau legeek zigorkatua da beti. Nolatan, bada, onar dezakezu, gorritu gabe, Jainkoagan gizakietan zigorkatzen eta arbuiatzen dena? Zer diot? Nolako mespresuz eta nolako suminduraz tratatzen zenituen jentilen orakuluak, bi zentzu zituztelako? Ez ote liteke esan, hobeto, Jesukristori zuzenki dagozkion profeziek zentzu bat baino ez dutela, Danielenak, Mikeasenak eta zenbaitenak bezala? Ez ote genezake esan, orobat, profezien inongo ezagutzarik ez bagenu ere, erlijioa ez litzatekeela frogabide gutxiagokoa?

XVI

"Gorputzetatik izpirituetarainoko tarte infinituak itxuratzen du izpirituetatik karitaterainoko tarte infinituki infinituagoa, naturaz gaindikoa baita berau."

Sinestekoa da Pascal Jn.ak ez zukeela bere obran galimatias hori erabiliko, horretarako astia ukan balu.

XVII

"Ahuleziarik agerikoenak indarrak dira gauzak ondo hartzen dituztenentzat. Adibidez: San Mateoren eta San Lukasen genealogia biak; begibistakoa da ez dela hori baltsan egina izan."

Pascalen Gogoeten editoreek argitara eman behar ote zuketzen gogoeta hau, zeinaren agerpen hutsak kalte egin baitiezaioke, agian, erlijioari? Zertarako esan behar da genealogia horiek, kristau erlijioaren puntu oinarritzko horiek, elkar kontraesaten dutela, zertan bat etor daitezkeen esan gabe? Antidotoa pozoiarekin batera aurkeztu behar zen. Zer pentsatuko lukete hau esango lukeen abokatuak: "Nire defendatuak bere burua kontraesaten du; baina ahulezia hau indar bat da gauzak ondo hartzen dakitenentzat?"

XVIII

"Ez diezagutela argitasunik eza aurpegira bota, hori agerian aitortzen baitugu: Aitor dezatela, aldiz, erlijioaren egia erlijioaren ilunbean bertan, hartaz dugun argi urrian eta hura ezagutzeko dugun axolagabetasunean."

Hona hemen Pascalek dakartzan egia marka bitxiak! Zer beste marka ditu, bada, gezurrak? Zer! Sinetsia izateko, hortaz, nahikoa litzateke esatea; iluna naiz, ulerkaitza naiz! Askoz zentzuzkoagoa litzateke begietara fedearen argiak baizik ez aurkeztea, erudiziozko ilunbe horien orde.

XIX

"Erlijio bat besterik ez balitz, Jainkoa ageriegia litzateke."

Zer! Zuk diozu ezen erlijio bat besterik ez balitz, Jainkoa ageriegia litzatekeela. Eh! Ahaztu egiten ote zaizu orrialde bakoitzean diozuna, egunen batean, erlijio bat besterik ez dela izango? Zure arabera, Jainkoa ageriegia izango da orduan.

XX

"Nik diot judu erlijioa ez zetzala gauza horietako batean ere, baizik eta Jainko maitasunean bakarrik, eta Jainkoak gainerako gauza guztiak gaitzesten zituela."

Zer! Jainkoak gaitzetsi egiten zuela berak hain arreta handiz juduei manatzen ziena, eta hain xehetasun miresgarri batean! Ez al da egiazkoagoa Moisesen legea maitasunean nahiz kultuan zetzala esatea? Oro Jainkoaren maitasunera murrizteak, Jainko maitasunaren usain gutxiago du jansenista orok bere lagunurko molinistari dion gorrotoak baino.

XXI

"Bizitzan gauzarik inportanteena lanbide baten hautatzea da; hori erabakitzen du zoriak; ohiturak egiten ditu harginak, soldaduak, teila ezartzaileak."

Zerk erabaki ditzake, orduan, soldadoak, harginak eta langile mekanikoak oro, zoria eta ohitura deitzen ditugunak baizik? Jeinuzko arteak bakarrik erabaki ditzake norberak;

mundu guztiak egin ditzakeen lanbideetarako, ordea, guztiz naturala eta zentzuzkoa da ohitura izatea erabakitzen duena.

XXII

"Nork bere pentsamendua azter dezala; beti iraganean nahiz etorkizunean okupatua aurkituko du. Orainean ez dugu ia pentsatzen; eta hartan pentsatzen badugu, handik argia hartuz geroa finkatzeko baizik ez da. Oraina ez da gure helburua. Lehena eta oraina gure helbideak dira; geroa bakarrik da gure xedea."

Beharrezko da, kexatzetik urrun, naturaren egileari eskerrak ematea etorkizunerantz etengabe garamatzen sen hori emateagatik. Gizakiaren altxorrik preziatuena gure nahigabeak eztitzen dituen esperantza hori da, eta mementoko plazerren gozamenean geroko plazerrak pintatzen dizkiguna. Gizakiak aski dohakabeak balira orainaz baizik ez arduratzeko, ez litzateke ereingo, ez litzateke eraikiko, ez litzateke landatuko, ez ginateke ezertaz hornituko: ez luke deus edukiko gozamen faltsu horien erdian. Pascal Jna.rena bezalako izpiritu bat eror ote zitekeen horren faltsua den arruntkerian? Naturak ezarria du gizaki bakoitzak orainaldiaz gozatuko lukeela elikatuz, umeak eginez, doinu atseginak entzunez, bere pentsamena eta sentimena erabiliz, eta egoera horietatik irtenik, egoera horien erdian sarritan, biharamunaz pentsatuko lukeela, hori gabe miseriaz hilko litzatekeela egun.

XXIII

"Baina hurbilagotik behatu dudalarik, ohartu naiz ezen gizakiak atsedenetik eta beren buruekin egotetik urrutiratze honek iturburu zinez egiazko bat duela, hots, gure izate ahul eta hilkorraren berezko zoritxarra, hain urrikalgarria non ezerk ez baikaitzake kontsola hartan pentsatzea ezerk eragozten ez digunean eta geuren buruak baino ikusten ez ditugunean."

Geure buruak baino ez ikusi, esakune honek ez du batere zentzurik.

Zer gizaki da ezertan ihardungo ez litzatekeena eta ustez bere buruari so legokeena? Ez diot bakarrik gizaki hori ergela, ezdeusa gizartearentzat, izango litzatekeela, baizik eta badiot gizaki hori ezin dela existitu: zeren, zer kontenplatuko luke? bere gorputza, bere zangoak, bere eskuak, bere bost zentzumenak? Edo idiota izango litzateke edo hori guztia erabiliko luke. Bere pentsatzeko ahalmenari so egongo ote litzateke? Ez dezake, baina, ahalmen hori kontenpla, horretan entseiatuz ez bada. Edo ez du ezertan pentsatuko, edo jadanik heldu zaizkion ideietan pentsatuko du, edo beste berri batzuk sortuko ditu: haatik, kanpotik baizik ez dezake ideiarik izan. Hona hemen, bada, nahitaez okupatua bere zentzumenetan nahiz bere ideietan; hona hemen, bada, bere baitatik kanpo, edo zozo.

Berriro ere, ezinezko zaio giza naturari alegiazko kamustasun horretan irautea; absurdua da hori pentsatzea, zentzugabea da hori nahi izatea. Gizakia ekintzarako sortua da, suak gorantz eta harriak beherantz jotzen duen bezala. Okupatua ez egotea eta ez existitzea gauza bat bera da gizakiarentzat. Iharduera leunetan ala builatsuetan, arriskutsuetan ala baliagarrietan dago desberdintasun guztia.

XXIV

"Gizakiek badute ezkutuko sen bat dibertimendua eta zeregina kanpoan bilatzera bultzatzen dituen, beren etengabeko miseriaren erresuminetik heldu dena; eta badute beren lehen naturatik geratzen zaien beste sen gorde bat ere, zoriona atsedenean baizik ez dela zinezkoa jakinarazten diena."

Ezkutuko sen hori gizartearen lehen printzipio eta ezinbesteko oinarri izanik, gehiago dator Jainkoaren ontasunetik eta gehiago da gure zorionaren tresna bat ezen ez gure miseriaren erresumina. Nik ez dakit zer egiten zuten gure lehen gurasoek lurtar paradisuan; baina haietako bakoitzak bere buruan baizik pentsatzen ez bazuen, giza generoaren existentzia arrisku larrian zegokeen. Ez al da absurdua pentsatzea

zentzumen perfektuak, hots, ekintza tresna perfektuak zituztela, kontenplaziorako ez bestetarako? Eta ez al da barregarria buru pentsalariek alferkeria handitasun titulu bat eta ekintza gure izaeraren apaltze bat dela imajina ahal izatea?

XXV

"Horregatik, Zineasek esaten zionean Pirrori, munduaren zati handi bat konkistatu ondoren bere lagunekin atsedenez gozatzeko asmoa zuenari, hobe izango zukeela bere zoriona aitzinatzea eta orduandanik atsedenaldi horretaz gozatzea, hainbat nekeren atzetik ibili gabe, zailtasun handiak zituen aholkua ematen zion eta gazte handinahi horren xedea baino batere zentzuzkoagoa ez zena. Batak zein besteak uste zuten bere buruarekin eta bere oraingo ondasunekin kontenta daitekeela gizakia, bere bihotzeko hutsunea alegiazko itxaropenez bete gabe, faltsu dena. Pirro ez zitekeen zoriontsu izan ez mundua konkistatu aurretik ez ondotik."

Zineasen adibidea ondo dago Despreauxen satiretan, baina ez filosofi liburu batean. Errege jakintsu bat zoriontsu izan daiteke beraren herrian; eta Pirro zorotzat hartzeak ez du gainerako gizakientzat deus erabakitzen.

XXVI

"Aitortu beharra dago, beraz, gizakia hain dela dohakabea ezen aspertu ere egingo bailitzateke asperdurazko ezain kausa arrotzik gabe, bere izatearen egoerarengatik berarengatik."

Alderantziz, gizakia hain da zoriontsu puntu honetan eta hainbat zor diogu naturaren egileari ezen asperdura alfertasunarekin lotu baitu, era horretan gure lagunurkoarekiko eta geure buruekiko baliagarri izatera derrigortzeko.

XXVII

"Nolatan, bada, bere seme bakarra galdu berri duen gizaki honek, eta, prozesuz eta liskarrez lehertua, goiz honetan hain asaldua zegoenak, ez du orain hartan jadanik pentsatzen? Ez zaitez teldi harri: osoki okupatua dago duela sei orduz gero bere zakurrek su eta gar pertsegitzen ari diren oreina nondik pasatuko den begira. Gizakiak ez du gehiagoren beharrik, nahiz eta tristurak gainez eginda egon. Lortu ahal badaiteke dibertimenduren batean sarraraztea, zoriontsu izango da denbora horretan"

Gizaki honek miresgarriro egiten du: jostaketa erremedio ziurragoa da minaren kontra, kinina sukarraren kontra baino; ez dezagun horrengatik natura gaitzets, beti baitago guri laguntzeko prest.

XXVIII

"Eman dezagun gizaki multzo bat, kateaturik, guztiak heriotzara kondenatuak, horietarik zenbait besteen aurrean egunero lepamoztuak direlarik, gelditzen direnek beren izate propioa beren antzekoengan ikusirik, elkarri begira nahigabez eta itxaropenik gabe, beren ordua itxaroten dutela. Hauxe da gizakien izaeraren irudia".

Konparaketa hau, seguraski, ez da zuzena; bata bestearen atzetik lepamoztuak diren zoritxarreko kateatuak dohakabeak dira, sufritzen dutelako ezezik, baita beste gizakiek sufritzen ez dutena frogatzen dutelako ere. Gizaki baten berezko zortea ez da kateaturik egotea ez eta lepamoztua izatea ere; aldiz, gizaki guztiak abereen eta landareen antzera eginak dira, hazteko, aldi batez bizitzeko, antzeko bat sortzeko eta hiltzeko. Satira batean azal daiteke gizakia alde gaiztotik nahi izanez gero; baina, arrazoiak batere baliatzen garen neurrian, aitortuko dugu, abere guztietan, gizakia dela perfektuena, zoriontsuena eta luzaroen bizi dena. Bizitzaren zoritxarraz eta laburtasunaz kexatu eta larritu beharrean, beraz, geure zorionaz eta beronen iraupenaz harritu eta zorionak eman behar ditugu. Filosofo gisa soilik arrazoituz, harrokeria eta ausarkeria franko dagoela esatera ausartzen naiz geure izatez garen baino hobeak izan behar dugula nahi izatean.

XXIX

"Jentilen arteko jakintsuak, Jainko bat besterik ez dela esan dutenak, pertsegituak izan dira, juduak gorrotatuak, kristauak are gehiago."

Batzuetan pertsegituak izan dira, gaur egun, Jainko baten adorazioa, onarturiko kultutik aske, irakastera etor zitekeen gizaki bat izango litzatekeen bezala. Sokrates ez da kondenatua izan ez dago Jainko bat besterik esateagatik, baizik eta herrialdeko kanpo kulturaren kontra altxatu izanagatik eta desgaraian arerio txit ahaltsuak egin izanagatik. Juduei dagokienez, gorrotatuak ziren, ez Jainko batengan bakarrik sinesten zutelako, baizik eta gainerako nazioei irrigarriki gorroto zietelako; beren etsai garaituak gupidagabeki sarraskitzen zituzten barbaroak zirelako; herri bilau, superstiziotsu, ezjakin, arteez gabetu, merkataritzaz gabetu horrek herririk zibilizatuena mesprezatzen zituelako. Kristauei dagokienez, jentilek gorroto zieten erlijioa eta inperioa suntsitu nahi zituztelako, zeina lortu egin baitzuten azkenik, protestanteak luzaro gorrotatuak, pertsegituak eta hilaraziak izan diren herrialde berberetan nagusi bilakatu izan diren bezalatsu.

XXX

"Montaigneren akatsak handiak dira. Hitz itsusi eta desohoragarritz betea dago. Horrek ez du ezer balio. Haren sentimenduak giza hilketa borondatezkoari eta heriotzari buruz izugarriak dira."

Filosofo gisa mintzo da Montaigne, ez kristau gisa; giza hilketa borondatezkoaren alde ona eta txarra esaten ditu. Filosofikoki hitz eginez, zer kalte egiten dio gizarteari, hau gehiago zerbitzatu ezin duenean, berau abandonatzen duen gizaki batek? Zahar batek gibelarriak ditu eta min jasanezinak nozitzen ditu; esaten diote: "Ez baduzu ebakuntzarik egiten, hil egingo zara; ebakuntza egiten badizute, oraindik berriketan egin, lerdea jario eta arrastaka ibil zaitezke urtebetez, zeure buruarentzat eta besterentzat zama bihurturik. Uste dut gure gizonttoak inorentzat karga ez izatea erabakitzen duela orduan: hona, gutxi gorabehera, Montaignek azaltzen duen kasua.

XXXI

"Zenbat astro agertu dizkigute teleskopioek, gure antzinako filosofoentzat ez zirenak? Ausarki erasaten zitzaion Eskriturari beronen hainbat tokitan izar kopuru handiari buruz aurkitzen denaz. Mila eta hogeita bi besterik ez daude, zioten; orain badakigu."

Egia da Eskritura Santuak, fisika gaietan, onarturiko ideietara egokitu izan dela beti; era honetan, lurra geldigeldi zegoela uste zuen, eguzkia ibili dabilela, etab... Ez du, inola ere, astronomiaren birfintze bategatik esaten izarrak kontaezinak direla, ideia arruntekin adiskidetzeko baizik. Izan ere, nahiz eta gure begiek mila eta hogeita bi izar inguru baino ez atzeman, ortzeari adi-adi begiratzen zaionean, ordea, begirada liluratuak milaka ikusi uste ditu. Eskritura, bada, aurriritzi arrunt honen arabera mintzo da, ez baitzaigu fisiko bilakatzeko emana izan; eta, itxura guztien arabera, Jainkoak ez zion ez Habakuki, ez Baruki, ez Mikeasi errebelatu, egunen batean, Flamstead deituriko ingeles batek teleskopioarekin aurkituriko zazpi mila izar baino gehiago ipiniko zituela bere katalogoan.

XXXII

"Adorea ote da hilzoriko gizaki batengan, ahulerian eta agonian, Jainko guztiahaldun eta betiereko bati aurre egitea?"

Hori ez da inoiz gertatu; eta ez da, beharbada, burmuinaren zoraldi bortitz bat besterik honako hau esatea: "Jainko bat sinesten dut eta desafiatu egiten dut."

XXXIII

"Gogotik sinesten ditut beren buruak moztarazten dituzten testiguen istorioak."

Zailtasuna ez datza soilik jakitean ea sinetsiko dieten euren esanari eustearren hiltzen diren lekukoei, hainbeste fanatikok egin duen bezala, baizik, baitere, lekuko horiek horregatik hil ote diren egiazki, beren esanak gorde ote diren, hil direla dioteneko

lurraldeetan bizi izan ote diren. Zergatik Josefok, Kristoren heriotzaren garaian jaio zenak, Josefok, Herodesen etsaiak, Josefok, judaismoari doi-doi atxikiak, ez du hitz bat ere esan honetaz guztiaz? Hori da Pascal Jn.ak arrakastaz argitu izan zezakeena, harrezkero hainbat idazle mintzatzaile ederrek egin duen bezala.

XXXIV

"Elkar ukitzen duten bi mutur dituzte zientziek. Gizaki guztiak jaiotzean aurkitzen direneko berezko ezjakintasun soila da lehena; arima handiak iristen direnekoa da beste muturra; hauek, gizakiek jakin dezaketen guztia ikustatu ondoren, deus ez dakitela ohartzen dira, eta abiatu zireneko ezjakintasun horretan kausitzen dira berriro."

Gogoeta hau sofisma hutsa da: eta faltsukeria ezjakintasun hitz horretan dago, bi zentzu desberdinetan hartzen baita. Irakurtzen eta idazten ez dakiena ezjakina da; baina matematikari bat, izadiaren printzipio ezkutuak ez jakin arren, ez dago irakurtzen hasi zenean abiatu zeneko ezjakintasun puntuan. Newton Jn.ak ez zekien zergatik mugitzen duen gizakiak bere besoa berak nahi duenean, baina ez zen horregatik jakitura gutxiagokoa gainerakoan. Hebraieraz ez dakienak eta latina dakienak, jakintsu da frantsesa besterik ez dakienaren aldean.

XXXV

"Ez da zoriontsu izatea dibertimenduaren bidez poz hartu ahal izatea; hori beste nonbaitetik eta kanpotik baitator; eta honela menpeko da eta ondorioz, atsekabeak ezinbesteko egiten dituzten hamaika ustekabek asaldaturik izateko gai."

Atsegin hartzen duena da gaurko egunean zoriontsu, eta atsegin hori kanpotik baizik ez daiteke etor. Sentsazioak eta ideiak kanpoko objektuen bidez baizik ez ditzakegu eduki; geure gorputza geure bihurtzen diren substantzia arrotzak sarraraziz baizik elika ez dezakegun modu berean.

XXXVI

"Gehiegizko jeinua eromenaz salatua da, bere gehiegizko gabezia bezalaxe. Ezer ez da ontzat jotzen erdipurdikeria ezik."

Ez da gehiegizko jeinua, jeinuaren gehiegizko bizitasuna eta aldakortasuna dira erokeriatzat salatuak direnak. Gehiegizko zuzentasuna, gehiegizko finezia, gehiegizko hedadura da gehiegizko jeinua, erokeriaz guztiz bestelakoa.

Burutapen gabezia, ideia hutsunea da gehiegizko jeinu-eza; ez da eromena, ergelkeria baizik. Organoetako desordena bat da erokeria, objektu batzuk azkarregi ikusarazten dituen edota irudimen bat beraren gainean gehiegizko artaz eta odolberoz geldiarazten duena. Ez da erdipurdikeria ere ontzat jotzen dena, bi bizio kontrajarriekiko urruntasuna da, erdibidea deitu ohi dena da eta ez erdipurdikeria.

XXXVII

"Gure izatea zinez balitz dohatsua, ez genuke hartan pentsatzeaz distraitu beharrik izango."

Gure izatea, hain zuzen, kanpoko objektuetan pentsatzea da, zeinekin harreman beharrezko bat baitugu. Faltsua da gizakia giza kondizioan pentsatzeaz distrai daitekeenik, zeren eta, zernahitaz gogoeta egiten duenari, giza izatearekin loturiko zerbaiti buruz gogoeta egiten baitu nahitaez; eta berriro diot ezen berezko gauzez kanpo norbere baitan pentsatzea, ezertan ez pentsatzea dela, kontuz ibili, beraz.

Gizaki bati bere izatean pentsatzea eragoztetik urrun, inoiz ez dute denbora gehiago ematen beren izatearen atseginetan baino. Ospe eta zientziaz hitz egin ohi zaio jakitun bati; printze bati, bere handitasunarekin zerikusia duenaz; eta gizaki orori plazerraz hitzegiri ohi zaio.

XXXVIII

"Handiek nahiz txikiek ustekabe berak, haserre berak eta grina berak dituzte. Baina batzuk gurpilaren goialdean daude eta besteak erditik hurbil, eta honela mugimendu berek gutxiago asaldutzen dituzte."

Faltsua da txikiak handiak baino gutxiago asalatuak direnik; alderantziz, haien etsipenak biziagoak dira, baliabide gutxiago baitute. Londresen bere burua hiltzen duten ehun pertsonatik, laurogeita hamar herri xehekoak dira, eta apenas bat goimailakoa. Gurpilaren konparaketa jeinutsua eta faltsua da.

XXXIX

"Gizakiei ez zaie jende ondradua izaten erakusten, eta gainerako guztia erakusten zaie; eta, hala ere, ez dira horretaz adina ezertaz preziatzen. Halatan, ikasten ez duten gauza bakarra jakiteaz baizik ez dira preziatzen."

Jende ondradua izaten irakasten zaie gizakiei eta, hori gabe, inor gutxi iritsiko litzateke izatera. Utzi zeuen semeari bere haurtzaroan eskueran duen guztia hartzen, eta hamabost urterekin bidelapurra izango da; gorets ezazue gezur bat esateagatik, sasi-testigu bihurtuko da; lausenga ezazue bere gutizia, libertino bilakatuko da seguraski. Gizakiei dena irakasten zaie, bertutea, erlijioa.

XL

"Bai asmo zozoa Montaignek bere burua erretratatzeko ukan zuena! Eta hori ez iragaitzaz eta bere maximen kontra, mundu guztiari gertatu ohi zaionez, baizik bere maxima propioengatik eta bere xede hoberen eta nagusiarengatik; zeren eta zozokeriak ustekabea eta ahuleziaz esatea gaitz arrunta baita; baina nahita esatea, hori da jasangarri ez dena eta, gainera, horiek bezalakoak esatea."

Bai asmo xarmangarria bere burua sanoki erretratatzeko Montaignek izan zuena, egin zuen bezala, zeren giza izatea erretratatu baitu honela; eta bai asmo kaxkarra Malebrancheko Nicolarena zein Pascalena, Montaigne gaitzestearena!

XLI

"Hausnartu dudanean nondik datorren halako fedea izatea erremedioak dituztela dioten hainbeste iruzurtirengan, askotan euren bizitza haien eskuetan jartzearino, iruditu zait egiazko arrazoa dela egiazko erremedioak badirela; ezen ez bailitzateke posible hainbeste faltsu egotea eta halako uste ona izatea, egiazkorik ez balitz. Ez balitz sekula horietakorik izan, eta gaitzak oro sendaezinak balira, ezinezko da gizakiek erremedioa eman ziezaieketela uste izana, eta areago dena, beste hainbestek hura edukitzeaz harrotu zirengan sinestea ezarri izana. Hiltzea eragozteaz harrotuko litzatekeen gizaki bati inork sinetsiko ez liokeen gisa berean, horren etsenplu bat ere ez baitago. Baina izan badenez erremedio mordoia, gizaki handien ezagumenak berak egiazkotzat hartu izan dituenak, gizakien sinesmena makurtu egin da haietara, eta gauza, oro har, ezin baitzitekeen ukatua izan, zeren bai baitira egiazkoak diren ondorio zehatzak, herriak, ondorio zehatz horietarik zein diren egiazkoak bereiztu ezin duenez, guztiak sinesten ditu. Era berean, ilargiari hainbeste ondorio faltsu egozten bazaizkio, egiazkoak ere badirelako da, hala nola, itsasgorapena.

Hala, halaber nabaria iruditzen zait ez dela hainbeste mirakulu faltsurik, errebelazio faltsurik, sorginkeriarik, etab., egiazkorik badelako baizik."

Iruditzen zait giza naturak ez duela egiazkoaren beharrik faltsuan erortzeko. Hamaika eragipen faltsu egotzi zaizkio ilargiari itsasgorapenarekin egiazko erlazorik txikiena imaginatu izan baino lehen. Gaixorik egon zen lehen gizakiak nekerik gabe sinetsi zion lehen hitzontziari. Inork ez du metalen zeharaldaketarik ikusi, eta batek baino gehiagok porrot egin du harri filosofalean sinestea ezartzeagatik. Erromatarrek, graziarrek, jentil guztiek murgilduta zeudeneko mirakulu faltsuetan sinesten ote zuten, egiazkoak ikusi zituztelako?

XLII

"Portuak gidatzen ditu itsasuntzi batean daudenak. Baina non aurkituko dugu puntu hori moralean?"

Nazio guztiek onarturiko maxima bakar honetan: "Ez egin inori zeuri egiterik nahi ez duzuna."

XLIII

"Ferox gens nullam esse vitam sine armis putat. Haiek nahiago dute heriotza bizitza baino; besteek nahiago dute heriotza gerra baino. Iritzi oro izan daiteke bizitza baino nahigarriago, zeinarenganako maitasuna hain indartsua eta hain berezkoa baitirudi."

Katalanei buruz esan zuen hori Tazitok; baina ez da edo ezin da inorengatik esan: "Nahiago du heriotza gerra baino."

XLIV

"Jeinu gehiago eduki ahala, gizaki berezi gehiago dagoela ikusten da. Jende arruntak ez du desberdintasunik aurkitzen gizakien artean."

Oso gizaki gutxi da benetan berezirik: ia guztiek ohituraren eta hezkuntzaren eraginez gobernatzen, pentsatzen eta sentitzen dute; ezer ez da bitxiagorik bide berri batetik dabilen jeinua baino; hala ere, taldean doan jendalde horren artean, bakoitzak badu desberdintasun txikirik oinkadan, begirada finek ohartzen dutena.

XLV

"Ba dira bi jeinu mota, beraz: printzipioen ondorioak biziki eta sakonki zulatzekoa, bata; zuzentasun jeinua da hori; bestea, nahasteke printzipio kopuru handi bat ulertzekoa, eta hori jeinu geometrikoa da."

Usadioak nahi du, nik uste, gaur egun jeinu metodiko eta kontsekuenteari jeinu geometrikoa dei dakion.

XLVI

"Errazago da heriotza jasatea, hartan pentsatu gabe, ezen ez heriotzan pentsatzea arriskurik gabe."

Ezin daiteke esan gizaki batek heriotza nekez ala erraz jasaten duenik, hartan batere pentsatzen ez duenean. Ezer ere sentitzen ez duenak, ezer ere ez du jasaten.

XLVII

"Uste izaten dugu gizaki guztiek era berean pentsatu eta sentitzen dituztela haiei aurkezten zaizkien objektuak; baina batere oinarririk gabe suposatzen dugu hori, ez baitugu inolako frogarik. Garbi dakusat hitz berak aplikatzen direla okasio beretan, eta bi gizakik, adibidez, elurra ikusten duten aldioro, hitz berberen bidez adierazten dute biek objektu horren ikuspena, zuria dela batak besteari esaten diolarik; eta aplikazio adostasun honetatik ideia adostasun baten aieru ahaltsu bat ateratzen dugu; hau, ordea, ez da erabat konbentzigarria, nahiz eta baden arrazoirik baieztapenaren alde apustu egiteko."

Ez zen kolore zuria froga gisa ekarri behar zena. Zuria, izpi guztien bilduma izaki, distiratsua iruditzen zaio mundu guztiari; luzarora liluratu egiten du pixka bat, begi guztiei efektu bera egiten die; hala ere, agian esan liteke beste koloreak ez direla era berean hautematen begi guztien aldetik.

XLVIII

"Gure arrazonamendu guztia sentimenduari amore ematera mugatzen da."

Gure arrazonamendua sentimenduari amore ematera mugatzen da, gustu kontuan, ez zientzi kontuan.

XLIX

"Obra bat araubidez epaitzen dutenak, erloju bat dutenak ez dutenekiko bezalakoak dira besteekiko. Batek dio: "Ba dira bi ordu hemen gaudela", besteak dio: "Ez dira hiru ordu laurden besterik." Neure erlojuari begiratzen diot; badiotsot bati: "Aspertuta zaude"; eta besteari: "Laburra egin zaizu denbora."

Gustu lanetan, musikan, poesian, pinturan, gustua da erlojuaren tokia hartzen duena; eta araubidez baizik epaitzen ez duenak, oker epaitzen du.

L

"Zesar zaharregia zen, ene iduriko, mundua konkistatuz jostatzeko. Jostaketa hori Alexandrorentzat zen on; gaztea zen, nekez geldiarazten dena; baina Zesarrek helduagoa izan behar zukeen."

Jendeak uste du eskuarki Alexandro eta Zesar mundua konkistatzeko asmoz abiatu zirela euren herritik; ez da inondik ere: Alexandro Filipori jarraitu zitzaion Greziako generalatoan, eta greziarrek Persiako erregearen irainak mendekatzeko eginkizun zuzenaren ardura eman zioten: etsai komuna garaitu zuen eta Indiaraino jarraitu zituen bere konkistak, Darioren erreinua Indiaraino hedatzen baitzen; Malboroughko dukea Lyoneraino iritsiko zatekeen bezala Villarseko mariskalarengatik izan ez bazen.

Zesarri zegokionez, errepublikako lehenengoetarikoa zen. Ponpeiorekin haserretu zen, jansenistak molinistekin bezala; eta orduan zeinek zein sarraskituko zuen izan zen arazoa: guduketa bakar batek, zeinetan ez baitziren hamar mila hildako izan, erabaki zuen dena.

Gainerakoan, Pascal Jn.aren gogoeta zentzu guztietan da faltsua, agian. Zesarren heldutasuna behar zen hainbeste azpikeriaren artean moldatzeko; eta harrigarria da Alexandrok, bere sasoiaren, plazerrari uko egin izana gerra hain nekagarriari ekiteko.

LI

"Kontuan hartzeko gauza bitxia da, badela munduan jenderik, Jainkoaren eta izadiaren lege guztiei uko egin ondoren, berentzat beste batzuk egin dituztenak, beroriei zehazki obeditzen dietenak, hala nola, lapurrak, etab."

Kontuan hartzeko bitxikeria baino zerbait baliagarriago da hori; ezen horrek frogatzen baitu ezin duela inongo giza elkartek araurik gabe iraun.

LII

"Gizakia ez da ez aingeru ez abere; eta zorigaitzez aingeruarena egin nahi duenak egiten du aberearena.

Grinak suntsitu nahi dituenak, haiek arautu ordeztu, aingeruarena egiten du".

LIII

"Zaldi batek ez du bere lagunak miretsi dezan bilatzen: bada haien artean lehiarik lasterketan, baina ez du horrek ondoriorik; zeren, ikuiluan direlarik, pisuenak eta gaizkien eratuak ez baitio halere bere oloa uzten besteari. Ez da gauza bera gertatzen gizakien artean; hauen bertutea ez da bere baitatik asetzen; eta ez daude pozik besteen kontra probetxurik ateratzen ez badute."

Gaizkien eraturiko gizakiak ere ez dio bere ogia besteari uzten, baina indartsuenak ahulenari kentzen dio; eta nahiz abereetan nahiz gizakietan, handiek txikiak jaten dituzte.

LIV

"Gizakia bere burua ikertzen hasiko balitz, ikusiko luke nola ez dezakeen besterik egin. Nola parte batek ezagutzen ahal luke dena? Menturaz nahiko ditu bederen ezagutu berekin zerikusirik duten parteak. Baina munduko parte guztiek hainbesteko erlazioa eta kateamendua dute elkarrekiko, non ezinezkoa iruditzen baitzait bat bestea gabe eta denak gabe ezagutzea."

Ez luke gizakiak baliagarri zaiona bilatzetik saihestu behar, dena ezagutu ezin duen aitzakian.

Non possis oculo quantum contendere Lynceus,

Non tamen idcirco contemnas lippus inungi.

Egia anitz ezagutzen dugu: asmakizun baliotsu franko aurkitu dugu. Kotsola gaitezen armiarma baten eta Saturnoren eraztunaren artean egon daitezkeen erlazioak ez jakiteaz eta segi dezagun geure eskueran dagoena ikertzen.

LV

"Tximista leku baxuetan eroriko balitz, poetek eta gauzez baizik arrazoitzen ez dakitenek ez lukete frogarik izango."

Konparaketa bat ez da frogarik ez poesian ez prosan: poesian edertzeko balio du eta prosan argitzeko eta gauzak sentigarriago bihurtzeko balio du. Handien zoritxarrak mendian erortzen den tximistarekin alderatu dituzten poetek alderantzizko konparaketa egingo lituzkete, alderantzizkoa gertatuko balitz.

LVI

"Izpirituaren eta gorputzaren konposaketa honek eragin du ia filosofo guztiek gauzen ideiak nahas zitzaizten eta gorputzei izpirituei baizik ez dagokiena egotz dakien, eta izpirituei gorputzei baizik komeni ez zaiena."

Jakingo bagenu zer den izpiritua, kexa gintezke filosofoek hari ez dagokiona egotzi diotelako; baina ez dugu ez izpiritua ez gorputza ezagutzen; ez dugu bataren ideia zipitzik ere, eta ez ditugu bestearen ideia txit akastunak baino. Beraz, ezin dezakegu jakin zein diren haien mugak.

LVII

"Edertasun poetikoa esan ohi den bezala, edertasun geometrikoa eta edertasun medizinala ere esan behar litzateke. Hala ere, ez da esaten; eta arrazoia zera da, ongi ezagutzen dela zein den geometriaren objektua, eta zein den medizinenaren objektua; baina ez da ezagutzen zertan datzan poesiaren objektua den atsegintasuna. Ez da ezagutzen zer den maitatu beharreko eredu natural hori; eta, ezagutza horren faltan, hitz bitxi batzuk asmatu dira; urrezko mende, gure egunotako miresgarritasuna, zorigaiztoko erramu, izar eder, etab... eta edertasun poetikoa deitzen diote mordoilo horri. Eredu horren arabera jantziriko emakume bat irudituko lukeenak, ordea, ispiluz eta latoizko katez estalitako andereño polit bat ikusiko luke."

Guztiz faltsua da hori; ez da esan behar edertasun geometrikoa ez edertasun medizinala, zeren teorema batek eta purga batek ez baitituzte zentzumenak goxoki hunkitzen, eta ez zaio edertasun izena ematen zentzumenak liluratzen dituzten gauzei baizik, hala nola, musika, pintura, mintzo ederra, poesia, arkitektura erregularri, etab.

Pascal Jn.ak dakarren arrazoia ere faltsua da; oso ondo ezagutzen da zertan datzan poesiaren objektua: indarrez, garbitasunez, fintasunez eta harmoniaz pintatzean datza; harmoniazko mintzo ederra da poesia. Pascal Jnak. oso gustu gutxi eduki behar zuen, zorigaiztoko erramu, izar eder, eta beste zozokeriak edertasun poetikoak direla esateko; eta Gogoetak horien argitarazleek arte ederretan ezjakin samarrak izan behar zuten, haien autore ohoragarriari buruzko hausnarketa desohoragarria inprimitzeko.

Ez dizkizut Pascal Jn.aren Gogoetei buruzko nire gainerako oharpenak bidaltzen, eztabaida luzeegiak eskatuko lituzkete eta. Aski da jeinu handi horrengan zenbait oharkabeko hutsegite nabaritu uste izanaz; kontsolamendu bat da nirea bezalako izpiritu hain mugatuarentzat erabat konbentziturik egotea gizakirik handienek behemilakoak bezala huts egiten dutela.

ERANSKINA

Pascali buruzko oharpenen jarraipena
(1742ko edizioari erantsia)

LVIII

"Ez da munduan bertsotan aditutzat jotzen poeta seinalea eraman ezean, ezta matematikan trebetzat, matematikarena eraman ezean, egiazko jende ondraduak, baina, ez du ezeren seinalerik nahi."

Honen arabera, gaizki ote legoke lanbide bat, talentu nabarmen bat edukitzea eta hartan gailentzea? Virgiliok, Homerok, Corneillek, Newtonek, Hospitaleteko markesak seinale bat eraman zuten. Zorionekoa arte batean nabarmentzen dena eta bestetan ulertzen duena!

LIX

"Iritzi oso sanoak ditu herriak: hala nola, dibertsioa eta ehiza hautatu izana poesiaren lekuan, etab."

Itxura denez, bolatan jokatu edo bertsoak egitea proposatu bide zaio herriari. Ez, baizik eta organu traukilak dituztenek bilatzen dituzte arima tartean sartzen ez deneko plazerrak; eta sentimendu delikatuagoa dutenek, plazer finagoak nahi dituzte: beharrezko da mundu guztia bizi dadin.

LX

"Unibertsoak gizakia zanpatuko balu ere, berau askoz ere nobleago izango litzateke bizitza kentzen diona baino, badakielako hil egiten dela; eta unibertsoak haren gain duen abantailaz, unibertsoak tutik ez daki."

Zer esan nahi du noble hitz horrek? Guztiz egia da nire gogoeta bestelakoa dela, adibidez, eguzki globoaren aldean; baina ongi frogaturik al dago animalia bat, gogoeta batzuk badituelako, naturan ezagutzen dugun guztia animatzen duen eguzkia baino nobleago dela? Gizakiari al dagokio erabakitzea? Epaile eta parte da bera. Esan ohi da obra bat bestea baino goragokoa dela langileari neke gehiago kostatu zaionean eta erabilera egokiagoa duenean; alabaina, gutxiago kostatu ote zaio Kreatzaileari eguzkia egitea, hobekiago edo gaizkiago arrazoitzen duen bost oin inguru luzeko aberetxo bat moldeatzea baino? Zer zaio baliagarriago munduari, abere hau ala hainbeste globo argitzen dituen astroa? Eta zertan dira hobegarriago burmuin batean jasotako ideia batzuk unibertso materiala baino ere?

LXI

"Hauta bedi nahiago den izaera eta bil bitez harengan gizakia askiesten bide duten ondasun eta atsegin guztiak; egoera horretan jarri dena zereginik eta dibertsiorik gabe baldin badago eta bera denari buruz gogoeta egiten uzten bazaio, zoriontasun erkin horrek ez dio eutsaraziko."

Nola bil daitezke ondasun guztiak eta atsegin guztiak gizaki baten baitan eta zereginik eta dibertsiorik gabe utzi aldi berean? Ez al dago hor kontraesan arras nabaria?

LXII

"Utz bedi errege bat bakar-bakarrik, zentzumenen inolako atseginik gabe, inolako artarik gabe bere izpirituan, laguntzarik gabe, bere baitan gogara pentsatzen, eta ikusiko da nola, bere burua dakusan errege bat, miseriaz betetako gizaki bat den, eta beste edozeinek bezala pairatzen dituen."

Sofisma bera beti ere. Pentsatzeko gogo biltzen duen errege bat okupaturik dago orduan; ordea, bere gogoeta bere baitan baizik ezarriko ez balu, bere buruari esanez: "Erreinatzen dut", eta ez deus besterik, zozo bat litzateke.

LXIII

"Jesukristo aitortzen ez duen erlijio oro nabariki faltsua da, eta mirakuluek ez diezaiokeke ezertarako balio."

Zer da mirakulu bat? Zernahi delarik ere hartaz ukan daitekeen ustea, Jainkoak bakarrik egin dezakeen gauza da. Hala ere, hemen uste da erlijio faltsu bati eusteko egin ditzakeela Jainkoak mirakuluak; sakondua izatea merezi du honek; arazo hauetariko bakoitzak liburuki bat bete lezake.

LXIV

"Esan izan da: "Sinets ezazue Elizan"; baina ez da esan izan: "Sinets ezazue mirakuluetan", azkena baita naturala eta ez lehena. Batak manamendu beharra zuen eta besteak, ez."

Hona hemen, nire ustez, kontraesan bat: alde batetik, mirakuluek, zenbaitetan, ez dute ezertarako balio behar; eta, bestetik, hain derrigor sinetsi behar da mirakuluetan, frogabide hain konbentzigarria baita, non ez den izan delako frogabidea gomendatu beharrik ere. Hauxe da, seguraski, aldeak eta kontrak adieraztea.

LXV

"Ez dut ikusten zailtasun handiagoa dagoenik gorputzen biztuera eta Birjinaren erditzea sinestean, ezen ez kreazioan. Zailago ote da gizaki bat sortzea berau birsortzea baino?"

Aurki daiteke, arrazoiketa hutsaz, kreazioaren frogarik, zeren, ikusirik materia ez dela bere baitatik izateratu eta ez duela bere baitatik mugimendurik, etab., nahitaez sortua behar duela izan ezagutzera heltzen da; baina ez da iristen, arrazoiketaz, gorputz beti aldakor bat egunen batean berpiztua, aldatzen zen garaietan zen bezalakoxea, izan behar duela ikustera. Arrazoiketak ez du, ezta ere, ikusarazten gizaki batek ernamuinik gabe jaio behar duenik. Kreazioa, bada, arrazoiaren objektu bat da, beste mirari biak, ordea, fedearen objektu bat dira.

1738ko maiatzaren 10ean

Duela gutxi irakurri ditut Pascalen Gogoeta batzuk, gaurdaino agertu ez zirenak; Desmolets A.k eskuratu ditu autore ilustre horren eskuaz idatzita, eta inprimarazi egin ditu. Lehenago esan dudana baieztatzen dutela iruditzen zait, jeinu handi horrek, azarean jaurtiki zituela ideia horiek guztiak, parte bat zuzentzeko eta bestea erabiltzeko, etab.

Azken Gogoeta hauen artean, Pascalen Obren editoreek bildumatik baztertu zituztenak, kontserbatuak izatea merezi zuten anitz daudela iruditzen zait. Hona hemen, nire iritziz, gizaki handi horrek zuzendu behar zituzkeen batzuk.

LXVI

"Proposizio bat pentsaezina den aldioro, ez da haatik ukatu behar aurkakoa ikertu baizik; nabariki faltsua atzematen bada, aurkakoa baieztatu daiteke, denik eta ulergaitzena izan."

Iruditzen zait nabaria dela aurkako biak faltsuak izan daitezkeela. Idi bat hegoaldera hegaldatzen da hegoekin, idi bat iparraldera hegaldatzen da hegorik gabe; hoge mila aingeruk hoge mila gizaki hil zituzten atzo, hoge mila gizakik hoge mila aingeru hil zituzten atzo: aurkako proposizio hauek nabariki faltsuak dira.

LXVII

"Zer handikeria pinturarena: miresgarri egiten ditu beren baitatik miresgarri ez dauzkagun gauzen irudiak!"

Ez datza seguraski gizaki baten izaeraren ontasunean bere erretratuaren merezimendua, bere irudian baizik. Zentzu batean miresten da Zesar, eta haren estatua eta oihaleko bere irudia, beste zentzu batean.

LXVIII

"Medikuek sotanarik eta mandorik ez balute, doktoreek kapela karratuak eta arropa arras zabalak ez balituzte, ez zuketen munduan duten begiramena sekula edukiko."

Alderantziz, medikuek ez diote irrigarri izateari utzi, ez dute egiazko begiramena lortu, harik eta pedanteri seinale horiek utzi dituzten arte; doktoreak ez dira munduan

errezibituak, jende jatorraren artean, kapela karraturik gabe eta argudiorik gabe daudenean baizik.

Bada, halaber, magistratura ponparik gabe errespetarazia den herrialderik. Bada oso ondo errespetaturiko Kristau erregerik, sagarako eta koronazioko zeremoniaz axolatzen ez denik. Gizakiek argi gehiago erdiesten duten heinean, alferrikakoago bihurtzen da aparailua; jadanik herri xumearentzat bakarrik da batzutan beharrezko; ad populum phaleras.

LXIX

"Naturako argi horien arabera, Jainko bat baldin bada, infinituki ulertezina da, zeren eta, ez parterik ez mugarik ez duenez, ez dauka inolako harremanik gurekin; ezgauza gara, beraz, ez zer den ezagutzeko ezta badenik ere ezagutzeko."

Bitxia da Pascal Jn.ak uste izatea arrazoibidez igarri zitekeela jatorrizko bekatua, eta esatea ezin dela arrazoibidez ezagutu Jainkoa badenentz. Itxuraz, gogoeta honen irakurketa da Hardouin A. bultzarazi zuena Pascal bere ateoan zerrenda irrigarrian sartzeraz; Pascalek agerriki arbuiatuko zukeen ideia hau, beste tokitan gerra egiten baitio. Izan ere, ezagutzen ez ditugun gauzak onartzera beharturik gaude; banaiz, beraz zerbait bada betieretasun guztitik, proposizio nabaria da, hala ere, konprenitzen al dugu betieretasuna?

LXX

"Uste al duzue ezinezkoa dela Jainkoa zatirik gabeko infinitua izatea? Bai. Ikusarazi nahi dizuet, bada, gauza infinitu eta zatiezin bat: abiadura infinituaz edonondik higitzen den puntu bat; zeren edonon baitago eta oso-osorik toki bakoitzean."

Badira hor lau faltsukeria nabarmen:

1. Puntu matematiko bat bakarra egotea.
2. Aldi berean ezkerrera eta eskuinera higitzea.
3. Abiadura infinituaz higitzea, ez baita gehiagotua izan ez daitekeen abiadura hain handirik.
4. Edonon oso-osorik egotea.

LXXI

"Homerok eleberri bat egin zuen, halakotzat zeukana. Inork ez zuen zalantzan jartzen Troia eta Agamenon ez zirela urrezko sagarra baino areago existitu."

Ezein idazlek ez du inoiz Troiako gudua zalantzan jarri. Urrezko sagarraren fikzioak ez du gaiaren sakoneko egia suntsitzen. Uso batek ekarririko maskuiluak, eta banderak aingeru batek, ez dute galarazten Klobisek Frantzian egitan erreinatu izana.

LXXII

"Ez naiz frogatzen hasiko hemen naturako arrazoien bidez Jainkoaren existentzia, edo Hirutasuna, edo arimaren hilezkortasuna, ez bainintzateke ateo soraioak konbentziarazteko zerik naturan aurkitzeko aski indartsu sentituko."

Posible ote da berriro ere Pascal izatea Jainkoaren existentzia frogatzeko adina indartsu sentitzen ez dena?

LXXIII

"Iritzi nasaiak hain atsegin dituzte gizakiek, jakina, non arraroa baita haiei ez laket izatea."

Esperientziak ez al du frogatzen, alderantziz, herrien izpirituaz ez dela uste onik izaten, haiei zailena, are egiteko eta sinesteko ezinezkoa proposatuz baizik? Estoikoak giza natura zapaltzen zutelako izan ziren errespetatuak. Ez ezazu zentzuzko gauzak baizik proposa eta mundu guztiak erantzuten du: "Hori bagenekien". Ez dago inspiratua egon beharrik arrunta izateko; agindu itzazu, ordea, gauza neketsuak, eginezinak; pinta ezazu jainkotasuna beti tximistaz armaturik; isur ezazu odola haren aldare aurrean; jendaldeak

entzuno dizu eta mundu guztiak esango du zuregatik: "Arrazoi izan behar du, gauza hain estrainioak hain ausarki aldarrikatzen dituenaz gero."

INGELESEI BURUZKO GUTUN BATEN AITZINASMOA

M.ri

Ustekabeen topatu nintzen atzo Dennis deituriko baten liburu txar baten aurrean, zeren bai baitago idazle txarrik ingelesean artean ere. Autore honek, Frantzian egin duen hamabost eguneko egonaldiaren aipamentxo batean, ezagutzeko denbora aski izan duen nazioaren jitea adierazi nahi duela abisatzen du. "Egitera noakizue, dio, frantsesen erretratu zuzen eta jitezkoa, eta hasteko esango dizuet biziki gorrotatzen ditudala. Beraiek, egia esan, oso ondo hartu naute eta jendetasunez bete naute; hau guztia, ordea, harrokeria hutsa da, ez da guri atsegin emateko hain ondo hartzen gaituztela, beren buruei gustua emateko da; benetan nazio irrigarria da, etab."

Ez ezazula uste ingeles guztiek Dennis Jn. honek bezala pentsatzen dutenik, ezta ere hura imitatze gogorik dudarik zuri, agintzen didazun bezala, ingeles nazioaz hitz eginez.

Bizi naizeneko herriaren ideia orokor bat eman diezazudan nahi duzu. Ideia orokor hauek salbuespen gehiegiren menpe daude; bestalde, bidaiari batek ez du, eskuarki, oso inperfektuki baizik ezagutzen bera aurkitzen deneko herrialdea. Eraikinaren aurrealdea baino ez du ikusten; ia barrualde guztiak ezezagunak zaizkio. Zuk pentsa zenezake, beharbada, enbaxadore bat gizaki oso jakituna dela bidalia izan den herrialdearen jainuaz, eta batek baino haren berri gehiago adieraz diezazukeela. Hori egiazkoa izan liteke Parisen bizi diren atzerriko ministroei dagokienez, denek baitakite herrialdeko hizkuntza; barrua aise agertzen duen nazio baten aurrean daude; errezibituak dira, nahi badute bederen, elkarte mota guztietan, zeinak haiei gustua ematen lehiatzen baitira; gure liburuak irakurtzen dituzte, gure ikuskizunetara joaten dira. Oso bestelakoa da Frantziako enbaxadore bat Ingalaterran. Gehienetan ez daki ingeleseko hitz bat ere, ez diezaieke interprete bidez baizik hitzegin nazioko hiru laurdenei; hizkuntzan egindako idazlanen ideiarik txikiena ere ez dauka; ezin ditu ikusi nazioaren ohiturak jokatuak direnako ikuskariak. Onartua izan daitekeeneko elkarte kopuru guztiz urriek frantses adiskidetasunaz oso bestelako tratua dute; jokatzera eta isilik egotera baizik ez da han biltzen. Nazioa, bestalde, ia beti bi zatitan banatua egonik, enbaxadoreak, susmagarri izateko beldurrez, ez du gobernuaren aurkako alderdikoekin harremanetan egoterik izaten, mugaturik dago ia ministroak baino ez ikustera, bere bezeroak eta bere tratuak besterik ezagutzen ez dituen negoziari baten antzeratsu, diferentzia honekin, ordea, merkatariak arrakasta izateko Bere Eszelentziaren aginduetan beti aintzakotzat hartua ez den fede onaz aritu behar duela; halako moldez non maiz askotan gertatu ohi da postari mota bat dela enbaxadorea, zeinaren bidez gorte batetik bestera pasatzen baitira faltsukeriak eta engainu politikoak, eta zeremonioski gezurra esan ondoren, bere nagusi erregearen izenean, zenbait urteren buruan, betirako uzten duela batere ezagutzen ez duen nazio bat.

Badirudi argitasun gehiago atera zenezakeela partikular batengandik, ingeles hizkuntza hitz egiten ikasteko nahikoa asti eta egoskortasun lukeena, whig eta toryekin libroki mintzatuko litzatekeena, apezpiku batekin askalduko lukeena, eta kuakero batekin afalduko lukeena, zapatuan sinagogara eta igandean Saint-Paulera joango litzatekeena, goizez sermoi bat entzun eta afalondoan komediara joango litzatekeena eta honen guztiaren gainetik hotzak, ingeles emakumeek tratua hastapenetan ipintzen duten erdeinuzko izotz aireak, zeinetik zenbaitzuk inoiz ez baitira libratzen, atzeraraziko ez lukeena; deskribatu berri dizudan moduko gizakia ere huts egiteko eta zuri ideia faltsuak emateko oso gai izango litzateke, bereziki lehen kolpean epaituko balu, eskuarki epaitu ohi den bezala.

Londres inguruan lehorreratu nintzenean, udaberriaren erdian zen; ortzea hodeirik gabe zegoen, Frantziako hegoaldeko egunik ederrenetan bezala; mendebaleko haize ezti batek freskatzen zuen airea, zeinak naturaren baretasuna gehitzen baitzuen eta izpirituak alaitasunera prestatzen: batzuetan makina gara, bestetan gorputzen ekintzaren menpeko dira gure arimak. Greenwichetik hurrean gelditu nintzen, Tamesisen ertzetan. Sekula gainez egiten ez duen eta bere bazterrak urte osoan berdez horniturik dituen ibai hau bi lerrotako merkatal untziz estalia zegoen sei milako eremuan; denek zituzten beren oihalak zabaldurik errege-erreginari ohore egiteko, zeinak, ibaian gaindi paseatzen baitziren urrezko txalupa batean, aurretik musikaz beteriko untziak eta ondotik mila arraununtzitxo zituztelarik; bakoitzak bi arraunlari zituen, behiala gure morroiak bezala jantzita guztiak, galtzekin eta sorbalda gainean zilarrezko plaka handi batez apainduriko soinekoekin. Ez zegoen txalupari horietako bat ere azaltzen ez zuenik bere fisionomiaren, bere janzeraren, bere loditasunaren bidez, librea zela eta oparotasunean bizi zela.

Ibaiaren ondoan, lau mila inguru hedatzen den soropil handi baten gainean, ondo eratutako gazte jende andana miresgarri bat ikusi nuen, zeinak zaldi gainean jirabiran baitzebiltzan, lurrean miliatik miliara sarturiko zutoin zuriz markatutako ibilbide moduko baten inguruan. Emakumeak ere ikusten ziren zaldi gainean, grazia handiz hara eta hona lauhazkatzen; baina, batik bat, neska gazteak oinez, Indiako oihalez jantzita gehienbat. Bazen txit ederrik anitz, guztiak ziren ondo eginak; garbitasun itxura zuten; eta bazen beraien pertsonengan guztiz polit bihurtzen zituen bizitasun eta bozkariarik.

Beste ibilbide txiki bat zegoen handiaren barruan; bostehun oin inguru luze zen, eta balustrada batez amaitua. Horrek guztiak zer esan nahi zuen galdetu nuen. Berehala jakinarazi zidaten ibilbide handia zaldi lasterketarako erabilia zela eta txikia oinez korrika egiteko. Ibilbide handiko zutoin handi baten ondoan gizakume bat zegoen zaldi gainean, zilarrez estalitako urontzi handi baten antzekoa zeukana; barruko ibilbidearen balustradan bi haga zeuden; bataren goialdean txapel handi bat ikusten zen esekita eta bestean emakume atorra batek zintzilikatzen zuen. Gizakume lodi bat zutik zegoen bi hagen artean, eskuan boltsa bat zuela. Urontzi handia zaldi lasterketaren saria zen; boltsa, oinezko lasterketarena; atseginez harritu nintzen, baina, neska-lasterketa bat ere bazela esan zidatenean; garailearentzat destinaturiko boltsaz gainera, haga honen gainean zintzilikatzen zuen atorra hau ematen zitzaiola ohore marka gisa, eta txapela ongien korrituko zuen gizasemearentzat zela.

Jendetzaren artean negoziari batzuk aurkitzeko zori ona izan nuen, zeinentzat gomendio gutunak baintuen. Jaun hauek festaren ohoreak egin zizkidaten, pozarren dabilen jendearen lehia eta abegikortasun horrekin, eta zeina beraiekin parteka dadin nahi baitute. Zaldi bat ekarrarazi zidaten, freskagarrien bila igorri zituzten, lasterketa guztiak eta ibaiko ikuskizuna aise ikus nitzakeen leku batean ni ezartzeko ardura hartu zuten, urrunean Londreseko bistarekin.

Joko olimpikoetara lekualdatu nintzela uste nuen; alabaina, Tamesisen edertasunak, untzi mordo honek, Londreseko hiriaren neurrigabetasunak, honek guztiak berehala gorriarazi ninduen Elida Ingalaterrarekin konparatzera ausarta izanaz. Jakin nuen une hartantxe gladiadore borroka bat zegoela Londresen eta bat-batean antzinako erromatarrekin nintzela iruditu zitzaidan. Goizean iritsia zen Danimarkako postari bat, zorionez arrats berean itzultzeko zena, nire alboan egokitu zen lasterketa denboran. Arraitasunak eta txundimenak hartua iruditu zitzaidan; nazio osoa beti alaia zela uste zuen; emakumeak oro ederrak eta ernaiak zirela eta Ingalaterrako zerua beti garbia eta barea; ez zela plazerrean bestetan amets egiten; berak zekusan eguna bezalakoak zirela egun guztiak; eta desengainatzeke joan zen. Niri dagokidanez, ene danimarkarra baino are liluratuagoa, gorteko zenbait damari aurkeztarazi ninduten gauean; nik ez nien ikusi

berri nuen ikuskari zoragarriaz baizik hitzegiten; ez nuen zalantzarik egiten han egonak izango zirela eta hain grazia onez galoputzen ikusi nituen dama haietarikoak izango zirela. Aldiz, harrituxea gelditu nintzen ikusirik ez zutela olgatu berri diren pertsonak duten bizitasun itxura hori; tenteak eta hotzak ziren, tea hartzen zuten, zarata handia egiten zuten euren haizemaileez, txintik ez zuten esaten edo denak batera egiten zuten oihu beren lagunurkoaz gaitzesateko; zenbaitzuk koadrilean⁵¹ jokatzeko zuten, beste batzuek kazeta irakurtzen zuten; azkenik, besteak baino karitatetsuago batek irakatsi nahi izan zidan jende prestua ez zela hainbeste liluratu ninduten herri bilkura horietara joatera apaltzen; Indiako oihalez jantziriko pertsona prestu horiek guztiak zerbitzariak edo herritarak zirela; gazteria distiratsu hori guztia, zaldira hain ongi igona eta ibilbidean jirabiraka zebilena, eskolume eta alogerreko zaldietara igotako ikasle taldea zela. Haserre bizitan jarri nintzen hori guztia esan zidan damaren aurka. Ezer ez sinesten ahalegintzen nintzen; eta minduta atzera ere hirira itzuli nintzen, nire ustezko joko olinpikoen ohoreak hain bihotz-bihotzetik egin zizkidaten merkatari eta aldermen-engana.

Biharamunean aurkitu nituen, kafetegi zikin, gaizki altzariztaturiko, gaizki zerbitzaturiko eta gaizki argiztaturiko batean, jaun horiek gehienak, bezperan hain abegikor eta hain umore maitagarrikoak zirenak; inork ez ninduen ezagutu; zenbaitekin solastera ausartu nintzen eta ez nuen erantzunik jaso, edo, gehienez ere, bai edo ez bat; uste nuen guztiak iraindu bide nituela bezperan. Nire burua aztertu nuen eta gogorazten saiatu nintzen ea ez ote nien lehentasuna eman Lyongo oihalei haienekiko; edo ez ote nuen esan frantses sukaldariak ingelesei gailentzen zitzaizkiela; Londres baino atseginago zela Paris, Versaillesen Saint-Jamesen baino gozokiago pasatzen zela denbora edota antzerako izugarrikeriaren bat. Ezeren errudun sentitu gabe, haietako bati galdetzeko askatasuna hartu nuen, oso bitxia iruditu zitzaien bizkortasun itxura batekin, ea zergatik zeuden denak hain triste; nire gizonak kopetilun erantzun zidan ekialdeko haizea egiten zuela. Mementoan bere adiskideetariko bat heldu zen, aurpegi axolagabe batez esaten diena: "Mollyk lepoa moztu du gaur goizean. Haren maitaleak hilda aurkitu du bere gelan, beraren alboan bizar labana batekin." Molly hau neska gazte bat zen, ederra eta oso aberatsa, hilda aurkitu zuen gizon berberarekin ezkontzeko prest zegoena. Jaun hauek, denak Mollyren lagunak izaki, bekainak zimurtu gabe hartu zuten albistea. Haietako batek bakarrik galdetu zuen ea zer bilakatu zen maitalea; bizar-labana erosi du, esan zuen hozki lagunarteko batek.

Niri dagokidanez, herio hain estrainioaz eta jaun horien arduragabetasunaz izaturik, ez nion informatzeari utzi zein arrazoik behartu zuen andereño itxuraz hain zoriontsu bat hain krudelki bizitza kentzera; erantzun zidaten soilki ekialdeko haizea egiten zuela. Lehenik, nik ezin nuen konprenitu zer zuen amankomunean ekialdeko haizeak jaun hauen umore beltzarekin eta Mollyren heriotzarekin. Bat-batean irten nintzen kafetegitik eta gortera abiatu nintzen, gortea beti alaia delako frantses aurriritzi on horretaz beterik. Dena zen tristea eta iluna han, are ohorezko neskak ere. Ekialdeko haizeaz mintzatzen ziren bertan melankolikoki. Bezperako nire danimarkarrarengan pentsatzen nuen orduan. Ingalaterrari buruz eraman zuen ideia faltsuaz barre egiteko tentaturik egon nintzen; baina eguraldia lan egiten hasia zen ordurako niregan eta barrerik egin ezinaz harritzen nintzen. Gorteko mediku famatu bat, zeinari nire usteak adierazi bainion, txunditurik gelditzeaz oker nengoela esan zidan, iraileko eta martxoko hilabeteetan guztiz bestelako zerbaite ikusiko nuela; orduan dozenaka urkatzen zirela; ia mundu guztia benetan gaixotzen zela bi urtaro horietan, melankolia beltz bat barreiatzen zela nazio osoan barrena; zeren orduan baitu, zioen berak, ekialdeko haizeak etengabekiago jotzen. Haize hau gure irlaren hondamena da. Animaliek ere hartaz sufritzen dute eta lur joak dirudite. Haize madarikatu honetan beren osasuna kontserbatzeko aski sendoak

diren gizakiek, beren umore ona galtzen dute gutxienez. Mundu guztiak du, orduan, aurpegia ilun eta izpiritua erabaki etsietara emana. Ekialdeko haizearengatik izan zen, hain zuzen, lepoa moztu ziotela Karlos I.ari eta Jaime II.a destronatu zutela. "Graziaren bat baldin badaukazu gorteari eskatzeko, gaineratu zidan belarrira, egin ezazu soil-soilik haizeak mendealetik edo hegotik jotzen duenean."

Elementuek ingelesen izpirituetan sortzen dituzten nahigabe hauez gainera, alderdien areriotasunetik sortzen direnak dauzkate; eta horixe da atzerritarra gehien nahasten duena.

Entzuna dut hemen esaten, hitzez hitz, Milord Malborough munduko koldarrena dela eta Pope Jn.a inozo bat zela.

Guztiz sinetsita etorri nintzen whig bat errepublikazale amorratua, erregetzaren etsaia zela; eta tory bat, obediencia pasiboaren aldekoa. Alabaina ikusi dut Parlamentuan ia whig guztiak gortearen alde zeudela eta toryak haren kontra.

Egun batez, Tamesisen zehar paseatzen nebilela, nire arraunlarietako bat, frantsesa nintzela ikusiz, bere herriaren askatasuna goraipatzen hasi zitzaidan itxura harro batekin, eta Jainkoa zin eginez esan zidan nahiago zuela Tamesisen untzizain izan Frantzian artzapezpiku baino. Biharamunean, nire gizon hau berau ikusi nuen presondegi batean, zeinaren ondotik pasatzen bainintzen; girgiluak zituen hanketan eta eskua luzatzen zien burdinsaretik pasealariei. Galdegin nion ea honen kasu gutxi egiten zitzaion beti Frantzian artzapezpiku bati; ezagutu egin ninduen berak: "Ai, jauna, gobernau higuigarri honek bortxaz bahitu nau, Norvegian erregearen untzi batean zerbitzatzera joateko; ene emaztea eta ene haurrak kentzen dizkidate eta presondegi batera botatzen naute, hanketan girgiluak, untziratze eguna arte, ihes egingo dudalakoaren beldurrez."

Gizon honen zoritxarrak eta injustizia hain jasanezinak nabariro hunkitu ninduten. Nirekin zegoen frantses batek aitortu zidan poz maltzur bat sentitzen zuela ikusirik ingelesak, gure menpekotasuna hain goraki aurpegiatzen digutenak, gu bezain esklabu zirela. Nik sentimendu gizatiarragoa nuen, atsekabeturik nengoen lur gainean askatasun gehiago ez zegoelako.

Idatzia nizun horri buruz moral itunaz, parlamentuko egintza batek marinela bortxaz erroldatzeko abusuari amaiera eman zionean, eta nire gutuna sutara botarazi zidan. Mintzo natzaizun nahigabeez zuri ideia handiagoa ematearren, ikusiak ditut Jesukristoren mirakuluen errealtatearen kontrako lau tratatu txit jakintsu, hemen gaztigu gabe inprimatuak, liburugile gaixo bat Atorradun erlijiosa-ren itzulpen bat argitaratzeagatik urkatua izan den bitartean.

Hitz eman zitzaidan Newmarketen berraurkituko nituela neure joko olinpikoak. "Noblezia guztia, esaten zidaten, urtean bitan biltzen da han; erregea bera bertara joaten da batzutan errege familiarekin. Han ikusten dituzu Europako zaldirik lasterrenen multzo miresgarri bat, arabiar garainoetatik eta ingeles behorretatik jaioak, soropil berdezko ibilbide batean ikus ahala urrun lasterka egiten dutenak, zetazko oihalez jantziriko zaldizko txikien pean, gorte osoaren presentzian". Ikuskizun eder horren bila abiatu nintzen eta kalitatezko zaldiketariak ikusi nituen, bata bestearen aurka apostu egiten zutenak eta ospakizun honetan handitasuna baino infinituki frikunkeria gehiago jartzen zutenak.

Gauza txikietatik handietara pasa nadin nahi al duzu? Galdegingo nizuke ea oso erraza ote den adieraztea zuri zer den Karlos I.aren burua moztu duen nazio bat, Eskozian elizatorraren usadioa sarrarazi nahi zuelako eta epaileek harena zela aitortu zuten zerga bat exigitu zutelako, nazio honek beronek murmurikatzeke ikusi zuenean Cromwell parlamentuak, lordak, apezpikuak iraitzen eta lege guztiak ezeztatzen.

Gogoan har, Jaime II.a tronutik kendua izan zela, hein batean, katoliko harroputz bati ikastetxe batean plaza bat ematen tematu zelako; eta oroit zaitez Enrike VIII.ak, tirano odolko hark, erdi katolikoa, erdi protestantea, erresumako erlijioa aldatu zuela, gero urkabera igorri zuen ausarti batekin ezkondu nahi zuelako; aita santuaren aldeko liburu txar bat idatzi zuela Luteroren aurka, gero bere burua aita santu egin zuelarik Ingalaterran, beraren nagusigoa ukatzen zuten guztiak urkaraziz eta transubstantiazioa sinesten ez zutenak errearaziz; eta hau guztia alegeraki eta zigor gabe.

Entusiasmo izpiritu batek, superstizio amorratu batek hartu zuen nazio osoa gerra zibilen garaian; fedegabekeria gozo eta alfer bat jarraitu zitzaion nahasmendu aldi horri Karlos II.aren erreinaldian.

Hona nola dena aldatzen den eta dena kontraesaten dela dirudien. Garai batean egia dena errorea da beste batean. Espainiarrek gizaki batez diote: adoretu zen atzo. Honelatsu epaitu behar lirateke nazioak eta, ororen gainetik, ingelesak; esan behar litzateke: "Halakoak ziren urte honetan, hil honetan."

Oharrak

¹ Kuakeroei buruzko kapituluak prestatzeko Barclayren Theologiae vere christianae apologia (1675) eta Sewelen The rise increases and progress of the christian people called quaker (1726) liburuez baliatu zen Voltaire.

² Mateo, III, 2 (Barclayk aipatu bezala)

³ I Korintoarrak, I, 17. Testu honek zirrara handia egin bide zion Voltaireri Edward Higginsonen Account of a conversation with Voltaire obran esaten denez.

⁴ "Gogobero" hitzak erdeinuzko zentzua du maiz Voltairerengan, "iluminatuaren" edo "fanatikoaren" antzekoa edo. Testuinguru honetan kuakeroekiko gutxiespenik ageri ez bada ere, haiekiko urruntasun kritikoa nabaria da.

⁵ Azken lerrootan bere Hiztegi filosofikoa-ko "Gerra" artikulua laburbiltzen du Voltairek, geroago "kontzientzi eragozle" deituko direnen tesien bozeramale bihurtzen delarik.

⁶ 1666. urtean Londres birrindu zuen sutea gogoratzen duen eraikin edo zutabeari Monumentua deitzen zaio.

⁷ "Kontortsionista" hauek Saint-Médardeko hilerrian beren zalapartak antolatzen zituzten "konbultsionistak" bezainbat mesprezatzen ditu Voltairek, gisa honetako erlijio egintzak eta ohiturak irrigarritzat baitauzka.

⁸ Nicolas Malebranche (1638-1715) apaizak bere Recherche de la verité liburuan mantentzen dituen tesiak. Descartesen dizipulu eta idazle bikaina, Aita Malebranchek ospe handia lortu zuen bere garaian.

⁹ George Fox, kuakeroen sektaren fundatzailea, 1624an jaio eta 1691n hila.

¹⁰ "Non ez baitziren giltzaz ixten" (Kardinalen konklabeari buruzko aipamena).

¹¹ Sewelek zioenez, Foxek hainbat aldiz errepikatu ohi zuen esakune batetik zetorkien izen hau: Tremble at the world of the Lord. Barclay eta gainontzeko adituak Voltaireren iritzikoak dira. Izan ere, ingelesez to quake "dardar egin" baita.

¹² Gutun hau William Pennen Idazlanak (Londres, 1726) irekitzen zuen "Autorearen bizitza" txatalean inspiratua dago ia osoki.

¹³ 1644an argitaratu eta Kartesioren adiskide eta dizipulu zen printzesa honi eskainitako Filosofiaren printzipioak aipatzeko era ironikoa. Voltairek ez zuen oso gogoko filosofia kartesiarra nahiz eta haren geometria errespetatu, gero ikusiko dugunez.

¹⁴ 5. gutun hau Hiztegi filosofikoa-ko "Anglikanoak" artikulua da, Kehlen edizioan.

¹⁵ Dissertation sur la validité des ordinations anglicanes et sur la succession des évêques de l'église anglicane, Bruselas, 1712. Eskandalu gogoangarria eragin zuen liburuak Frantzian.

¹⁶ Milord Bolingbroke, Henry St. John, bizkondea (1678-1751). Idazle eta politikaria, Voltaireren lagun mina zen. Bere idazlanen artean, deismoari eta moralari buruzko ikerketez gain, Historiaren ikaskuntza eta erabilpenari buruzko gutunak eta Errege abertzale baten ideia daude. Ingeles ilustratuaren irudirik bikainena zen Voltairerentzat.

¹⁷ François Rabelais (1492-1553), autore satiriko eta komikoa, Gargantua eta Pantagruelen bizitza, Hipokratesen aforismoak eta Gutunak izeneko bilduma baten egilea. Aurreraxeago jakin ahal izango dugu haren lanari buruzko Voltaireren iritzia zein zen.

¹⁸ VI. gutun honek aipatu Hiztegi filosofikoa-ko "Presbiterianoak" artikulua osatzen du.

- 19 "Jende prestua" bere harremanetan leiala eta ondradua denari esaten bazaio ere, Voltairek hemen, aristokrazia eta apaizteriaren aurrez aurre, burges liberal, ilustratu eta aurrerakoia aipatzeko darabil.
- 20 Arriotarren (Arrio, IV. mendeko greziar heretikoa, Nizeako Kontzilioan eskumikatua), soziniarren (XVI. mendeko Sozini bien jarraitzaileak) eta unitario ingelesen heresiaz baliatzen da Voltaire Hirutasunaren dogmari kontra egiteko, kristau arrazionalismozko eskola honen antzinatasuna frogatu asmoz. Voltaire ez zen ingeles deistez mintzatu. Arriskutsuegia zen nonbait. Teologian arrazionalismoaren sartzea seinalatzeaz konformatu zen antitrinitarioei gutun bat eskainiz.
- 21 Batzuen ustez, Rabelais dateke lagun hori. Beste batzuen ustez, Bolingbroke. Edo agian Voltaire bera...
- 22 Joan Frantzisko Paulo Gondikoa, Retzeko Kardinala, 1613-1679, Fronde izeneko mugimendu iraultzailearen buruetako bat. Oroitzapenak ospetsu baten egilea.
- 23 Gutun hau "Ingalaterrako Parlamentua" izenpean ageri da Hiztegi filosofikoa-n.
- 24 Artikulu hau Questions sur l'Encyclopédie-n berregiten du Voltairek.
- 25 1215eko Karta Magnaz ari da.
- 26 Gutun hau Hiztegi filosofikoa-ko "Txertaketa" artikuluari dagokiona da Kehlen edizioan.
- 27 Txertaketa bariolikoaz dextente interesatu zen Voltaire, gaitza pairatu izan zuenez gero ongi ezagutzen baitzituen beronen ondorio galgarriak eta beroni aurre egin beharra. Parlamentu frantsesak praktika hau galarazi zuenean Omer Fleurykoaren eskabidez, fartsa bat idatzi zuen haren kontra (1763). Van Swieten medikua ere satirizatu zuen Irakurketaren arrisku izugarriaz-en, txertaketaren aurkakoa zelako.
- 28 Voltairek bere ideiarik maiteenetarikoari ekiten dio hemen, hots, jakintsuak, gizadiaren ongileak dira gizaki handi, ez heroi edo konkistatzaileak.
- 29 Filosofia eskolastikoko ohiko hitzak.
- 30 Gutun honek "Locke" kapitulua osatzen du Hiztegi filosofikoa-n.
- 31 Arimari buruzko pentsamendu grekoaren laburpen sarkastiko eta "berezi" honek Voltaireren ezaugarri moderno nagusietako bat adierazteko balio du: bere arbuioa eta are gorrotoa tradizio intelektual ororekiko, denik eta beneragarriena izanik ere; egiazko egia azken menderdiko gauza zelakoaren konbentzimendua.
- 32 Animaliak makinak direneko ideia Descartesez bota zuen eta Malebranchek, Spinozak, etab.ek jaso. XVIII. mendea eskuarki eta Voltaire bereziki animaliekiko zaletasunagatik nabarmendu ziren; izaki biziduntzat hartuak eta goratuak izan ziren, "homme-machine"-z (La Mettrie) hitzegiten hasi zirelarik.
- 33 Pasarte honek teoria pitagoriko ezagunenetako batzuk aipatzen ditu umoristikoki: arimaren transmigrazioa gizakien eta animalien artean edo alderantziz, begetarismoa, babak jateko debekua...
- 34 "Gimnosofistak" (H.h.: "jakintzu biluziak") santoi hinduek hartzen zuten grekozko izena zen.
- 35 XIII. gutunaren bukaerarekin bat egiten du zati honek hemen: "Inoiz ez da beldurrik izan behar ezein sentimendu filosofikok herri bateko erlijioari kalte egin diezaiokeenik..."
- 36 Gutun hau Hiztegi filosofikoa-ko "Newton eta Descartes" artikulua lehen atala da.
- 37 Galileo 1642an zendu zen, Descartes 1650ean.

- 38 Bernoulliren *Examen novi systematis cometarum* (1682) delakoaz ari da, bertan 38 urte eta 147 egun ematen zaizkio 1680ko kometari ager dadin.
- 39 Whilston: *A new theory of the earth* (1696) izeneko liburuan. 40 Newtonen obra kronologikoak: *Brevia Chronica* (1725); *Chronologia veterum regnorum enmendata* (1728); *Animadversiones in observationes factas in ejusdem Brevia Chronica*.
- 41 Bakarriketa txit ezagun honen bertsio volteriarra itzulpen literaletik arras desberdina da.
- 42 John Harveyk, gerora zigiluzaina izango zenak, 34 urte zituen Voltaire ezagutu zuenean.
- 43 Inkisizioa izan zen Voltaireren ideia finkoenetarikoa. Argien mendean haren eragina txikiagoa bazen ere, ez zegoen inondik inora desagerturik.
- 44 Gutun honetatik sortuak dira Hiztegi filosofikoa-ko "Priorez, Hudibrasen poema bereziaz eta Swift deanaz" eta "Pope" artikulak.
- 45 Voltairek, gerora, aldatu egin zuen pixka bat Rabelaisi buruzko iritzia; parrafo hau, ordea, ez zuen ezabatu gutun honen ondorengo birmoldaketetatik.
- 46 Crebillon.
- 47 Louis Racine, Erlijioa-ren egile eta dramaturgo klasiko handiaren semea.
- 48 Adrienne Lecouvreur aktorea handiaz ari da; Voltaireren adiskide min honi kanposantuan lurra ematea debekatu zion Elizak, lehen Molière

rekin egin zuen bezala. Voltairek eta zenbait intelektualek protesta kanpaina gogorra egin zuten gertakari lotsagarri hau zela eta.

⁴⁹ Gutun honek "Londreseko Errege Elkartea" artikulua osatzen du, aipatu Hiztegi filosofikoa-n.

⁵⁰ H. Morinen disertazioaz ari da: "Des privilèges de la main droite", Mémoires de l'Académie, t. III, 68-72 orr.

⁵¹ Karta joko bat.